



Hamar urte  
Debagoiengan  
kantari

Josu Feijoo  
astronautari  
elkarriketa



## PENTSIODUNAK BORROKAN

"Pentsio duinak" eskatzeko protesta-ekimenak ugaltu egin dira / 5

Arrasateko lau pentsiodun, astelehenean Herriko Plazan egindako elkarretaratzearen ostean. XABIER URZELAI

## Musika jaialdi bat izango da Oñatin martxoan

Beratu izeneko jaialdia antolatu du Oñatiko Udalak, herriko eragileekin eta Ahotsenearekin, eta kontzertuak, disko azoka eta tailerrak izango dira astebetez / 40

**Herriko udaltzainek su-armak erabiltzeko baimena eskatu du Arrasateko udaltzainburuak / 10**

**Emakumezkoak ere lehiatuko dira, lehen aldiz, oraingo domekan, Urrezko Aizkoran, Oñatin / 39**

**Epeleko konpost plantako euri-uren depositua konpondu dute eta aurki hasiko normal lanean / 3**

**Hilzoriko Kristoa bihar, zapatua, iritsiko da Bergarara, urtebete kanpoan eman ostean / 6**

### SINADURAK

	MARIJO DEOGRACIAS / 8		SAIOA GARITANO / 26
	PERU ABARRATEGI / 17		ELIAS ZUMALDE / 35
	IDOIA ETXEBERRIA / 48		

Adur  
HORTZ KLINIKA

25.  
urteurrena

Mila esker urte hauetan  
bidelagun izateagatik

Arrasate pasealekua 15, behea  
20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60



Astelehen eguerdian Arrasaten egin zuten elkarretaratzea. Ondoren, Correosera joan ziren, gutunak Madrilera bueltan bidaltzera. XABIER URZELAI

# Gutunak bueltan doaz Madrilera

Debagoieneko erretiratu eta pentsiodunak "oso haserre" daude Fatima Bañez ministroak bidali dien gutunarekin. %0,25eko igoera "burla egitea" dela argudiatuta, mobilizazioekin jarraituko dute: "Inoiz ez da gure kolektiboa horren batuta egon"

**Xabier Urzelai** DEBAGOIENA

"Madrildik jasotako gutunekin erabat sututa". Halaxe daude Debagoieneko erretiratu eta pentsiodunak, Gipuzkoako erretiratuen presidente Jose Riviere arrasatearrak aitortu moduan. Izan ere, beste urte batzuetan moduan, Fatima Bañez ministroak gutun bidez azaldu die erretiratu eta pentsionistei %0,25eko igoera izango dutela: "Hilaren 22an jende asko joan behar dugu Donostiako manifestaziora. Abaroan dagoeneko 50 lagunek eman dute izena eta Aretxabaletan ere beste horrenbeste daude. Orain momentuan autobusak antolatzen nabil".

Abaroako presidentea ere bada Riviere, eta dio aspaldian ez duela jendea horren haserre ikusi: "Herrian egiten gabiltzan mobilizazioetan inoiz baino jende gehiago dabil esku hartzen,

burla egin digute aurpegira, tontotzat hartzen gaituzte, eta nahikoa da. Fatima Bañez ministroa gezurra esaten dabil behin eta berriro, eta uste du askotan errepikatzearren gezur hori egia bilakatuko dela, eta hori ez da horrela. Ez da posible azaroan KPI %3tik gora ibiltzea, eta azken hilabetean halako jaitsiera egotea. Zenbaki horiek gura dituzten moduan erabiltzen dituzte, eta guri %0,25 igoko

**"%0,25EKO IGOERA ADARRA JOTZEA DA, BURLA EGITEA"**

**"ASPALDIAN EZ DUT JENDEA HORREN HASERRE IKUSI"**

JOSE RIVIERE, ARRASATE

digutela esan digute. Lotsa gutxi izan behar da hori esateko. 2013tik dabilza kopuru hori igotzen, eta urte hauetan bizitza izugarri garestitu da. Hori ez da igoera, hori adarra jotzea da", dio Rivierek.

**Oñatin 540 gutun inguru**

Astelehenean, Arrasaten eta Oñatin mobilizazioak egin ostean gutunak entregatu zituzten Correosen: "Oñatin 560 inguru

**"OÑATIN 540 GUTUN ZENBATU GENITUEN, MADRILERA DOAZ"**

**"BIZIMODUA GARESTITZEN DABIL, ETA PENSIOAK?"**

JOSE ANTONIO AMUNDARAIN, OÑATI

## Astelehenean, kalera berriro

Aste barruan hainbat mobilizazio egin dituzte Debagoienean –astelehen eguerdian Arrasaten eta Oñatin erretiratuek Correosen entregatu zituzten Fatima Bañez ministroak bidalitako gutunak– eta datorren astelehenean, hilak 19, mobilizazioekin jarraituko dute. Bergaran astelehenean bertan entregatuko dituzte gutunak Correosen: "Jendeari eskatzen diogu gutunekin etor daitezela, ekimen honetan parte har dezatela, nahikoa dela esateko ordua da-eta", dio Itziar Usandizagak. 12:00etarako egin dute hitzordua. Hilaren 22an, berriz, Donostiako manifestazioan parte hartzeko dei egin dute.

**"IGOERA KPI-AREKIN PAREKATZEA GURA DUGU"**

**"DUINTASUNEZ BIZITZKO 1.080 EURO BEHAR DIRA"**

ITZIAR USANDIZAGA, BERGARA

zenbatu genituen", dio Jose Antonio Amundarainek. Correosera joan ginen zalapartarik sortu barik, eta protesta moduan gutunak Madrilera bidali ditugu bueltan. Nahikoa da, %0,25eko igoera ez datorrelako bat bizitzaren garestitzearekin. PPK aspaldi hartu zuen pentsioen poltsatik dirua ateratzeko erabakia, eta ondoren, lan erreforma berriarekin kotizazioen kopurua jaitsi egin da. Garbi dago PP alderdiaren asmoa dela tresna publikoak indargabetzea, eta orain aurrezki pribatuen aldeko adierazpenak egiten dabilza. Lotsagarria da; izan ere, aurrezki pribatuak egiteko ere dirua behar da!".

Bergaran, Itziar Usandizaga ere bat dator, eta herrian inoiz baino mobilizatuago ikusten du jendea: "Astelehenero egiten ditugu herri batzarrak, eta jendea parte hartzeko gogotsu ikusten dut. Agintariei erakutsi behar diegu hemen gaudela, zutik, gure eskubideen alde borrokatzeko gertu".

Usandizagak azpimarratu du hiru puntu dabilzala nabarmen-tzen. "Alde batetik, %0,25eko igoera beharrean, igoerak KPI-rekin berdindu behar direla. Bestetik, Europako Gutun Sozialak gomendatzen du duintasunez bizitzeko gutxieneko pentsioek 1.080 eurokoak izan behar dutela. Eta, azkenik, Gizarte Segurantzaren sistema propioa gura dugu, erabakiak hemendik hartzeko".



Epeleko konpostatze planta. GOIENA

# Euri-urendako Epeleko depositu berria, bukatuta

Bukatu dira Epeleko konpostatze plantan ur depositu berria egiteko lanak. 360.000 euroko aurrekontuarekin, Murias eraikuntza enpresak egin ditu horiek. Konpostatze plantaren ustiaketa egingo duen enpresa aukeratzeko prozesuan da orain GHK

**Miren Arregi** ARRASATE

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko (GHK) arduradunak pozik dira, lanak hasi zirenetik hiru urte pasatu direla, Epeleko konpostatze plantaren ustiapena esleitzeko puntuan dagoelako. Prozesua gorabeheratsua izan da, aurreko agintaldian EH Bilduk martxan jarritako proiektuan "akatsak" atzeman baitzituen Gipuzkoako Hondakinen Kontsorziokoak. Hori horrela, txosten tekniko eta txosten juridikoa eskatu zituen kontsorzioko Administrazio Kontseiluak, "akats" horiek zeintzuk ziren zehazteko. Txostenak ondorioztatu zuen, besteak beste, euri-uren deposituak ez zuela behar besteko edukierarik. "Beste arazo batzuk ere antzeman ziren baina hori zen arazo nagusia", diote hondakinen kontsorzioko iturriek.

Hala, iaz irailean esleitu zitzaion Murias eraikuntza enpresari Epeleko Konpostatze plantaren prozesu-depositua handitzeko obra kontratua.

360.000 euroko aurrekontuarekin, 12 asteko epea izan du enpresak lanok egiteko, eta, depositu berria bukatuta, konpostatze plantaren ustiaketa zein GHKren jabetzako makineriaren ustiapen, mantentze eta kontserbazioa eta konpostaren salmenta esleitzeko prozesua berrabiatu dute. Lan hori egiteko bost enpresak aurkeztu zuten euren burua iazko martxoan publiko egin zen lehiaketara. Ur depositua handitzeko erabakia hartu zutenean, baina, bertan behera gelditu zen prozesua, "berme guztiakin eta lan guztiak bukatuta daudenean egin behar baita ezinbestez adjudikazioa". Orain, aurkeztutako "proposamenak baloratzen" ari dira eta "aurki" emango da

**EURI-UREN DEPOSITU BERRIA BUKATUTA, EPELEKO USTIAKETA ZEINEK EGINGO DUEN JAKINGO DA AURKI**

aditzera kudeaketa egingo duen enpresaren izena –une honetan GHK-k egiten du hori-. Kontratuaren aurrekontua 4.908.000 euro da, BEZ barik.

**Debagoienetik Epelera**

Bien bitartean, Epeleko konpostatze planta frogaldian da eta nahiz eta ez dagoen %100eko jardunean –%40an dago-, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioren txosten baten arabera, 2017an –urtarriletik urria bukaerara bitartean– 4.141 tona bio-hondakin batu ziren eta horietatik 1.843 tona konpost sortu. Txosten horrek dio, gainera, sortutako 1.843 konpost tona horietatik 953,46 tona saltzea lortu zela, hau da, sortutako konpost kopuruaren erdia.

Une honetan, Debagoienean sortzen den organikoaren %60 doa Epeleko konpostatze plantara. Azken bi asteetan Debagoienetik kanpoko konposta ere eroan dute Epelera, baina ez da ohikoena.

## Martxoaren 8ko mobilizazioetan parte hartzeko dei egin dute

Emakumeak ez badaude mundua gelditu egiten dela irudikatu gura du Martxoak 8 Grebarako Asanbladak

**M.A ARRASATE**

*Euskal Herrian, Emakumeok planto!* izango da Martxoaren 8ko mobilizazioetarako lelo nagusia, eta, besteak beste, "sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen" antolatutako nazioarteko greba izango da. Herriz herri egingo diren ekintzekin osatuko da.

Abenduaren 2an abiarazi zuten egitasmoa, Gasteizen, bilgune feministak, gehiengo sindikalak eta gobernuz kanpoko zenbait erakundek. Han izan zen Debagoieneko ordezkariak ere. Gero, otsailaren 2an egin zuen grebaren nondik norakoan aurkezpena, Donostian, Euskal Herriko mugimendu feministak.

**Esparru askotara**

Euskal Herriko mugimendu feministak lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetan banatu du greba, emakumei lanuzteak egiteko eta mobilizazio nagusietan parte hartzeko dei eginez. Ez kontsumitzeko dei ere egin dute, batik bat, saltoki handietan, "horiek baitira lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur esanguratsuenetakoa".

Greba lau ardatzen inguruan antolatu dute. Alde batetik, enpresetan kontratatutako beharginen eta ikasleei launa orduko bi lanuzte egiteko eskatu diete. Bestetik, garbiketarik ez egiteko, haurrik ez eramateko eskolara edota adinekorik ez zaintzeko egun horretan.

**Hainbat gogoeta**

"Ez da erronka makala", diote Debagoieneko Martxoak 8 Grebarako Asanbladako kideek, astean kaleratutako idatzian: "Gure herrietan eztabaidatzen hasi eta zalantza ugari sortu baitzizkaizkigun", gehitu dute: *Zein da gure eragiteko gaitasuna? Eta emakume guztiok kalera aterako bagina zer gertatuko litzateke? Greba edo paroa? Zaintza lanen greba egitea posible da? Zer gertatuko da nire etxeokoa zaintzen ez badituzte?* "Sistema honek sexuaren arabera lan banaketa bultzatzen du eta ezkutetzen ditu gutxiesten dituen feminizatutako ogibideak, bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak", diote. Eta erantsi dute: "Sistema honek ez ditu emakumeen enpleguak modu berean baloratzen, feminizatutako lanbideen eta autonomoen prekarietatea sustatzen du, eta ikusezin bilakatzen ditu zaintza lanak, neurri handi batean emakumeek doan eginak, eta nagusiki migratutakoak".

Gogoeta egiteaz gain, Martxoak 8 Grebarako Asanbladak bakoitzak ahal duen mobilizazioetan parte hartzeko gonbidapena egin du: "Emakumeak ez bagaude, mundua gelditzen dela irudikatu nahi dugu etxean, lanean eta kalean". Sindikatuek lanuzteak iragarri dituzte: 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 8ko greba herriz herriko ekintzekin osatuko da.



2018/19 ikasterterako  
Irakasle-Tutore plaza lehiaketa deialdia

Eskaerak aurkezteko epea:  
2018ko otsailaren 17tik 26ra arte

[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

# Berdinbidean programa hedatzeko lanean

Genero berdintasunerako politikak garatzeko egitasmoa aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lurraldeko udalerrietako 25 alkate bertaratu ziren hitzordura; tartean ziren Antzuolako eta Aretxabaleako alkateak

**Iker Oñate** DEBAHOIENA

Genero berdintasunera bidean urrats berria egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bada, lurraldeko 25 udalerritako alkateekin batzartu ziren Markel Olano ahaladun nagusia eta Miren Elgarresta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko zuzendaria; horien artean ziren Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria eta Aretxabaleako alkate Unai Elkoro. Besteak beste, 1.000 biztanle baino gutxiagoko herriei zuzenduriko orientazio zerbitzu berri bat aurkeztu zuten Aldundiko ordezkariak.

Zehatz esanda, egitasmoan murgildurik da Antzuolako Udala. "Berdinbidean egitasmoari baino gehiago, parekidetasunari ematen diogu garrantzia. Finean, berdina gara guztiok. Eta ideia hori zabaltzea dagokigu", azaldu du Kortabarria. Horretan lanean segitzeko konpromisoa berretsi du, beraz.

## 2010a ezker martxan

2010ean jarri zuten martxan Gipuzkoa Berdinbidean egitasmoa. Eta hiru ardatz nagusiren bueltan garatu da: lan mintegi orokor, prestakuntza saioak eta banakako zein taldekako aholkularitza. Horren bidez, besteak beste, balioen aldaketa, emakumeen jabekuntza eta indarkeria sexista lan-ildoak eroan dira aurrera.

Esan moduan, egitasmoarekin urratsak egin gura dira berdintasunaren bidean. Hala, emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko konpromisoa berretsi zuten Olanok. "Gi-

**1.000 BIZTANLETIK BEHERAKO HERRIEI ZUZENDURIKO EGITASMO BERRIA AURKEZTU DUTE**

puzkoa pertsonen arteko desberdintasun gutxien duen lurraldea izatea dugu helburu, baita sexuen arteko baldintzari dagokionez ere". Eta horren bidean eginikoak ekarri zituen gogora: "Etorkizuna Eraikiz-en bueltan egitasmo ezberdinak jarri ditugu martxan, aitzindariak eta erreferente izan gaitzen berdintasuna bezalako arlo garrantzitsuetan". Era berean, gogorazi zuen Gipuzkoak duen "beste erronketako bati" ere erantzuten diola Gipuzkoa Berdinbideanek: "Proiektuak garrantzi handia du lurralde orekaren ikuspegitik, sarri, herri txikiek dituzten baliabide eta aukera ezari erantzunez".

Oro har, egitasmoak 10.000 biztanle baino gutxiagoko herriak ditu erdigunean. Eta berdintasun politikak garatzeko eta indartzeko laguntzarako tresna izan gura du, "beraien errealitatera moldatuz eta banakako berdintasunerako planifikazioak egiten lagunduz". Aldundiko ordezkarien esanetan, "berdintasun politikak eta ekintzak abian jartzeko zailtasunak dituzten herriak" lirarteke horiek, batez ere, "giza baliabide faltagatik". Gaur-gaurkoz, 37 udalerririk dute bat eginda proiektuarekin -horietako hemezortzi azken urtean-. Hala, 60.000 biztanle inguruk ezagutu du Berdinbidean. Eta, horrekin ase barik, kopurua handitu gura du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gauzak horrela, herri horien parte hartzea eskertu zuen Elgarrestak, lurraldeak berdintasunaren bueltan harturiko konpromisoaren adierazle dela azalduz. Eta horretan segitzeko eskatu die. Horrez aparte, aurrera begira ere jarri zen: egitasmo berriarekin bat egiteko eskatu zien bertaratutako 1.000 biztanle azpiko herrietako alkateei, "ahal duten neurrian", betiere.



Berdinbidean bueltan Foru Jauregian eginiko saioa. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Amaia Txirruameta,  
Kantariak aurkezlea

6. ALDIA

# Kantari

DEBAGOIENA

Bergara, Antzuola eta Elgetako partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK

Otsailaren 17an eta 18an, Zabalotegi aretoan.

IKUSKIZUNA

Otsailaren 24an eta 25ean, Seminarixoa aretoan.

Animatu eta etorri neska-mutikoekin kantuan eta dantzan egitera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04  
blogak.goiena.eus/kantari



goiena™



Milaka arrain hilda agertu ziren Deba ibaian, astelehenean. PLAENTXIA.EUS

# Arrainen birpopulatzea eta heriotza Deba ibaian

Madrilgo Barajas-Adolfo Suarez aireportuan konfiskaturiko 310 kilo angula askatu dituzte Gipuzkoako ibaietan; tartean, Deba ibaian. Eta astelehenean milaka arrain azaldu ziren hilda bertan; Soraluzen eta Bergarako Osintxu auzoan, besteak beste

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Madrilgo Barajas-Adolfo Suarez aireportuan konfiskaturiko 310 kilo angula askatu dituzte Gipuzkoako ibaietan. Hain zuzen ere, Oiartzun, Urola, Deba, Oriá eta Leitzarán ibaietan. Espeziearen birpopulazioa bultzatu guran gauzatu dute egitasmoa. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak hamar urte daroatza

horretarako plangintzarekin. Hori horrela, Aldundiak onartu du "ekintza garrantzitsua" dela urtarrilaren 31n burututakoa. Eta "pozik" azaldu da askatutako angula kume kantitatearekin. Orain artean, arrautzak erosi eta hazi izan dituzte; horren ostean, behar moduko tamainara heltzean, askatzeko.

Orain, birpopulazioa gerta dadin itxarotea dagokie; prozesua arazo barik emateko esperantzarekin dihardu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrez aparte, argitu gura izan du, libratutako angulek gaixotasunen bat izatekotan, ez lituzketela jada lurraldeko ibaietan dauden angulak kutsatuko. Beraz, ez legoke arriskurik.

## Ibaiaren baldintzetara egokitzen

Angulak ibaiaren baldintzetara egokitzean dago gakoa. "Ez dakigu zehazki non harrapatutako angulak diren. Beraz, ezin jakin hemengo ibaietako baldintzetara egokitzerik izango duten; bertako ur hotzera, esaterako", azaldu du Jon Ugarte basozainak. Angulak kanpora bidaltzen dituen taldeak zuzenean erosten die arrantzaleei, beraz, ibaietan hartutakoak dira horiek. Bien bitartean, aldian aldiko segimendua egingo dute aldundiko arduradunek.

Bada, horiek askatzeko aukeraturiko erreka eremuetan ez da ohikoa angulak topatzea, bertako baldintzengatik. Besteak beste, horietan dauden presek zaildu egiten dute angula kumeak leku garaietara iristea. Horregatik askatu dituzte ibaiotako leku garaietan. "Angula berriak jada han zeudenekin nahastea da asmoa", dio Ugartek.

## Asiara bidean

Asiara bidean zihoazen konfiskaturiko angulak. Aingira moduan saltzen dituzte bertako zenbait herrialdetan; angulak gizentzen dituzte horretarako. Finean, espezie preziatua da haiendako. Eta, beraz, asko dira bertara bidaltzen diren angulak, legezkoa ez den arren. Alegia, mehatxatutako espezie moduan du katalogatua Europar Batasunak, eta, hori horrela, debekatua du espeziearen inportazioa zein esportazioa.

## Arrainak hilda Deba ibaian

Bestalde, hainbat arrain hilda agertu ziren Deba ibaian –Soraluzen eta Bergarako Osintxu auzoan, tartean–, astelehenean. Bertan izandako isurketa bat izan da ezbeharraren eragile.

Ura Agentziak uste du astelehenean eman zela isurketa. Dena den, ez dakite non gertatu zen zehazki. Aste honen bukaeran zehaztea espero dute, "zehazte-kotan": "Sarri, ez da erraza izaten isurketaren benetako jatorria zein izan den jakitea. Ea lortzen dugun".

Hala, Ura Agentziako zenbait langilek Deba ibaiko hainbat eremutan jardun dute lanean asteon, Ertzaintzarekin eta basozainarekin elkarlanean. Besteak beste, Bergara erdigunean, Mekoalden, Osintxun eta Soraluzen izan dira, erreka laginak ateratzen; bertako ura eta zenbait arrain hartu dituzte, ezbeharraren eragilea topatu guran. Agentziak jakinarazi dutenez, gainera, balizko delitu izan daiteke gertaturikoa.

## Gertaera "larria"

Gertaturikoa "oso-oso larritzat" jo du Ura Agentziak. Eta erantzun beharreko zenbait galdera ditu: "Arraroa da Soraluzen milaka arrain hilda agertzea, Osintxun eta Mekolalden bat edo beste hil direnean".

Esan moduan, kasua ikertzen dihardute orain: "Ikerketa abiarazi dugu isurketa-jatorria zehazteko. Balizko erantzukizun zein erantzuleak zehazteko ahalegin guztiak egingo ditugu. Eta, ostean, gardentasunez jakinaraziko ditugu ikerketaren emaitzak. Hala, balizko zehapen-espedittea irekitzerik bada, ireki egingo dugu".

## 310 KILO ANGULA ASKATU DITUZTE DEBA IBAIAN, BIRPOPULATZEA BULTZATZEKO



ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN  
GOIENA LEHIAKETA 2018

ANTOLATZAILEA:  
**goiena**  
Zu hemen zaude.


LAGUNTZAILEAK:



ALADJI SARR  
bergararra izan  
da irabazlea.

Harentzako da JON HARATEGIAREN  
eta HANKABELTZ URDAITEGIAREN  
produktuekin egindako otar bikaina.  
Zorionak zozketaren irabazleari eta  
eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!!





Aste honetan Donostiako Artzain Onaren katedralean izan dute. DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

# Bihar iritsiko da jatorrizko lekura

Urtebete baino gehiagoren ostean –2017ko urtarrilean eraman zuten Sevillara–, Bergarako Hilzoriko Kristoa Ariznoako San Pedro parrokiara bueltatuko dute bihar, zapatua; guztiz zaharberritu du Andaluziako Ondare Historikoko Institutuak

**Eneko Azurmendi** BERGARA

Iaz urtarrilean eraman zuten Sevillara Bergarako Hilzoriko Kristoa, Karmeldarren komentuko erakusketan jartzeko, Pablo Rojasen eta Martinez Montañesen beste bi piezarekin batera. Erakusketan jarri aurretik, baina, Andaluziako Ondare Historikoko Institutuak goitik behera zaharberritu du pieza, zazpi hilabeteko lan "mardul" baten bitartez. Maite Real Andaluziako Ondare Historikoko Institutuko zaharberritzailea da eta Hilzoriko Kristoaren lanen koordinatzaile lanetan aritu da. "Pieza hau ikaragarria da, gurutzil-tzatu barroko baten modelo perfektua. Perspektiba historiko batetik begiratuta, obra hau XVII. mendeko gizarte barrokoak erlijioa adierazteko moduaren isla garbia da. Irudia bera, iltzeak eta egurra zedrozkoak dira eta

gurutzea, berriz, haritz-egurrezkoa. Oso originalak", azaldu du Realek. Pieza institutuaren eskuetara iritsi zenean, hainbat kalte zituela azpimarratu du zaharberritzaileak. Hori dela eta, zaharberritzea erronka bat izan dela adierazi du. "Lehenik eta behin, goitik beherako garbiketa oso bat egin genion. Izan ere, hauts kapa lodi bat zuen. Horrez gain, aurpegian zenbait erredua zituen. Hasieran aurpegia beltza zen eta sakabanutako anpoilak zituen, erreduren ondorioz. Gorputzeko zenbait

**BIHAR, ZAPATUA, 19:00ETAKO MEZAREN OSTEAN JARRIKO DUTE BERE LEKUAN HILZORIKO KRISTOA**

ataletan ere bazituen zenbait erredua", nabarmendu du.

Institutuaren zereginen artean, lehenik eta behin, polikromoaren kontserbazioa bermatzea izan da, irudia behar bezala mantenduz. "Laguntza zientifikoa ere izan dugu. Horri esker, erradiografiak eta analisi kimiko eta biologikoak egin dizkiogu piezari", adierazi du Realek.

Bestalde, koroako zati batzuk galduta zituen, ez dute berregin, "datu faltagatik eta zatien tainagatik". Erabaki bera hartu dute gorputzeko zenbait zatixorekin.

Institutuak txosten bat publiko egingo du, egindako aldaketa guztiak zehazten dituen.

**Bihar, etxera**

Gauzak hala, Hilzoriko Kristoa guztiz zaharberrituta iritsi da Euskal Herrira. Urtebete baino



Kapera zaharberritzeko aprobetxatu dute. AMAIA TXINTXURRETA

## Kapera ere, zaharberrituta

Hilzoriko Kristoa kanpoan egon den denbora aprobetxatuta, San Pedro parrokiako kapera zaharberritu egin dute. "Konturatu ginen ezin zela kapera honetara itzuli kapera zegoen egoera horretan egonda. Beraz, Kristoa eraman eta berehala hasi ginen kapera zaharberritzeko lanekin", azaldu du Jon Molina parrokoak.

Lehenengo, erretaula zaharberritu zuten, eta, horrekin batera, argiteria, pinturak eta burdin hesia. Horrez gain, ama birjinaren koadroari azken ukituak ematen ari dira orain.

Artez enpresako Maite Fernandez eta Aida Paya aritu dira kaperaren zaharberritze lanak egiten, baita ama birjinaren koadroarenak ere. "Koadroaren markoa garbitzen genbiltzala, konturatu ginen pipiak koadroa jaten ari zirela, eta, Kristoak zaharberrituta etorri behar duenez, eta pipia egur batetik bestera erraz pasatzen denez, guztia zaharberritu dugu. Herdoildutako berniza kendu diogu, garbiketa egin dugu, hutsuneak bete ditugu, eta orain, koloreari azken ukituak ematen ari gara", azaldu du Fernandezek.

Guztiak ere "gogoz" daude egindako lanaren emaitza bere osotasunean ikusteko, hau da, zaharberritutako Hilzoriko Kristoa eta kapera elkarrekin ikusteko.

### 75.000 euro

Kaperaren zaharberritze lanek 45.000 euroko kostua izan dute, eta Parrokiako funtsetik ordaindu da, baina herritarren ekarpenek ere garrantzi handia izan dute. "Eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten herritar guztiak, eta, bereziki, San Pedroko eliztarrei", azpimarratu du Molinak. Hilzoriko Kristoaren zaharberritzeak, bestalde, 30.000 euroko kostua izan du, baina hori ez du Parrokiak ordaindu. "Gipuzkoako Foru Aldundiak 8.000 euroko diru laguntza eman du, eta beste enpresa eta norbanako batzuen ekarpenarekin ordaindu da gainontzekoa.

gehiago etxetik kanpo egin ostean, aste honetan Donostiako Artzain Onaren katedralean eduki dute ikusgai, eta bihar, zapatua, iritsiko da jatorrizko lekura, Bergarako Ariznoako San Pedro parrokiako kaperara, hain zuzen. "Ilunkeran iritsiko

**30.000 EUROKO KOSTUA IZAN DU HILZORIKO KRISTOAREN ZAHARBERRITZEAK**

da Bergarara. 19:00etan meza egingo dugu, eta hau bukatzean jarriko dugu bere lekuan", adierazi du Jon Molinak, Bergarako parrokoak.

Domekan, berriz, Hilzoriko Kristoa bere lekuan dagoela, lehen meza egingo dute, 12:00etan. "Meza berezia izango da, eta Parrokiako Abesbatzak ere abestuko du", azaldu du Molinak.

Azkenik, martxoaren 23an, Erramu Zapatuaren bezperan, kontzertu berezia eskainiko dute herriko lau abesbatzek San Pedro parrokiari, 20:00etan.

**Antzuola-Bergara bidea****JOSEBA IPARRAGIRRE**

ANTZUOLA

Zigor handi samarra jasaten ari da bide zahar hau aspalditxo honetan.

Alde batetik, eguneroko trafikoa; norbaitek izango du pasatzen diren autoen eta kamioien estatistika.

Nik neuk astelehenetik ostiralera milaka zenbatuko nituzke.

Hori gutxi balitz, azken urteotan, autobiarren lanek eraginda, trafiko astunaren gehitze bat gertatu da. Kamioiek menditik ekarrita bidea lokaztuta lagatzen dute, arriskutsuago eginez, obratik bat-batean lehentasunez irteten diren kamioiek gainontzeko ibilgailuei susto bat baino gehiago emanez, han eta hemen luiziak. Iribar parean obrarako sarbidea egiteko bidea ere aldatu egin da, benetan arriskutsua bilakatuz. Eta orain, bide guzia zuloz betetzen hasi zaigu, eta honetan, azken asteotako elurteek eta botatzen den gatzak ez dute lagundu.

Kezkatzekoa da hor dabilen trafiko guztiarekin bidearen egoera noialakoa den.

Agian, honen ardura dutenak jabetu dira eta lanen bat abian jartzea pentsatua izango dute, edo, beharbada, eta autobiarren lanek irau bitartean, behin-behineko egoera denez, amaitu arte luzatzea pentsatuko dute. Ba, nik diot ez badira jabetu, datozela asteko ordu punta

baten, ikus dezatela bidearen egoera, eta ondoren erabakitzeke, ez dagigula gertatu istripu larri baten ondoren behin-behinekotasuna alde batera laga eta arrapataka konponketa lanak egin hasi beharra.

Mila esker!

**Karnabaletako parte hartzea txalotu****MAITE AGIRRE**KULTURA ETA JAIEN ZINEGOTZIA  
BERGARAKO UDALEAN  
BERGARA

Egun berezia izan zen Karbanaletako ostirala, biziki gozatu nuen.

Aurten 30. urte bete ditu Karnabaletako kontzertuak; bergararrok gogotsu itxaroten dugun hitzordu bihurtu da.

*On line* sarrerak 25 minututan saldu ziren eta txarteldegian, berriz, orduetako itxaron ilarak sortu ziren.

Argi dago Bergarako Musika Bandak lortu duen arrakasta esplikaezina dela. Ostiralean, Bergarako Bandaz gain, Bergarako Orkestra, Aritzeta Abesbatza, Kulunka taldeko dantzariak, Maria, Ainara, Joana, Javi, Iosu... 150 lagunetik gora parte hartu zuten kontzertuaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen, eta, nire kasuan, bertan parte hartzeko ohorea izan nuen.

Bergaran harro egoteko arrazoiak dauzkagu eta ostiralean argi geratu zen.

Zorionak egindako lan guztiagatik eta segi horrela beste 30 urte, gutxienez, Bergarako kulturaren alde lanean!

**4.000 gipuzkoar inguru****JOSU GARITAONANDIA**'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN  
ARDURADUNA  
BERGARA

Erakunde publikoetatik diru laguntzak jasotzen ari dira, beraien etxea eta ura berotzeko behar duten energia ezin dutelako ordaindu.

Energia eredu hori ez da egokia, gizartearen beharrak ez ditu asetzen, argindar enpresa handi batzuenak baizik.

Ez da kasualitatea hemengo elektrizitatea Europako garestienetakoa izatea, ez da kasualitatea argindar enpresa handi gutxi batzuen izugarritzko irabaziak, ez da kasualitatea argindar enpresa horietako agintari batzuen ikaragarritzko soldatak...

Gobernuak, gizartearen interesak babestu behar dituztenak, nora begira daude?

Ez da kasualitatea Felipe Gonzalez Fenosan egon izana edota Aznar Endesan.

Non uste duzu egongo dela Rajoi bere lan publikoak bukatzen dituenen?

Zure etxeko argindarra argindar enpresa handiei erosten diezula?

Garaia da kooperatiba energetiko batera aldatzeko,

uste duzun baino gauza gehiago daude-eta jokoan.

**Oñatiko Kultura Saria, zergatik ez?****AMAIA EROSTARBE**OÑATIKO EAJ-PNV-REN UDAL TALDEA  
OÑATI

Hainbat sari banatu dira Gabonetan Oñatiko Udalean, urtero legez.

Batetik, Urteko Kirolari Onenen Saria.  
Bestetik, Erakuslehoi Onenen Saria.

Orain dela hamar bat urte jarri ziren abian sariok, EAJ-PNVren ekimenez, Udal Gobernuan zegoenean.

Xedea izan zen kirolarien eta merkatarien lan ona, ahalegina eta ibilbidea aitortzea, balioan jartzea eta bistaratzea.

Aitorpen-sariak izan dira, beraz, hasiera-hasieratik.

Hala ere, Oñatin ez da kulturaren esparruan diharduen edo jardun duen inor saritzen.

Ez dago Kultura Saririk emateko modurik!

Eta, horren aurrean, EAJ-PNVren udal taldeak Kultura Saria sortzea proposatu zuen/du, bai 2017ko, bai 2018ko aurrekontuetan aurkeztutako ekimenetan.

EH Bilduren Udal Gobernuak, ordea, ezezko borobila eman zion/dio proposamenari.

Haien erantzuna, hauxe: "Ez dugu egoki ikusten; eragileei aitortza egin baino gehiago, eragileen arteko

*konpetentzia ez sana* eragin dezake".

Hara hor, bada!

EH Bilduren erantzun hori aitzakia izan da EAJ-PNVren ekimena, besterik gabe, atzera botatzeko?

Hala, EAJ-PNVren udal-taldekideei galdera hau etorri zaigu burura: herriko kirolari onenen artean eta erakuslehoiak ondoen apaintzen dituzten merkatarien artean ez al da "konpetentzia ez sana" sortzen?

Oñatin badago talentua.

Baita, kulturari, saritzeko moduko ekarpena egin dion oñatiarrik ere.

Euskal Herritik kanpo eta European sariak irabazitakorik ere bai.

Esaterako, azken egunetan saria handia izan duen

*Handia* filmaren zuzendarietatik bat, Aitor Arregi.

Ez dago, ostera, horrelako oñatiarrik saritzeko biderik.


Hutsune handia dago EAJ-PNVren iritzian, eta tristura sortzen digu hainbat herritan ezarrita dauden sariak ematerik ez izatea.

Horregatik, zera eskatzen diogu, beste behin ere, EH Bilduren Udal Gobernuari: kulturaren esparruko sortzaileak aintzat hartzea eta Kultura Saria sortzea, lan ona eta ibilbidea aitortzeko eta eskertzeko, balioan jartzeko eta bistaratzeko.

Ea gai garen 2019. urtean Kultura Saria banatzeko!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

**HAUXE BAI JENEROA!****GARBINE UBEDA**



ZABALIK

MARIJO DEOGRACIAS

## Kristau onak

Asteon jakin da Nafarroan eskolatuko diren 3 urteko neskato-mutikoek erlijio katolikoaz gainera, islamiarra ere aukeratu ahalko dutela hurrengo ikasturtean. Tira, eurek ez, jakina; gurasoek!

Eta hasi dira erlijio katolikoa eskoletatik ateratzeko ahalmena eskura izan zuten Alderdi Sozialistakoak esaten erlijio aukera gehiago sartu ordez, egin behar dena dela eskola laikotu.

Hara! Noiz eta erlijio islamiarra eskainiko dela jakitean. Gonzalezek ez zuen kendu. Zapaterok ere ez; are gehiago, Eliza Katolikoarekin ekonomikoki onuragarria izan zitzaion elkarlana sustatu zuen. Hauteskunde kanpainen Sanchez ere ibili zen erlijioa eskolatik atera nahi zuela esaten, baina nola gauzatu nahi zuen argitu barik. Ez baita erraza 1979an Espainiak Vatikanorekin sinatu zuen konkordatu bertan behera uztea; nazioarteko hitzarmenaren kategoria dauka eta alde bakartasunez apurtzea ez litzateke dotorea izango. Edo bai! Ausartu egin behar!

### NAFARROAKO SOZIALISTAK SUTU DIRA ERLIJOAREN KONTRA, ISLAMIARRA ESZENARATU DENEAN

Kontua da ez zutela egin, eta ez dutela egingo.

Orain, Nafarroako sozialistak sutu dira erlijioaren kontra, islamiarra eszenaratu denean.

Eta, badaezpada, UPN, isilik; ez daitezela hautsak harrotu, katolikoek kontra.

*Diario de Navarra*-k hasi du bidea: islamiarra eskaintzea eskubidea dela eta Espainiako legearekin betetzera datorrela. Asteburuan erreportaje zabal batean azaldu zuen zertara zetorren islamiar erlijioaren eskaintza eta, lortu du, bere kordakoak behinik behin, ahorrak ez zabaltzea.

Sozialistak, berriz, nahi eta ezinean. Aukera izan dutenean, kale; beraz, orain, bale.

Irtentzidea eskaria gutxitzetik etorriko baita; gurasoek eurek laga beharko liokete hautua egiteari. Izan ere, eskaririk egon ezean, eskaintzarik egiteko derrigorotasunik ez. Ikastetxe batzuk antolatzen dira, guraso elkarteekin batera, eskaririk egon ez dadin, eta era horretan erlijioa eskolatik kanpo mantentzen dute. Ederra litzateke, baita Nafarroan ere.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Aguirre, Bejart eta Beethoven

MIKELE LANDA

[HTTPS://LABUR.EUS/NZRKO](https://labur.eus/nzrko)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Entzuteko ahalmenaren galera ezingo zuela ekidin konturatu zenean amore ematekotan izan zen Beethoven, dohainik preziatuena baliatu ezingo zuela pentsatze hutsak buruaz beste egitera bultzatu zuen ia. [...] 1824. urtean Bederatzigarren Sinfonia estreinatu zuenerako jada guztiz gortuta zegoen.

Musika norbereganatzeko zentzumenen truke horretaz mintzo da Arantxa Aguirre, Goya sarietara nominaturiko

*Dancing Beethoven* dokumentalean. [...]

Elkarrizketetatik erretratuak eskuratzen ditu, baita 2007an zendu zen Maurice Bejart koreografoarena ere. Gainontzekoen hitzen eta gorputzen bitartez bada ere ezagutzera iritsi gaitezkeena.

Bejartek Beethovenen musika ikusteko gaitasuna bere esparrura eraman eta partiturak guztiontzako ikusgarri bilakatu zituen sortutako mugimenduen konposizioari, koreografiari esker. Arantxa Aguirrek Bejarten ahalmena bereganatu eta berezko duen ikus-entzunezkoen lengoaiara eramatea izan du helburu,

bere hitzetan azaldu duenez: "Bejarten antzera, nahiko nuke nire lana ere edertasunez beteta egotea eta mundu osora heltzea. Euskal Herrian ere izan zen Laussaneko Balleta 2010ean, Viktoria Eugeniaren Berak ez zuen baletomanoentzako soilik lan egin; dantza demokratizatu zuen, eta ikuslego zabala erakartzea lortu zuen. Gauza bera lortu nahi dut dokumental honekin".

Espainiako Estatuko aretoetan lau astez egon zen ikusgai, eta, Alemania, Austria, Suitza eta Japoniako arrakasten ostean, otsailean Frantziako Estatuan estreinatu da.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Sailletako arduradunak**

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza.

**Administrazioa**

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goizatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**



## BERBAGAI

# "Txalaparta soinua eman dio Ttakun taldeak Arrasateri"

KIKE DAPENA ARRASATEKO TTAKUN TXALAPARTA ELKARTEKO KIDEA

**Eneko Azkarate** ARRASATE

Arrasateko txalaparta taldeak, Ttakunek, herritarrekin eta *egurra emuten!* ospatu nahi ditu 25 urteak. Hamabost lagun daude taldean.

**1993an sortu zen Arrasateko txalaparta taldea, Ttakun. Zeri erantzun nahi zion?**

1988ra egin beharko genuke atzera. Izan ere, urte hartan, Kepa Altube *Kopi*-k eta Igone Kazalisek Bilboko gaztetxeo txalaparta eskolan ikasitakoa erakutsi zuten Arrasaten.

Gerora, 1993an, taldea sortu zuten, herrian txalapartarekiko zegoen interesari erantzuteko.

**25 urte hauetan, hamaika ekimen, ikastaro eta beste antolatuko zenituzten eta ikasleak ere asko izango ziren. Ze nabarmenduko zenuke?**

Urte hauetan guztietan antolatu ditugun ikastaroak. Sasoi baten, iraupen dezentekoa zuten, eta konpromiso handia eskatzen zuten, bai irakasle zein ikasleen aldetik, hiru



Kike Dapena, Arrasaten, makilak eskuan dituela. ENEKO AZKARATE

hilabetez ia asteburu guztietan joatea eskatzen zuten eta. Gero, izan dira ekitaldi bereziak: Leonera joan ginenekoa... Baina aberasgarriena ikastaroak izan dira. Sasoi baten jende

asko mugitzen zelako, 30 bat lagun urtean, eta txalaparta zabaltzeko baliagarria izan delako. Gainera, Mondragoetik ez ezik, inguruko herrietatik ere etortzen ziren ikastera, eta

beste herri batzuetan antolatzen genituen. Aisialdia pasatzeko beste aitzakia bat zen.

**Zer eman dio Ttakunek Arrasateri eta zer Arrasatek Ttakuni?**

25 urteko txalaparta soinua, hori ukaezina da. Ttakun eskualde osorako erreferente bat izan da, txalaparta talde bat. Herriak ere eman digu aisialdia beste era batera disfrutatzeke aukera.

**25 urtez Arrasaten egurra emuten! izenburua jarri diozue 25. urteurreneko ospakizunari. Gaur hasiko zarete ospatzen...**

Bai. *Txotxparta* ospatuko dugu gaur, egubakoitza. Poteo animatua Arrasateko kaleetan eta gauean afaria izango dugu Zabolain sagardotegian, alboka, pandero, bertso eta txalapartaz girotuta.

**Zer beste antolatzea daukazue buruan?**

Asmoa da uztailaren 7ra arte, hilero, gutxienez, zerbait antolatzea: mahai-inguruak, emanaldiak, Lorentxo Altuberen instrumentuekin erakusketa... Uztailaren 7an emango diogu amaiera, Txalaparta Egunarekin. Kalean izango dira txalaparta zaratak, kanpoko gonbidatuekin. Dena den, udazkenerako ere antolatu nahi ditugu ekitaldiak, auzoetan eta.

## HAU BE BADOGU!

**Zientzia arloko emakumeen eguna**



Pasa den domekan izan zen zientzia arloko emakumeen nazioarteko eguna:

@zientzia\_k: "Emakume gehiago graduatzen dira eta emakume gehiago doktoratzen dira, eta hala ere, lidergo-postuen %20a baino ez dute. Hau ez da pertzepzio bat, ebidentzia bat da.

#EmakumeakZientzian egin duten bidea ikusaraz dezagun".

**Martxoaren 8an, '#EmakumeokPlanto'**



Traola hori erabiltzen hasi dira hainbat eta hainbat erabiltzaile Martxoaren 8ari begira. Debagoienean ere deialdia egin dute:

@M8Debabailara: "Lan esparruaz harago doa borroka hau. Indarkeria ororik gabeko bizitza nahi dugu, gure bizitzetaz, sexualitateaz eta bizitzaz erabaki ahal izatea #EmakumeokPlanto egingo dugu, zaintzan, ikastetxeetan, kontsumoan".

**'#Tortura' traola, erabilienetakoa**

Asteon, Portu-Sarasola auziagatik, tortura dela eta, Espainia zigortu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, eta gaia bolo-bolo ibili da sare sozialetan:

@BilbaoLanda: "Eztoz ezebe esan egun guztixen baya, ze barneratute ta ze normalizeta dekogun herri honetan indarkerixe. #Tortura".

@Barberenea: "Portu eta Sarasolak jasandako #tortura Arrasaten bertan hasi zen".

## ITURRI ONETIK

## Pol Polen gaineko liburua, ia gertu

2017an egin zituzten Bergarako Pol Pol Mendizale Taldearen 75. urteurreneko ospakizunak. Orduan iragarri zuten elkartearen gaineko liburua ere argitaratuko zutela, eta martxoaren 17an aurkeztuko dute. Mendi Astearen lehen ekitaldia izango da. 75 urteotako argazki, bitxikeria, historia eta protagonisten kontakizunekin batera, iazko urteurrenaren eman zuena ere jasoko du Miguel Angel Elkoroberezibarrek zuzendu eta idatzitako liburuak: *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat. 1942-2017*.

## ALBISTE IZAN ZEN

2005-02-14

## Debagoieneko tranbia izan behar zen hura

Debagoieneko tranbiaren proiektua bero-bero egon zen 2003-2007 agintaldian. 2005eko otsailaren 18ko *Goienkaria*-n jaso zen bezala, Alvaro Amann Garraio sailburuak, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusia eta alkate jeltzaleak bertan zeudela, tranbiaren gaineko erakusketa zabaldu zuten Monterronen, eta iragarri zuten Aretxabaleta eta Bergara arteko trenbidearen lanak "alegazioak aurkeztu eta aztertu ostean" hasiko zirela.



# Armak erabiltzeko baimena eskatu du udaltzainburuak

Modu ez formalean aspalditik jarri du gaia mahai gainean Udaltzaingoaren zuzendaritzak, baina lehen eskari ofiziala 2018ko urtarrilean egin dute. Legeak dio armak erabili ditzaketela, baina, horretarako, alkatearen oniritzia behar dute

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko udaltzainen zuzendaritzak beharrezko ikusten du herriko agenteek armak erabili ahal izatea, eta 2018ko urtarrilean eskaera ofiziala egin du udaltzainburuak. Bertan, erabakia "ahalik eta azkarren" hartzeko eskatzen die politikariei, "gure segurtasunerako eta herritarren segurtasunerako".

Eskaera horri erantzunez, Maria Ubarretxenak alkate ebazpen bat egin zuen otsailaren 2an, eta, bertan aipatzen denez, "badirudi udaltzain guztiak ez daudela eskaerarekin ados". Hori ikusirik, azken bost urteetako Arrasateko kriminaltasunaren eboluzioari buruzko txostena egitea eskatu du, alderdi politikoei eta sindikatuak gaiaren inguruan erabakia hartu dezaten.

"Hartu beharrezko erabakiak datuetan eta egite konkretuen aztertze xehatua oinarrituta egon behar duela uste dugu. Batez ere, ikusita gaiak izan ditzakeen eraginak bai Udaltzaingoaren lantaldean, eta bai herrian bertan", adierazi du Udaltzaingoak sei hilabeteko epea izango du txosten hori egiteko, eta, behin epe hori amaituta, Udaleko Pertsonal Batzordean



Herriko udaltzainen autoetako bat, Arrasateko Udalaren irudiarekin. XABI GOROSTIDI

hartuko du armen erabileraren inguruko erabakia.

## Orain, politikarien txanda

Aurrez esan bezala, alkatearen oniritzia beharrezkoa da, baina, kasu honetan, Maria Ubarretxenak alkate-ebazpen bat egin du, eta horri buruzko erabakia Pertsonal Batzordea delegatu. Udaltzaingoak aurrez esana du Udaleko alderdi guztien arteko adostasun gabe ez duela erabakirik hartuko. Alkate ebazpenaren hirugarren puntuan, alkateak erreferentzia egiten dio kontsen-

tsu horri: "Bideratze honekin lortu nahi da Pertsonal Batzordean gaia aztertzea, eta sindikatuen eta gainontzeko alderdi politikoen adostasuna lortzea, gaiaren garrantzia ikusita ahalik eta kontsentsu zabalena izatea ezinbestekotzat jotzen baita".

Kontsentsu osoa lortzea ez da erraza izango, batez ere, ikusita Arrasateko EH Bilduk publikoki adierazi duela, bere Twitter kontuan, armen erabileraren aurka dagoela. Hala ere, alderdiek sei hilabeteko epearen ostean hartu beharko dute gaiari

buruzko jarrera ofiziala, eta, tarte horretan, adostasuna bilatzeko aukerak egon daitezke.

## Erne sindikatuaren oharra

Duela gutxi, Erne sindikatuak oharra helarazi du komunikabidetara, Arrasateko Udaltzaingoari, espresuki, armen erabilera baimentzea eskatuz. Euren ustez, "adostasun politikorik eza" da Arrasateko Udaltzaingoak erabili duen "aitzakia" udaltzainei arauzko armak ukatzeko. Eta oharrak gaineratzen du "interes politikokoak ezin direla herritarren eta polizien ongizatearen eta segurtasunaren gainetik egon". Euren ustez, ertzainek eta udaltzainek bete-behar bera daukate: herritarren segurtasuna bermatzea. "Gehienetan, Ertzaintza baino lehena go heltzen dira udaltzainak gertakarien lekura. Baina gaizkileei aurre egiteko duten gaitasuna ez da berdina armarekin edo armarik gabe. Askotan, zain egon behar dute, eta, horrela, gaizkileak atzemate zailagoa da", azaldu dio GOIENARI Erneko ordezkari batek.

## Giza baliabideak vs armak

Baina Arrasateko udaltzainen ordezkariak sindikala ez dago Erneri, Udaleko Enpresa Batzordeari baizik. Bertan, hamaika kide daude: LAB sindikatuko sei eta ELAko bost. Arrasateko Udaleko sail ezberdinetan egiten dute lan, eta horietatik hiru udaltzainak dira.

Udaltzainen zuzendaritzak bezala, Enpresa Batzordeak bat egiten du agenteek segurtasun falta dutela adierazteko orduan. Baina, euren ustez, konponbidea ez da armen erabilera, giza baliabide gehiago jartzea baizik. Batez ere, gaueko txandan. Ha-

laxe adierazi zuten Etxaluzen zauritutako udaltzainari elkar-tasuna adierazteko kaleratutako oharrean.

"Gauze zerbait gertatzen denean, honek dakarren arrisku maila eta ziurgabetasuna izugarria da. Udaltzaingoari eskatzen diogu behin betikoz egin dezala hausnarketa serio eta partekatua, herrirako nahi duen udaltzain ereduari buruz, eta jar ditzala beharrezkoak diren baliabide humanoak kalitatezko zerbitzua eskaintzeko". Garabi zerbitzua udaltzainen gain gertzerakoan, lantaldeak berrantolatatu egin ziren, eta horrek gaueko txandan udaltzain bat gutxiago egotea eragin zuen.

## Armen erabilera EAEn

Arabian eta Bizkaian nahiko hedatuta dago armen erabilera udaltzainen artean, baina Gipuzkoan, aldiz, ez. Donostia, Irun, Errenteria eta Andoain dira udaltzainek armak erabiltzea onartzen duten udalerrriak. Berriki, Erne sindikatuak Eibarko Udaltzaingoari eskatu zion armen erabilera baimentzeko, baina Miguel de los Toyos alkateak esan zuen ez zuela halakorik baimenduko. Gaia Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegira eraman zuen polizia-aren eta larrialdietako euskal sindikatuak, eta epaitegiek zehaztu dute armak baimentzea alkatearen eskumena dela, baina erabaki hori datuekin oinarritu behar duela.

## BIZKAIAN ETA ARABAN NAHIKO HEDATUA DAGO ARMEN ERABILERA; GIPUZKOAN, ALDIZ, EZ

## Baserritarren azokan, eztularen aurkako baltsamo ikastaroa

Neguan ohikoa den gaitz horrek konponbide osasuntsua izan dezakeela azalduko dute Ekoudalatzeko kideek

**X.G.** ARRASATE

Hileko hirugarren zapatuetako ohiturarekin jarraituz, Seber Altube sasoiko produktuen erakusleho bihurtuko da bihar, goiz partean. Otsaileko azokan hamaika postu izango dira, eta

horietako bederatzi debagoien-darrenak izango dira.

"Ortuko barazkiak, okela ekologikoa, gazta, eztia, Arabako lautadako produktuak, euskal pastelak, landare ekologikoak eta nekazaritza tresnak izango

dira postuetan", azaldu du Nerea Lazpiurrek, Udaleko Garapen Iraunkorreko teknikariak.

## Eztularen aurkako baltsamoa

Etxean bertan eztularen aurkako konponbidea izan dezakegula erakutsiko dute Ekoudalatzeko kideek zapatuko azokan. Tailerra 11:00etan hasiko da, eta ordubeteko iraupena izango du, gutxi gorabehera. Aldez aurretik izena ematea gomendatu dute, baina, ez eman arren, parte hartzeko aukera izango da.

## Brasildar ukituko ipuin kontaketa Kulturaten

Hitzordua otsailaren 22an izango da, 18:00etan, Jokin Zaitegi gelan. 5 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago, eta Mundutik Arrasatera zikloaren barruan kokatzen da. *Tximinoa eta andre zaharra* izenez itzul daitekeen *O macaco & a velha* ipuina irakurriko du, brasildarrez, Simone de Sousak; eta euskaraz, aldiz, Kepa Zubizarretak.

## Besaiden erretako autoa Oñatin lapurtutakoa zen

Otsailaren 4an auto bat erreta agertu zen Besaideko monumentuetako baten alboan. Ertzaintzak ikerketa abiatu zuen, baina zailtasunak izan dituzte, autoak ez zuelako ez matrikularik, ez basitidore zenbakirik.

Atestatua guztiz amaitu gabe dagoen arren, adierazi dute Seat Ibiza autoa Oñatin lapurtua izan zela, urriaren 26an.



Pertsona bat kirol apustuak egiteko makinaren aurrean. XABI GOROSTIDI

## Kirol apustuen negozioa, gero eta finkatuago

Otalora Lizentziaduna eta Mondragones kaleek bat egiten duten lekuan egoitza zabalduko du apustu-etxe batek. Era horretako bigarren lokala izango da herrian, baina, jada, herriko bost tabernetatik baten apustuak egiteko makinak daude

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Kirolarekin lotutako apustuen negozioa handitzen ari da. Datu ofizialei erreparatu, Espainiako Estatuan %22 hazi zen sektorea 2016an, eta 2017ko lehen bederatzi hilabeteetan hazkundera hori 2016koa baino %7,38 handiagoa izan zen, guztira, 4.117.750.000 euro erakarritz.

Arrasaten ere igarri daiteke hori. Amaia antzoki parean, apustu-etxe ezagun batek egoitza zabalduko du laster, Dotakon denda eta Lagun Aro egon ziren lokalean. Bi urtean, horrelako lokalik ez egotetik, bi edukiterra pasa da Arrasate, eta herriko tabernetan kirol apustu-makinaren presentzia nabaria da.

**Bostetik bat**

Herrian kirol apustuek duten harrera maila neurtzea ez da erraza, baina *temperatura* hartzeko modu bat izan daiteke tabernetako apustu-makinaren kopurua eta funtzionamendua.

Arrasateko bost tabernetatik batek kirol apustuen-makina bat dauka. Kontsultatuko 42

tabernetatik zortzik dituzte makinak gaur egun; hau da, %19k. Gehienek jarri zituzten bezeroei zerbitzu bat gehiago eskaintzearen, nahiz eta ematen duten errentagarritasuna txikia den guztientzat. "Makinetan sartzen den diruaren %1 jasotzen dugu tabernariak. Oso mozkin txikia da, baina tabernara jendea erakartzeko balio du", azaldu du tabernari batek.

Tabernari gehienak bat datoz gauza batean: profil eta jokabide desberdinak dituzten jokalaririk daude. "Gazte dezente erakartzen dute makinek, baina hauen %80k ez dute tabernan kontsumitzeko joerarik. Aldiz, jokalaria helduen artean askoz hedatuagoa dago apustua egin eta trago bat eskatzeko ohitura. Orokorrean, gazteek kopuru txikiak jokatzen dituzte, eta helduen artean taldekako apustuak egiten dituzte askok".

Zigorrolako tabernari batek aitortu du adingabeekin arazoak izaten dituela. "Tabernara apustuak egiten sartzen diren gazte guztiei nortasun agiri txartela eskatzen diet. Ez naiz polizia bat, baina hori egin beharra daukat, bestela isunak 6.000 eurokoak izan daitezke eta".

Makinarik ez duten tabernarien %11k aitortu dute jartzea pentsatu izan dutela. Askok azaldu dutenez, interesa izan arren, apustu-etxeek ezetz esan diete, alhoan makinak dituzten tabernak izateagatik.

### Apustu-makinak Arrasateko tabernetan

Era horretako makinek Arrasateko tabernetan duten presentzia neurtzeko asmoz, 42 tabernako lagina kontsultatu du GOIENAK.

#### Apustu-makina duten tabernak

- 8
- (%19)

#### Apustu-makina izan bai, baina kendu egin dutenak

- 3
- (%7)

#### Makina txanponjalea duten tabernak

- 31
- (%73)

#### Ez apustu-makinarik, ez makina txanponjalerik ez duten tabernak

- 7
- (%16)

#### Apustu-makinarik eduki ez, baina ipintzea pentsatu izan dutenak

- 4
- (%11)

## EKIN DEBAGOIENEAN

### EKINTZAILEENTZAT PRESTAKUNTZA TAILERRAK

2018 Otsaila-Martxo

Informazio gehiago:

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Etorbidea, 17 - Arrasate • Tel.: 943 79 30 90

E-posta: rgarcia@debagoiena.eus

Web gunea: www.debagoiena.eus

  
DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA  
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

 Gipuzkoako Foru Aldundia  
Goiena Sustapen eta Lanetan  
Gipuzkoako Foruaren Baitan

 Gipuzkoa  
ekintzailea

- Doaneko tailerrak
- Tailer baten edo gehiagotan parte har dezakegu.
- Plaza mugatuak (Izen-ematea beharrezkoa)
- Tailerrak egiteko, kopuru minimoa beharko da.

#### NEGOZIO PLANA EGITEA: IDEIATIK EKINTZARA

Otsailak 21, 22 eta 23

09:30-13:30

#### EKONOMIA ETA FINANTZA MODULUA

Otsailak 28

09:30-13:00 / 15:00-17:00

#### NEGOZIOA ABIAN JARTZEA

Martxoak 7

09:30-13:30

#### FISKALITATEA

Martxoak 14

09:30-13:00 /  
15:00-17:00

#### IKASI HOBETO KOMUNIKATZEN

Martxoak 21

09:30-13:30



Maria Ubarretxena eta Juan Karlos Garitano, GazteLan programaren txostena esku artean dutela. XABI GOROSTIDI

## 573.000 euro GazteLan programa finantzatzeko

16-30 urte arteko 40 langabe hezteko eta horien lan aukerak sendotzeko helburua du programak. Diru laguntza Europa Gizarte Funtsak ematen du, baina, esperotakoa baino handiagoa izan denez, gazte gehiagok parte hartu ahalko dute

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Programa 2018an amaitu behar da, baina herriko langabeen artean aukeraketa egin aurretik proiektuaren lizitazioa egin behar da. "Europa mailako lizitazioak luze joaten dira. Espero dugu bi hilabeteren bueltan hori eginda egotea, eta, urrats hori lortuta, ganorazko aurkezpen bat egingo dugu, herriko langabeek bertan nola parte hartu jakin dezaten", azaldu du Juan Karlos Garitanok, Enplegu zinegotziak. Atzerapenik ez bada, apiril aldean espero dute aurkezpena egitea eta maiatz eta ekain artean, aldiz, programa martxan jartzea.

### Hiru espezialitate

Hazteko eta enplegua sortzeko aukera gehien duten sektoreetan zentratu da GazteLan plana. Aukeraketa prozesu hori Alecop enpresarekin batera egin zuen Udalak eta hiru trebakuntza lerro hauek aukeratu zituzten: sistema elektromekanikoen

muntaia eta konponketa teknikaria, nekazaritzan teknikaria eta elikagai industrian teknikaria. Plana lau modulutan banatuko da: trebakuntza, lan praktikak, tutoretza eta laguntza ekonomikoa. Guztira, zortzi hilabeteko iraupena izatea aurreikusten zen, baina maiatzean edo ekainean hastea espero denez, sei edo zazpi hilabeteko iraupena izango du. Formazioa %100 aurrez aurrekoa izango da, eta praktikak trebakuntza teorikoa amaitu ondoren edota honekin batera egingo dira; betiere, horren %50 egin ondoren, Arrasateko edota inguruko enpresetan, eta tutore baten gidaritzapean. Praktikaldiak bi hilabeteko iraupena izango du.

**LIZITAZIOA EGIN OSTEAN, APIRILEAN PROGRAMAREN AURKEZPENA EGITEA AURREIKUSTEN DUTE**

GazteLan planak jasoko duen diru laguntza horri esker, batez beste, 600 euro inbertitu ahal izango dira gazte bakoitzaren formazio teorikoan, 750 euro praktikoan eta 2.400 euro inguruko diru laguntza jaso ahal izango dute ikasleek.

### 188 langabe gazte

Gaur egun 16 eta 30 urte bitarteko 188 langabe daude herrian, eta, hasiera batean, programa hau horietako 40rentzat zegoen zuzenduta. Baina alkateak esan duenez, kopuru hori handitzearen alde egingo dute, jasotako diru laguntza "espero baino handiagoa" izan delako.

### EAetik diru gehien Arrasatek

Arrasatekoa izan da Euskadin diru laguntza handiena jaso duen Udala; Estatu mailan 124 erakunderen artean bosgarrena. Jasotako diru laguntzaren kopurua ikusirik, Udalak nabarmendu du "GazteLan programa oso ondo baloratua" izan dela.

## Ikasle Abertzaleak taldekoek mobilizazioak iragarri dituzte

Arizmendi Ikastolan aurten berrituko da greba araudia, eta bertan, lau proposamen sartzea lortu nahi dute

### X.G. ARRASATE

2017-2018 ikasturtean Arizmendi Ikastolak greba eskubidea berritzea jarri zuen helburu gisa. Zuzendaritzak azaldu duenez, barne prozesu parte hartzaile bat sortu dute, non gurasoek, ikasleek eta profesionalak osatutako talde batek izango duen araudi berria ontzat emateko ardura.

Araudian aldaketak proposatzeko, hamahiru gelatako ikasle ordezkariekin eta bi irakaslerekin osatutako lantaldea osatu dute. Ikasle Abertzaleak

taldeak ez du bertan ordezkari-tza zuzenik, eragile gisa. Hala ere, ondorengo lau eskariak egin dituzte, araudi horretan txertatzeko: %25eko desbinkulazio langa kentzea, greba egunetan azterketak egonez gero hauek atzeratzea, DBHko 4. mailakoek greba eskubidea izatea eta lanuzte eskubidea onartzea.

Euren eskariak kontuan izan daitezkeen eskatzeko, prentsaurrekoa egingo dute gaur, 18:30ean, eta hilaren 22an mobilizazio nazionala egingo dute, 12:30ean, Laubide plazatik hasita.



IMANOL SORIANO

## 'Harristi', aita santu egun batez

Zapatuan kolorez eta bitxitasunez beteriko desfile batek zeharkatu zituen Arrasateko kaleak. *Zubipetrol* gasolindegia, 50eko hamarkadan girotutako kuadrillak eta Musakolako suhiltzaileak izan ziren bertan. Baina, aurten ere, *Harristi*-k distira berezia izan du. Bizkartzain eta guzti, aita santu mozorroa jantzi zuen, eta bete-betean sartu zen pertsonaiaren azalean.

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa  
Psikoterapia:  
umeak, gazteak eta helduak  
Arreta psikologikoa  
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak  
Estimulazio goiztiarra  
Logopedia  
Ikasketak teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

# "Teoriak asko lagundu dit guraso bezala"

**MIREIA CENTENO** PSIKOPEDAGOGOA ETA PSIKOLOGOA

Udalak gurasoentzako antolatu dituen tailerretan gidari lanak egiten dituen aditua da. Psikopedagogiako teoriak ezagutzeaz gain, praktikan jarri ditu, ama ere bada eta

**Xabi Gorositidi** ARRASATE

Askotarikoak izaten dira haurrak hezteko orduan gurasoek izaten dituzten zalantzak; batez ere, lehendabiziko umearekin. Bada, Udalak horientzako tailerrak antolatu ditu, eta, hain zuzen, Mireia Centeno adituak gidatzen ditu, 0-5 eta 6-12 adin tartean.

**Jada pare bat saio egin dituzue; zer moduz joan dira?**

Oso ondo. Jende asko animatu da aurren, egia esan, eta oso parte hartze handia izan dute gurasoek. Beraz, oso gustura nago erantzunarekin.

**Gurasoak erantzun gosez eta jakin-minez joaten dira?**



Mireia Centeno psikologoa. M. CENTENO

Hala da. Orokorrean, denek dute ikasteko gogoia; batez ere, 0 eta 5 urte arteko haurrak dituztenek. **0 eta 5 urte arteko tailerretan, lehen umea izan dutenak dira gehienak?** Normalean, bai, baina badago haurdun dauden parte hartzaileak, seme-alabak bigarren ez edukitzeko bidean daudenak. Adibidez, 6-12 adin tarteko tailerretan, gehiengoak bi seme-alaba ditu.

**Zure kasuan, psikologoa eta psikopedagogoa zara, baina guraso ere bai?**

Bai. Azken batean, profesionala naiz eta gauza askotan laguntzeko aukera daukat, baina, guraso naizen heinean, erraza-

goa da teoria hori adibide konkretuekin azaltzea. Horrez gain, adibide pertsonalekin besteekin gertutasun bat lortzen dut; batez ere, parte hartzaileekin enpatizatzen.

**Gertatu izan zaizu, guraso gisa, zuk ikasitako teoriak balio ez izatea?**

Niri, adibidez, teoria jakiteak asko lagundu dit guraso bezala. Erabat ezberdina izan da nire amatasuna, behin teoriak jakinda. Hala ere, teoria batzuk martxan jartzea asko kostatzen da, eta zailtasunak ugariak izaten dira. Haurrak hezterakoan, helburuak lortzea ez da prozesu azkarra izaten, kosta egiten da. Hala ere, pertsonon izaerak ere asko eragiten du: pazientzia izatea, gauzak aurrera ateratzeko instintua...

**Zeintzuk dira galderak, orokorrean, zuk gidatzen dituzun tailerretan?**

0-5 urteko adin tartean, asko azaltzen dira haurren haserrealdiekin lotutako zalantzak; haurrek 2 urtetik aurrera autonomia eskatzen dute, eta horrek haserreak eragiten ditu. Eta 6 eta 12 urte arteko tailerretan, berriz, egunerokotasuneko arazoak dira kezka iturri.

## Bloga duen familia arrasatearra, saria lortzeko boto bila

Josune Elkoro arrasatearrak *Bekerreke* izeneko bloga du. Bost kideko familia du, 8, 6 eta 2 urteko haurrekin, eta Euskal Herriko txokoetan zehar egiten dituzten aisialdi ekintzak erakusten ditu bertan. Elkoro Turismoan lizentziaduna da, eta, nolabait, haurrekin Euskal Herrian zehar egin daitekeen turismoa erakusten du blogean.

Bertan egiten duen lana dela eta, berriki, Madresfera webgunek antolatzen duen sariketarako izendatu dute *Bekerreke* bloga, *aisialdia familian* kategorian. "Oso pozik gaude! Gure bloga Madresfera sariketarako izendatua izan da, familia planen kategorian. Ez da Oscar bat, baina izendapenarekin bakarrik irabazle sentitzen gara", azaldu du Josune Elkoro.

Boto gehien pilatzen dituen blogak irabaziko du saria. hain zuzen ere, botoa emateko, <https://www.concursismo.com/rankings/madresfera/vota> webgunera sartu behar da.

Diagnostiko pertsonalizatua. Zurrunga egiten dutenentzako eta loaldiko apnea dutenentzako soluzio eroso eta eraginkorra.



Doako  
kontsulta eta  
azterketa

CLINICA DENTAL  
BERGARA

Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – [www.clinicadentalbergara.es](http://www.clinicadentalbergara.es)



Kortabitarte, Bolinaga, Gallastegi eta Jose Etxebarria *Zurdo de Mondragón*, Eibarko Astelena pilotalekuan. INDALEZIO OJANGUREN

# Bolinagak Arrasateri eta Triciori emandakoaz

2018ko otsailaren 1ean 50 urte bete dira Eugenio Bolinaga pilotari arrasatearra hil zela; Azkarate aita-emeak, Arriaran anaiak eta Jose Etxebarria 'Zurdo de Mondragón' pilotariekin batera, belaunaldi emaritsua osatu zuen Bolinagak

## Eneko Azurmendi ARRASATE

1923an jaio zen Eugenio Bolinaga pilotari arrasatearra eta 1968ko otsailaren 1ean zendu zen, buharaldeko angina baten ondorioz, 45 urte zituela. Arrasatek izan duen pilotari belaunaldi emankorrenetako baten parte izan zen Bolinaga.

15 urterekin egin zuen debuta txapelketa ofizial batean, Felix Arriaran -Arriaran I.a- arrasatearrek batera. Bi urte geroago, 17 urterekin, egin zuen debuta profesional mailan, eta orduko pilotari onenekin aritu zen lehian -Atano III.a, Akarregi, Gallastegi, Kortabitarte, eta abar-.

Javier Solozabal pilotari ohia- ren arabera, Errioxako pilota zaletasunari bultzada handia eman zion Bolinagak. Izan ere, Tricio herriko lagun bat egin zuen soldadutzan, Severo Bezares izenekoa. Oso harreman ona egin zuten biek, eta Bezaresen gonbita egin zion Bolinagari herriko jaietan pilota partidu

bat jokatu zezan. Arrasatearrak onartu egin zuen eskaintza, eta ez hori bakarrik. Tricio herriarekin harreman berezia egin zuen Bolinagak, eta, ordutik aurrera, urtero joaten zen partidu bat jokatzera. Gainera, herriko emakume batekin maitemindu zen, baita ezkondu ere. Bolinagari esker, garai hartako pilotari onenak pasatu ziren Triciotik, eta, gerora, arrasatearrak sustatutako pilota zaletasuna pilotari profesionaletan islatu zen. Izan ere, 1975ean, Tricio sei pilotari aritu ziren profesional mailan. Horrez gain, 2014an erretiroa hartu zuen Augusto Ibañez Titin III.a ere herri hartakoa da.


Bere pilota mailari dagokionez, aurrelari "bikaintzat" jotzen zuten orduko prentsak eta zenbait komunikabidek. Baina osasun arazo dezente izan zituen eta horrek pilotari profesional moduan haztea oztopatu zion arrasatearri. Hala ere, 40 urte zituela utzi zuen pilota.

## Belaunaldi oparoa

Eugenio Bolinaga pilotari arrasatearrez osatutako belaunaldi oparo baten parte izan zen.

Batetik, Arriaran anaiak, Felix eta Joshe, Arriaran I.a eta II.a. Aipatzekoa da 1961ean binakako txapelketa irabazi zutela bikote moduan. Horrez gain, Arriaran II.ak buruz buruko bi txapel irabazi zituen, 1955ean eta 1956an. Bestalde, Juan Bautista eta Tadeo Azkarate aita-emeak ere ezagunak izan ziren: Mondragones I.a eta II.a. Lehenak buruz burukoa irabazi zuen 1917an eta 1926an. Atano III. arekin lehia estua izaten zuen. Azkenik, Jose Etxebarria *Zurdo de Mondragón* ere pilotari eza- guna izan zen.

## ERRIOXAKO PILOTA ZALETASUNARI BULTZADA HANDIA EMAN ZION EUGENIO BOLINAGAK



IBAI BOLINAGA

## "Guztiekin hitz onak dituzte harentzat"

IBAI BOLINAGA  
EUGENIOREN BILOBA

Eugenio Bolinagaren biloba da Ibai Bolinaga.

### Noiz eta nolatan hasi zinen pilotan?

5 urterekin. Hainbat kirol egiten nituen txikitik, baina, gerora, pilotarekin jarraitzea erabaki nuen. **Oraindik ere jarraitzen duzu pilotan jokatzeko.** Bai. Duela hiru urtera arte, partidu asko jokatzeko nituen eta txapelketa inportanteetan aritzen nintzen. Orain, lasaiago nabil, beste maila batean.

### Arrasateko pilota eskolan irakasle zara. Osasuntsu dago pilota eskola?

Hala da. Lau irakasle gara eta 50 bat ikasle ditugu. Pozik gaude kopuruarekin, eta oso giro polita dugu. Pena da ez dugula neskarik taldean, baina ea animatzen diren, guk atek zabalki ditugu guztiztatzeko.

### Zer kontatu dizute zure aitoren gainean?

Nire aitak gauza asko kontatu dizkit eta nire aitoren lagun asko ere gerturatu zaizkit haren istorioak kontatzen. Pilotari bikaina zen, baina ni haren alderdi humanoarekin gelditzen naiz. Guztiekin hitz onak dituzte harentzat.

### Tricioekin estuki lotuta zegoen zure aitona.

Bai. Han ezagutu zuen amona. Gu oporretan joan izan gara Triciora eta han oso ondo hitz egiten dute guztiekin nire aitona.

## Kanpanzar ARTK Escor Gaztedi hartuko du bihar Mojategin

Duela bi aste, jipoi galanta jaso zuten Igor Isasiren mutilek Iruñean, sailkapeneko lider La Unica RT taldearen aurka (66-7). Hala ere, gauza jakina da bi taldeen arteko aldea handia dela eta biek dituzten helburuak guztiz ezberdinak direla.

Bi asteko atsedenaren ondoren, eta asteburu honetan berriro itzuliko dira liga txapelketara. "Atseden honek min hartuta zeudenak erreku-peratzeko balio izan digu eta espero dut taldeak indarra hartzeko ere balio izango zigula", azaldu du Igor Isasik, taldeko entrenatzaileak.

Escor Gaztedi RT izango dute aurkari bihar, zapatua, Mojategin, 16:30ean. "Taldea gogorra da. Aurten ez dabilta oso fin, baina azken hiru urteetan igoera fasea jokatu dute, eta kontuan hartzeko taldea izaten da beti. Irabaztea zaila izango da, baina ea taldeak itxura ona ematen duen, behintzat", azpimarratu du entrenatzaileak.

## Derbian galdutakoa berreskuratu gura du bihar Mondratek

Golpe latza jaso zuten arrasatearrek pasa den asteburuan, Eskoriatzaren aurkako derbian. Izan ere, 0-3 aurreratu ostean, eskoriatzarrek markagailua irauli eta garaipena eskuratzea lortu zuten (4-3).

Jonathan Raso Mondrateko jokalarirekin arabera, dagoeneko hori iragana da eta "asteburu honetako partiduan zentratuta dago taldea, irabazteko gogoz eta irrikaz". Mailari eusteko helburua aintzat hartuta, partidu garrantzitsua du bihar Mondratek etxean. Gernikako Lagunak GFS taldea hartuko izango dute aurkari arrasatearrek, Musakolan, 17:30ean. "Han partidu zaila izan genuen eta erraz irabazi ziguten. Hala ere, bihar irabazteko aukerak ditugula uste dut", azaldu du Rasok.

Lesioei dagokienez, ez da batere zorterik izaten ari aurten Mondrate. Hala ere, denboraldi txukuna egiten ari dira, eta mailari eusteko helburua geroz eta gertuago dute arrasatearrek.

# 'Il Trovatore', operazale bihurtzeko proposa

Astelehenean, hilak 19, Verdiren 'Il Trovatore' opera ezaguna ekarriko dute Arrasatera —Amaia Udal Antzokia, 20:00—: "Opera ezagutzen ez duenarendako oso ikuskizun proposa da, osagai guztiak batzen dituelako", dio Manu Gallardok

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Erromantizismoaren garaiko Giuseppe Verdi musikariaren lan ezagunenetako bat taularatu dute astelehenean Opera 2001 taldeko lagunek, *Il Trovatore*: "Operan antzeztu den lan famatuenetakoa da hau, obra ikonikoa kantuararen eta operaren maitaleendako. Baina, horrekin batera, opera ezagutzen ez dutenendako oso lan proposa da lehen pausoa emateko, operak dituen osagai guztiak batzen dituelako. Egia da obraren sinopsia nahiko zalapartatsua dela, baina denetik du: oso melodia ezagunak, maitasuna, gorrotoa, mendekua, erromantizismoa...", dio Gallardok: "Operazaleen lan gogokoena da".

**XV. mendeko istorioa**

Operaren trama XV. mendeko Espainian girotuta dago. Eta Leonorren eta haren trobalari Manricoren arteko maitasun istorioa kontatzen du. Bada,

lanak bi ordu eta erdi irauten du, eta emanaldia 20:00etan hasiko dute, puntuan.

**110 lagun taula gainean**

*Il Trovatore* operan 110 lagun inguruk hartuko dute esku: "Solisten, koruen eta orkestraren artean kopuru horretara iritsiko gara". Eta puntako jendea etorriko da: "Antzezlari-zerrenda oso ona izango da, Estatuan eta nazioartean arrakasta izaten dabilena. Giulio Boschetti —*Le nozze di Figaro*, *Don Giovanni*, *Nabucco*, *La Traviata*...— izango da Luna Kondea. Manrico tenorea, berriz, David Baños —*Un Ballo in Maschera*, *Madama Butterfly*, *Duque de Mantua*...— eta soprano lanetan Melanie Moussay-k jardungo du —*Tosca*, *Un ballo in maschera*, *La cenerentola*...—.

**"Antzoki proposa da Amaia"**

Halako opera batekin gozatzeko, aretoak berak zeresan handia

du, eta Amaia antzokiaren egokitasuna azpimarratu du Gallardok: "Hona abestera etorri diren artista askok azpimarratu dute Amaia antzokiaren sonoritatearen maila. Askotan, herrian daukagunari ez diogu garrantzirik ematen, baina Euskal Herriko antzoki onenetakoa dela azpimarratu digute askok;



*Il Trovatore* operaren une bat. OPERA 2001

zentzu horretan bai, behintzat. Egia da beste hutsune batzuk badituela, kamerinoen egoera, esaterako, baina sonoritatea, publikoaren kokapena eta horiek

duten ikuspena...". Bada, sarre-rak martxa onean saltzen dabil-tzala azpimarratu du Garridok, baina oraindik badago lekua opera horrekin gozatzeko.

## Suzuki metodoa azalduko dute Arrasate Musikalen

Arrasate Musikalek Suzuki Metodoaren gaineko ate irekien jardunaldia antolatu du otsailaren 21erako, asteazkena, 17:00etan, Musika Eskolako areto nagusian, Monterron jau-regian. Musika-instrumentu bat jotzen ikasteko metodoa da, eta, batez ere, gaztetxoei zuzenduta dago, baina nagusiendako ere proposa da: "3 urte eginda daukaten umeetatik hasita parte har daiteke metodo interesgarri honetan", adierazi dute Arrasate Musikaleko arduradunek. Hain zuzen ere, metodo horren irakasle Amaia Garrok eskola praktiko batzuk egingo ditu bertaratuko diren ikasleekin eta gurasoekin.

## Ttakun Txalaparta Taldea hasi da urteurrena ospatzen

Arrasateko Ttakun Txalaparta Taldeak 25 urte beteko ditu aurtun, eta gaur bertan hasiko dituzte ospakizunak, Zabolain sagardotegian egingo duten Txotxpartarekin: "50 lagun inguru batuko gara, eta albokaz, panderoz, bertsoz eta txalapartaz girotuko dugu gaua", dio taldeko kide Gorka Zubizarretak.

Aurrera begira, baina, hainbat ekimen dituzte buruan: "25 urte hauetan 300 lagun inguru ibili dira Ttakunek antolatutako txalaparta ikastaroetan, eta bada zerbait. Hain zuzen ere, uztailean jai bat egingo dugu, eta, tartean, berbaldi edo mahai-inguru formatuan ere egingo dugu ekimen bat".



**ANDER ASULA GARCIA**  
MIGUEL ALTUNA LANBIDE  
HEZIKETAKO ikasle bergararra



**GOIAZ! 2018**  
Lanbide Heziketaren Azoka  
Apirilaren 17an eta 18an  
Kulturaten, Arrasaten

facebook twitter goiazdebagoiena



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA



## DEBAGOIENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

### IKASKETAK:

Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa goi-mailako heziketa zikloa bukatuta. Dual sistema Elay enpresan.

### GAUR EGUN:

Automatizazio eta Robotika Industrialia goi-mailako zikloa ikasten eta Elay enpresan lanean egun erdiz.

#### Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Inguruko enpresa asko industrialak dirala ikusita, Lanbide Heziketa ikastea erabaki nuen, eta ondoren, nahi izanez gero, unibertsitatera joateko aukera beti dago zabalik. Oraingoz, ez dago nire asmoen artean, lana aurkitu dudalako. Egindako aukerarekin oso pozik nago.

#### Nelakoak dira eskolak Lanbide Heziketan?

Orain, ETHAZI metodologiarekin ari gara ikasten. Jakintza minimo batzuk azaltzen dirigute eta proiektu edo erroka bat zehazten da. Eta, taldeka, eskatutako helburuak lortu behar ditugu, gure kasa moldatu behar izaten dugu, emaitzak lortu arte. Metodo interesgarria da, ez da teoria entzuzera mugatzen.

#### Ze onera dute Dual sistemak?

Ikasteburuan ikasitakoa marboan jarri eta enpresan aplikatzeaz gain, enpresan ere ikasi egiten dela. Bertan ikusten duzu errealitatea, gero aurkituko dizuna.

#### Dual sistemari buruz ze balorazio egiten duzu?

Oso ona. Elay enpresan egon nintzen lau orduz arnatsaldeetan lanean, Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioko bigarren maila egiten nuen bitartean. Eta gaur egun, bertan lanean jarraitzen dut.

#### Beraz, orain ikasketak eta lana bateratzen dituzte?

Bai, hori da. Goizez bigarren zikloa ikastera etortzen naiz, eta arnatsaldean lanera. Gainera, enpresak erudotgia moldatu du nire beharretara, bietara ondo heltzeko.

#### Lanbide Heziketa neri gomendatuko zenioke?

Lanean hasi nahi duten pertsonentzat interesgarria da Lanbide Heziketa. Ziklo batek ate asko zabalitzen dizkizu, eta ondo prestatuta iriteen zara.



Ibabeko Bertaren bilobak taldeko Andere Arriolabengoa, Manex Agirre eta Xabi Igoa. IMANOL SORIANO

## Kuadrilla Artekoaren finalerako txartel bila

Bihar izango da lehen finalurrekoa, Araiako gaztetxean, eta 'Aramaixoko sobrak' taldekoek kantatuko dute bertan, 'Txandrio'-ren kontra (Arabako Errioxa). Hurrengo astean izango da 'Ibabeko Bertaren bilobak' taldekoen txanda, Amurrioko gaztetxean

### Julen Iriondo ARAMAIO

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren lehen fasea ederki joan da Aramaioko bi taldeentzat; espero baino hobeto ere bai batzuentzat, hala dio *Aramaixoko sobrak* taldeko Paula Amilburuk: "Oso ondo joan da orain artekoa; geuk ere ez genuen espero, agian, Aramaioko B taldea izanda. Oso gustura amaitu ditugu saio biak".

Horrez gain, saioetara jende berria erakartzen ari direla-eta ere, pozik Amilburu: "Aramaio-ko saioan erantzuna izugarria izan zen, ez genuen espero 40 gazte batzea, normalean bertsozaleak ez direnak, gainera". Orain, biharko finalurrekoan -19:00etan, Araiako Arabako Errioxako *Txandrio* taldearekin kantatu beharko dute.

Aramaio-ko beste taldea, *Ibabeko Bertaren bilobak*, hurrengo zapatuko finalurrekoan ariko da, Amurrioko gaztetxean, Gasteizko *Bapateroak* taldekoekin batera: "Taldea horretan dago egungo Euskal Herriko Esko-

larteko txapelduna, Aroa Arriubieta -Abra sariketa ere irabazi du...-, eta lehia polita izango da bi taldeen artean", dio Aramaioko taldeko Andere Arriolabengoa. Kuadrilla Artekoaren bigarren fase honetan, gainera, lan desberdinak egin beharko dituzte, lehenengokoe-kin alderatuta. Beste aldaketa bat da fase honetako saioak

areto formatukoak izango direla, mahaiaren bueltakoak barik.

Martxoaren 3an Sastiñan jokatuko da azken finalerdia: *Sumendi bete poto* eta *Errekaleor bizirik!* Litekeena da finalerako hiru txarteletatik bi Aramaioko taldeentzat izatea; ondo legoke: "Bai, bai, erakusteko sobran daudenak eurak direla", dio, umorez, Paula Amilburuk.

### Bertso barnetegia apirilean

Otsailaren 28ra arte eman daiteke izena apirilaren 3tik 5era Amurrioko aterpetxean izango den bertso barnetegirako. 10 eta 13 urte arteko neska-mutikoentzako da, oporraldian -Pazko astea- euskaraz jolastu eta bertsoekin gozatzeko, inguruko natura eta kultura hobeto ezagutzeko, ondo pasatzeko: "Jolasak, txangoak eta bertsolarien bisitak izango dituzte hiru eguneko egonaldi hauetan, eta, noski, euskaraz eta hizkuntza protagonista izanik lagun berriak egiteko aukera paregabea ere bai. Aurreko urteetako esperientzia kontuan hartuta, 100 haurrek baino gehiagok parte hartzea espero dugu", diote Arabako Bertsozale Elkarte-ko kideek -hiru txanda izango dira-. 45 euro kostatzen da izen-ematea, eta udaletxean egin daiteke, edo bertara telefonoz deituta.

## Zapatu eta martitzen, mozorroa jantzi eta ederki aramaioarrak

Umorez, kolorez eta bateko eta besteko pertsonaiak jantzi da egunotan Aramaio ere, eguraldia eguraldi

### J.I. ARAMAIO

Euriagatik desfilea bertan behera geratu zen arren, kuadrillek eta familiek ikuskizun aparta eskaini zuten zapatuan kiroldegian. Mozorroen lehiaketan zazpi taldek parte hartu zuten nagusien sailean, eta lauk umee- nean. Irabazi edo ez, parte-hartzaileek ederki pasatu zuten,

baita harmailak bete zituzten aramaioarrek ere.

*Aramaixoko zirku mundiala!* irudikatu zuten, berriz, San Martin eskolako ikasleek martitzen. Mozorroen lehiaketan zazpi taldek parte hartu zuten nagusien sailean, eta lauk umee- nean. Irabazi edo ez, parte-hartzaileek ederki pasatu zuten,



Taldea aurkezpena egiten. SAN MARTIN ESKOLA



Pailazoak dantzan. SAN MARTIN ESKOLA



Originaltasunaren saria. AITOR AGIRIANO



Nagusien mailan lehen saria jaso zutenak, publikoaren artean. A.A.



# "Beasainen, helburua da 'play off'-ean sartzea"

**ANDER FERNANDEZ 'PATXEKO' FUTBOL JOKALARIA**

Aretxabaletak utzita, Goierriko taldean jokatu du aramaioarrak denboraldia bukatu bitartean; goiko borrokan dabilen taldea dela-eta pozik dago sortu zaion aukerarekin

**J.I. ARAMAIO**

Urtarril amaieran: egun batean deia jaso, hurrengoan osasun azterketa egin eta biharamunean entrenatzen zebilen –lehenago ere saiatu ziren fitxatzen–. Hamar gol zeramatzen Aretxabaletan, eta berdin jarraitu nahi du Beasainen, golak sartzen edo sartzen laguntzen.

**Zer moduz Beasainen? Egokitu zara dagoeneko?**

Bai, bai, gustura. Gainera, Arrasateko lagun bat ere bertan ari da, eta hori ere oso kontuan hartu dut hara joateko, erraztu egiten ditu gauzak. Mondran jokatzeko zuten Mikel Aizpurua da hura, eta denboraldi hasiera ezker dago han; harekin ikasitakoa naiz, gainera, laguna dut. Gainerakoan, oso ondo portatu dira, entrenatzailea eta gainerako teknikariak jatorrak eta gertukoak dira.

**Eta talde modura, ez dakit erreferentziarik ba ote zenuen; nolako taldea topatu duzu?**

Ez nuen ideiarik ere. Beteranoak dira, oro har, urte asko daramatzen Hirugarren Mailan jokatzeko, eta maila ona dute. Erritmo handiagoa igartzen zaie, espero nuen moduan. Gustura nago, taldean jende beteranoa izatea ere ondo datorkit niri ere ikasteko.

**Bi partidua izan dira iritsi zinenetik, eta parte hartzeko aukera izan duzu bietan; zer moduz?**

Bai Durangoren kontrako debutekoan eta bai bigarrenengo hongo minutu izan nituen jokatzeko; aulkitik irten naiz bietan, baina aulkitxoan ere gozatu egin dut. Lehenengo partiduan 1-0 irabazten ari ginen irten nintzenerako [horrela bukatu zen], eta hain gustukoa izaten ez den lana egitea tokatu zitzaidan, defendatzea, korrika batetik bestera; Somorrostroren kontrakoan 1-0 galtzen ari ginela irten nintzen, eta gustura ibili nintzen, goleko jokaldian ere



Ander Fernandez Patxeko. GOIENA

**"22 URTE DITUT ETA, ORAINGOZ, ONDO PASA NAHI DUT, ETA GAUZAK AHAL DEN ONDOEN EGIN"**

parte hartzeko aukera izan nuen eta [bana bukatu zen].

**Zein nahi zenuen izatea zure ekarpena taldean?**

Aretxabaletan aurrealdean hegaletik jokatzeko nuen, eta hemen aurrelari jokatu ditut bi partidua, eta ondo. Aukerak sortzen eta golak sartzen saiaturiko naiz, eta taldeari laguntzen.

**Gasteizen ari zara ikasten; ikasketak eta futbola uztartzeko lehen baina zailagoa izango da orain?**

Ba, begira, aurreko urtean ere, Aretxabaletarekin Hirugarren Mailatik jaitsi ginenean, deitu zidaten Beasaindik, denboraldi hau eurekin hasteko. Baina Gasteizen unibertsitatean ikasten hasteko nintzenez, zalantza hori izan nuen, nola eramango ote nuen, denbora izango ote nuen; azkenean, Aretxabaletan geratu nintzen. Arantza hori geratu zitzaidan, berriz ere ka-

tegoria hartan jokatzeko aukera ez aprobetxatzearena, baina zortea izan dut, berriz deitu didate, eta orain, ikusita unibertsitateko kontuak nola diren, joatea erabaki dut; biak uztartu ditzaket. Entrenamenduak 19:30ean izaten dira eta arratsaldean ere badut denbora lanak-eta egiteko.

**Eta etorkizunari begira, zer?**

Oraingoz, gozatu egin nahi dut; zaila da futboleko aurrera egitea, baina 22 urte ditut, eta, oraingoz, ondo pasa nahi dut, eta gauzak ahal den ondoen egin. Denboraldi amaieran Beasainek aukera ematen badit jarraitzeko, hartuko dut erabakia, Aretxabaletan esan didate nire erabakia izango dela; eta, bestela, Aretxabaletako ateak zabalik ditudala.

**Bigarren zoazte; espero bezala doaz gauzak Beasainentzat?**

Iaz ere goian bukatu zuten, *play off*-a jokatu zuten. Helburua abenduan ikusten da, eta otsailerdian hor gaude. Helburua da *play off*-ean sartzea; hortik aurrera zaila da, ze lehenak kanporaketa bakarra du, baina gainerakoek hiru. Baina iristen bada, saiaturiko gara, hori ziur.

## Ipuin lehiaketa: sari bereziak, heldu gehiago erakarri guran

Asteburu-pasa eta herriko produktuz osatutako otarrea jasoko dituzte 18 urtez gorakoen lan onenek

**J.I. ARAMAIO**

Martxoaren 23ra bitartean aurkez daitezke Txirritolaren lehiaketarako lanak. Aramaion bizi den edo ikasten duen edonork har dezake parte lehiaketan. Ipuinek euskarazkoak –batuan edo euskalkian– eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Lanen gutxieneko luzerak hauxe behar du kategoriaz kategoriaz: Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklokoen lanek, luzera libre; bigarren ziklokoenak, orri bat; hirugarren ziklokoenak, bi orri; nagusienak, hiru orri. Lanak kartazal handi batean aurkeztu beharko dira, gainean *Txirritola ipuin lehiaketa* jarrita eta barruan egilearen datuekin.

Azken urteotan helduetan parte-hartze txikia izan dela eta, euskara elkarteok ahalegin berezia egin dute kategoriaz hori indartzeko, adin tartekak hobeto banatuz eta sari bereziak jarritz: horrela, 12 eta 18 urte arteko lan onenengatik 75 eta 50 euro banatuko dituzte; 18 urtetik gorakoentzat, berriz, bi pertsonarendako asteburu eta herriko produktuekin osatutako otarrea izango dira sariak. Eta Lehen Hezkuntzako sarituentzat, 20 eta 50 euro arteko bonuak izango dira saria.

## Udalak Mundukideri emandako laguntza, Mozambikerako

300 euroko laguntza eman zion Udalak Mundukide Fundazioari, Mozambiken lantzen ari den garapen proiektuan laguntzeko. Zehazki, Mozambike iparraldeko garapen sozioekonomikorako programa Namunoko nekazaritza eta landa eremuetara zabaltea da helburua.

Proiektuaren bitartez, indartu egin da Namunoko nekazaritza



NIRE USTEZ

PERU  
ABARRATEGI

## Karnabalak

Urtero moduen, aurtun be ailegau die Karnabalak Debagoieneko herrixetara. Aramaixoko gaztiok, urtero legez, herritik urten eta Debagoieneko tabernetan turismo apur bat egiteko erabiltzen dogu asteburue. Bakoitzak bere mozorru jantzi eta Arrasatera bajatzie toketan zan zapatuen. Bertan, danontzat ezagunek dien Iluntz, Jai Zale, Etxoste... eta gainontzekuek bisitau, ostien etxera ordu txikixetan bueltetako asmuaz, Arrasatera heltzerakuen baino umore hobien eta diru apur bat gutxiaukin. Danok dakigunez, zapatuetako algarek penatik gehixau eukitten daue domekan ohetik altzetarakuen algaratik baiño, eta iñork ez dauenez bere herrixen arpegi txarrik erakutsi gure izeten, domekan Aretxabaletarako bisitie toketan zan Aramaixoko gaztientzako. Armarixotik karetie atara, bixamona arpejixe disimuletako eta han juen giñen Urbaltz, Ezkutu eta Haizeako zerbezie dastatzekotan. Holakuek izeten die Karnabalak Aramaixoko gaztientzako, herritik aldundute, herrixen berri lau haixetara zabalduz. Enterau orduko, berriro astelehena ailegau eta bakoitzak bere bidie hartzen dau, rutinara ahal dan moduen gorputze eta burue egokittuz.

eremuan bizi diren pertsonen ahalmena –nekazaritza aktibitate sendotuz–, beraien bizi baldintzak hobetzeko bidean eta beraien komunitatearen eta lurraldearen garapen sozioekonomikoan eragitea lagunduz.

Testuinguru horretan, ortugintza sustatzeko eta emakumeen parte-hartzea bermatzeko helburuak izan ditu proiektu horrek, eta, horrela, aktibitatea aurrera eramateko beharrezkoa den materiala eta haziak eskuratzen lagundu du.

# Inbertsioetarako diru gehiago

Bederatzi milioi euro pasako udal aurrekontua onartu dute 2018rako, Udal Gobernuaren babesarekin eta oposizioaren abstentzioarekin. Iazkoarekin alderatuta, %6,3ko igoera izan du eta inbertsioak egiteko 600.000 euro izango dituzte

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaleako Udalak badu 2018rako aurrekontua: 9.686.855 euro. Iazkoarekin alderatuta, %6,3ko igoera izan du horrek, aparteko sarrera batzuei esker. Aurrekontu horren zatirik handiena gastu arruntak eta zerbitzuak ordaintzeko izango da, 5.145.995 euro, hain zuzen ere, eta beste kopuru esanguratsu bat pertsonalaren gastuetarako, 1.911.125 euro; inbertsioetara, oster, 600.446 euro bideratu dituzte.

**"Ilusionatzeko aurrekontua"**

Iaz, 258.000 euro bideratu zituzten inbertsioetara eta aurten, 600.446 euro. Horren arrazoia da ezohiko sarrera batzuk egon direla: "Foru fondotik 160.000 euroren bueltan ditugu; Azben Eroskin jartzeagatik 200.000 euro inguru; eta Iturrizar plazako etxe blokean beste bi atarte erakitzearen beste 100.000 euro", jakinarazi zuen alkateak osoko bilkuran. Diru hori hainbat obra egiteko erabiliko dute, eta alkatea gustura agertu zen horregatik:

"Urte polita izango da. Lan asko egongo da egiteko, batez ere, hirigintzari dagokionez; izan ere, obra asko aurreikusi ditugu eta esfortzu handia eskatuko du horrek. Baina beste ilusio batekin hartu dugu aurrekontua!".

Nabarmen igo den partida bakarra da inbertsioena; gainerakoek ez dute aparteko aldaketarik izan, alkateak dioenez: "Jaitzieraren bat edo beste egon da, baina kopuru errealer, hurbiltzeko; kontua ez da dirua sartzea sartzearen, gero ez erabiltzeko".



Udalbatzako kideak elkartuta joan den asteko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

**Oposizioaren abstentzioa**

EH Bilduko zinegotziak, oster, ez zeuden pozik eta aurrekontuari ez zioten babesik eman, abstentziara joaz. Mesfidati agertu zen Ion Albizu zinegotzia: "Aurreko urteko aurrekontuari

begiratu gero konpromiso asko ez dira bete eta guk mesfidantzarekin begiratzen diegu hauei ere. Ekarpen asko egin ditugu, batzuk ez dizkigute onartu eta beste batzuk bai, baina ikusiko dugu betetzen diren". Eta gaineratu zuen "plangintza falta" dagoela eta aurrekontuaren atzean ez dagoela proiekturik ezta planifikaziorik ere.

Irabaziko zinegotzi Luis Mariano Gomez ere abstenitu egin zen bozketan, baina ez zuen horren gaineko azalpenik eman.

**JELTZALEAK GUSTURA DAUDE ONARTUTAKO AURREKONTUAREKIN; EH BILDU, OSTER, MESFIDATI AGERTU DA**

## "Herritarrei hitza emateko aukera izango dugu aurrekontu honetan"

**UNAI ELKORO** ALKATEA

Pozik agertu da onartutako aurrekontuarekin.

**Zein ezaugarri du?**

Uste dut oso aurrekontu onak direla. Oposizioa ere, emendakin batzuk aurkeztu arren, esango nuke gustura geratu dela. Gainera, agintaldi honetan lehenengoz dugu aukera inbertsioetara diru kopuru adierazgarria bideratzeko.

**Zein inbertsio lehenetsi dituzue?**

Kopuruari dagokionez, potoloenak izango dira: Deba ibaiaren ezker aldeko pasealekua bukatzea kiroldegiarekin bat egiteko; komentuko kapera areto bihurtzea; bidegorria Kurtzebarri eskolatik atera eta Santa Kurtz kalera pasatzea; eta irisgarritasun oztipoak kentzea kaleetan. Iazko asmoa izan arren, atzeratu egin zitzaigun, eta abenduan esleitu genituen



M.A.

Ian batzuk. Aurten, beste 200.000 euro bideratuko ditugu zebra-bideak egokitzera eta Santa Kurtz kalean lanak egitera. Dezenteko soberakina espero dugu; izan ere, kuporako gordetako 240.000 euroak hor daude eta Aldundiak kiroldegia konpontzeko emandako 200.000 euroak ere baditugu. Hainbat proiektu dauzkagu buruan, futbol zelaiarena, esaterako, baina, aurreko urteetan ez bezala – dirurik ez genuelako –, herritarrei hitza emateko aukera izango

dugu aurrekontu parte-hartzaileen bitartez.

**Zein irizpide erabili duzue proiektuak lehenesterakoan?**

Proiektu batzuk bai edo bai bukatu behar genituen; ibai alboko paseoa eta oztipo urbanistikoa, esaterako. Gainerakoak erabaki ditugu herritarrek eskatutakoak eta beharrak aztertuta.

**Gainerako partidek izan dute igoera edo jaitziera nabarmenik?**

Ohikoak antzera geratu dira. Etxerik etxeko zerbitzuarena jaitzi egin da 50.000 euro, baina benetan kontsumitzen den kopurura gerturatzeko.

**Plangintzarik gabeko aurrekontua dela esan dizue EH Bilduk...**

Saltzen onak ez gara uste dut, kea saltzea ez zait-eta gustatzen. Proiektuak lotuta izan arte ez dut horien berri eman gura; komenturako asmoak baditugu, baina lotu egin behar dira gauzatzeko. Proiektu estrategikoa argi dugu eta txikiak eskaeren arabera heltzen diegu, herritarren laguntzarekin.

## EH Bildu: "Atzeko proiekturik ez"

2018ko aurrekontuei mesfidantzarekin begiratu arren, aurkeztutako proiektu guztiak begi onez ikusten ditugu. Gainera, guk proposatutako bi Gobernuak bereak egin ditu: Kurtzebarriko bidegorria eta Txarapeako parkea.

Aldaketa batzuk proposatu ditugu: kooperaziorako diru laguntzak igotzea, hezkuntza ekintzak indartzea, etxeko laguntza zerbitzua mantentzea, euskaltegiko matrikula erdira jaitea eta berdintasun kontseilua sortzea. Bat ere ez digute onartu. Beste kasuetan, ikertzeko edo egiteko konpromisoa hartu dute: liburutegi publikoan inbertsio batzuk egitea; baserri auzoetan Internet duina jartzea; etxebizitza alokairuak bultzatzeko programa egitea eta bidegorrian komun publikoak jartzea.

Gure ustez, aurtengo aurrekontuak ez dira txarrak; ez zerbakiak dagokienez, behintzat. Dena dela, atzean egon behar duen proiektu, irizpide eta plangintzarik ez dago. Kudeaketa *sinpleegi* honekin herriak urteak galdu ditu eta zaharkitzen joaten da: epe motzeko estrategia elektoralistak txarrak direlako. Zergatik ez da aprobetxatu legealdi hau ados egon gintezkeen eremuetan plangintza komun bat egiteko? Legealdiak gaintzen duen ikuspuntu bat behar du Aretxabaleta. Ze beldur daude? Konformismo, inertzia eta noraezko kudeaketari denon artean buelta eman behar diogu.



Ion Albizu. M.A.



Miren Lorea Lana. M.A.

## PSE-EE: "Egokiak eta zuzenak dira"

Oso aurrekontu egokiak dira, asko estututakoak. Lehenengoz, behintzat, agintaldi honetan, 600.000 euroko diru-sarrera dugu eta inbertsioetarako erabiliko da. Albiste pozgarria da hori. Azpimarratuko nuke larrialdietarako laguntzari dagokion partida igo izana, 57.000 euroraino, hain zuzen ere, eta gizarte hezitzaileekin lanean jarraituko dugula ere esan. Kontrara, jaitsi egin da apur bat etxerik etxeko zerbitzuaren partida, baina ez zelako erabiltzen. Dena den, irizpide berriak jarri gura ditugu, eta, horiek ezarritakoan partida igo egin behar bada, igo egingo dugu. Laburbilduz, zuzenak dira aurrekontuak, ondo estututakoak, eta gustura nago onartutakoarekin.



Luis Mariano Gomez. M.A.

## Irabazi: "%5 bakarrik dago inbertitzeko"

Aurrekontua beste era batera egingo genuke, baina ulertzen dugu ez dagoela aldaketa askotarako tarterik. Aurrekontuaren %95 urtero berdina banatzen da, beti berdinei, eta %5 geratu da inbertitzeko eta zerbait egin ahal izateko. Hori berrikusi egin behar da; bestela, sekula ez da ezer berri egingo. Lan handiagoei heldu behar diegu datozen urteetan; Lausitta eta Santa Kurtz kaleetako hodiak, esaterako, apurtzen dabilta, eta horiei heldu behar zaie. Beste halako asko daude, 20.000 euroekin konpontzen ez direnak. Partidak eta diru laguntzak banatzeko era aztertu behar da, beti berdinei ez emateko, eta hala, dirua gordetzen joan lan potoloagoei heltzeko.

## Larraitz Garai, zinegotzi berria

EH Bilduko Larraitz Garaik zinegotzi kargua hartu zuen, Hector Prietok utzitako hutsunea betetzeko. Lanerako gogotsu agertu zen: "Gertutasuna, herrian eta, batez ere, herria bizitzea oso garrantzitsuak direla uste dut, eta nire eskarmentua baliagarria izatea gurako nuke". Gazteria batzordean hartuko du parte eta gainerakoetan ere egingo ditu ekarpenak.



Larraitz Garai. M.A.

## Hainbat partida esanguratsu

Gastuak	Euroak
Pertsonal gastuak	1.911.125
Gastu arruntak	5.145.995
Finantza gastuak	37.980
Transfer. arruntak	842.420
Kreditu globala	30.690
Inbertsio errealak	600.446
Kapital transfer.	286.222
Finantza aktiboak	5.409
Finantza pasiboak	826.565
<b>Osoa</b>	<b>9.686.855</b>
Zorra	864.545
Hirigintza	541.075
Etxebizitzak	25.436
Eraikinak berritu	25.436
Mugikortasuna	307.598
Bide publikoak	470.900
Bideen zoladura	453.500
Ura	478.089
Hondakinak	658.264
Kale garbiketa	357.189
Kanposantua	50.331
Argiteria publikoa	175.215
Lorategiak	141.000
Ingurumen babesa	43.696
Ongizatea	809.005
Enplegu sustapena	138.470
Hezkuntza	433.663
Liburutegia	136.148
Kultura sustapen.	157.000
Euskara	269.601
Jaiak	188.625
Kirol instalazioak	928.554
Nekazaritza	28.931
Merkataritza	35.331
Ezusteak	30.690

OHARRA: XXXX

ITURRIA: UDALA

## Inbertsio garrantzitsuenak



Deba ibaiaren ezker aldeko paseoa, kiroldegira iristear. M.A.

**Ibai alboko pasealekua bukatu** Deba ibaiaren ezker aldeko ibilbidea Ibarra kiroldegiraino luzatuko dute. Horretarako, 225.528 euro zehaztu dituzte, eta URAKetik baimena jasotakoan esleitu dituzte lanak, uda parterako bukatuta izateko.



Komentuko kaperarako sarrera. M.A.

**Komentuko kapera egokitzea** Areto bihurtzeko beharrezko diren egokitzapenak egingo dituzte, horretara 95.000 euro bideratuta. 200 lagun ingururendako tokia egokitzea da asmoa, oinarritzko ekipamenduarekin hornituta.



Santa Kurtz kaletik pasatzen den bidegorri zatia. M.A.

**Bidegorria Santa Kurtz kalean** Kurtzbarri eskolako kantxatik pasatzen den bidegorri zatia aldatu egingo dute lekuz. Santa Kurtz kaleko aparkalekuak tokiz mugituko dituzte, bidegorria hortik pasatzeko. 42.000 euro bideratu dituzte horretara.

# Beste behin, munduko onenak direla adierazi dute

Aratusteetako domeka izaten da Aretxabaletan mozorrotuta irteteko eguna, eta, txistularien dianaren ostean, kintoek egiten duten txino dantza izaten da eguna abiarazten duena. Horren ondoren, desfilea izaten da; aurten, arrakastatsua izan da

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Aretxabaletarrek zorzea izan zuten pasa den domekan ospatu zituzten Aratusteetako desfilean. Izan ere, eguraldia alde izan zuten, eta, beste behin ere, ikusgarria izan zen bertan sortutako giroa. Mozorro bikainak, karroza apartak eta hauek ikusteko herritar mordoa batu ziren Aretxabaletako kaleetan zehar.

Gorriti eta bere animaliak; txalupak eta arraunlariak; UDAkoak, 50eko hamarkadako jantziekin mozorrotuta Vespak ere aldean zituztela; abesbatza erlijioso bat; igerileku ibiltaria... Aratusteak bereziki maite di-

tuzte aretxabaletarrek, eta horren adierazle da herriko jaiegun bezala izendatu dutela Aratuste egunaren hurrengoko eguna.

**Ikastetxeetako haurren jaialdia**

Martitzenean, aldiz, berriro jantzi zituzten mozorroak Aretxabaletako ikastetxeko haurrek, dantzaldia egiteko. Gaztetxoek, 2 eta 5 urte artekoak, Iturrigorri pilotalekuan elkartu ziren eta nagusiak, berriz, 6 eta 12 urte bitartekoak, Ibarra kiroldegian. Gurasoak eta lagunak ere dantzak ikusten izan ziren, eta umore onean ospatu zuten Aratusteen bigarren eguna.

**Kexak, herri bazkariak**

Herri bazkarian giro ezin hobea izan zen, beste behin, eta klasiko bihurtu den abestiak ere ez zuen hutsik egin: *Bailar pegados* (Sergio Dalma). Hala ere, antolaketa ganean kexak ere izan dira herritarrengandik.

Txartelak lortzeko izaten diren zailtasunen ostean, herri bazkarian edari barik berehala geratu zirela, batzuk lehenengo platerarekin hasi berri zeuden bitartean, beste batzuk bigarrena amaitzen zeudela, ume batzuk postre barik geratu zirela... esan du herri bazkarian izan zen herritar batek.



UDAKoak Vespa motorrekin. I.S.



Otsaileko ferriakoak talde argazkian. IMANOL SORIANO



Kurtzebarri eskolako ikasleak Ibarra kiroldegiko jaialdian. MIRARI ALTUBE



Arizmendiko ikasleak. MIRARI ALTUBE

## Zinema Afrikara, 'Cinecicleta' egitasmoaren baitan

Bizikleta eta zinema uztartuz Afrikan bizitakoaren berri emateko hitzaldia izango da otsailaren 16an, 18:30ean

**I.B** ARETXABALETA

Mozambique, Tanzania, Kenya... guztira, hamalau herrialdeetatik pasatu dira bi urte pasatxoan Isabel eta Karmelo madrildarrak. 18.000 kilometro inguru egin dituzte bizikletan, zinema hara eta hona eramanez, eta 218 emanaldi eskaini dituzte. Horren guztiaren berri emango dute otsailaren 16an, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

Zinema eraman dute Afrikara Isabellek eta Karmelok *Cinecicleta* egitasmoaren baitan. Bi urtez Afrikan izan dira, modu

jasangarrian, eta hainbat helburu dituen proiektua gauzatu nahi izan dute: energia garbi eta berriztagarrien erabilpena sustatzea eta aldarrikatzea, doazen lekuetan aisialdigune kulturala sortzea, zinemaren bidez gai ezberdinen inguruko sentsibilizazioa sortzea, zinemak errazten dien osagai artistiko, kultural, politiko eta gizartearen dauden gaiei buruzko eztabaida eta hausnarketa-guneak sustatzea... Betiere, sare elektrikoan konektatu gabe, soilik pedalen bidez sortutako energia erabiliz.

## Josemaria del Palaciok liburua aurkeztuko du

*Secuelas de nuestras guerras y derrotas* liburuaren egileak, Josemaria del Palaciok, lanaren aurkezpena egingo du, Arkupen, otsailaren 21ean, 19:00etan hasita. Duintasun gosez zeuden bere gurasoei omenaldi gisa hasitako lana da, XX. mendeko nekazari giroko Espainian girotuta; II. Errepublikaren alde borrokatu ziren haiek.



Josemaria del Palacio. ARKUPE

## Fun Dantz jaialdirako sarrerak salgai daude Arkupe kultura etxean

Fun Dantz jaialdiaren laugarren edizioa da aurtengoa eta martxoaren 3an Aretxabaletako Ibarra kiroldegian ospatuko da, 18:30etik aurrera. Euskal Herri osotik etorritako 26 dantza taldek parte hartuko dute; 150 dantzarik, guztira.

Dantza urbanoen estilo anitzak ikusgai izango dira bi kategoriatan: gaztetxoek koreografiak eta lehiaketa nagusikoak. Lehiaketaren irabazleek, diruz saritzeaz gain, apirilaren 21ean Derion ospatuko den Break On Stage jaialdian parte hartzeko aukera izango dute. Sarrerak, aldeztu aurretik, hiru eurotan daude, eta egunean bertan, lehiatila, bost eurotan.

## Drogen gaineko hitzaldia antolatu du UDAk, gurasoendako

Otsailaren 28an 18:00etatik 20:30era Arkupe kultura etxean egingo den drogen gaineko hitzaldira joateko gonbidapena egin du UDAk, Aretxabaletako gurasoendako.

Bilera horretan, San Juan de Dios ospitalearekin batera martxoan dagoen proiektuaren egungo gaur egoera azalduko dute, besteak beste, eta, plazak mugatuak direnez, aurrez eman beharko da izena. Guztira, 99 pertsonarendako lekua dago; horrenbestez, interesa duenak otsailaren 26a baino lehenago eman beharko du izena. Plaza kopurua gainditzen bada, berriz, izen-emate ordena errespetatuko dute.

# Euriak ez ditu jaiak zapuztu

Eguraldiak ez ditu baldintzatu Eskoriatzako Aratusteak. Izan ere, horren gainetik, umore ona eta festa nabarmendu da. Zapatuko desfilea ederto joan zen eta martitzenean, berriz, ikastetxeetako haurren dantzak arrakastatsuak izan ziren

## Imanol Beloki **ESKORIATZA**

Martitzenean amaitu ziren Eskoriatzako Aratusteak. Eguraldiak ez du lagundu egunotan, baina giro aparta izan da.

## Mozorro-desfilea, bikain

Desfileko saridunak aukeratzeko epaimahaia hauek osatu zuten: Erretiratuen Elkarteko Itziar Ezpeletak eta Pedro Hernandok, Eingeinkeko Maite Santamariak eta Udaleko Puri Regidorrek; idazkaria Kultura teknikari Arantxa Unzueta izan zen.

"Saridunen aukeraketa ez zen erraza izan, eta eguraldiak ez lagundu arren, arrakastatsua izan zen. Giroa eta parte-hartzea oso ona izan da, bestetik", Adierazi du Arantxa Unzuetak.

## Sari ugari banatu dituzte

14 urtetik beherakoetan, gazteen artean Inauterietan mozorrotzea bultzatze aldera, aurkeztutako talde guztiak saritzea erabaki zuten epaimahaikideek. 14 urtetik gorakoetan, berriz, banaka edo bikotekako sailean, *Piñata*

taldea izan zen irabazlea; talde txikien sailean, *Zaldi lasterketa eta Mainontziak*; eta talde handietan, *Eskolurtarrak, Iregitarrak eta Iparraldeko gerlariak*.

## Haurren jaialdia dantzez josita

Arizmendi-Almengo, Jose Arana guneko eta Luis Ezeizako haurrek dantza bikainak egin zituzten Aratuste-martitzenean. Mozorro ezberdin ugari izan ziren pilotalekuan, eta gurasoak eta lagunak bertan izan ziren haiez gozatzeko.



Aratuste-zapatuan, desfilea hasi berri, *Eskolurtarren* karroza. ARGAKIJABEAXXX



*Iparraldeko gerlariak* talde argazkian. IMANOL SORIANO



Sesamo festako haurrak. IMANOL SORIANO



Luis Ezeiza Herri Eskolakoak arrain-saltzaile jantzita dantza egiten. I.B



*Iregitarrak* desfilean. IMANOL SORIANO



*Eskonautak* Luis Ezeizako kantxatik desfilea hasi berritan. IMANOL SORIANO



Arizmendi-Almeneko haurrak, mexikar dantza amaituta. I.B

# "Eskoriatzarrak batzea da lehen urratsa"

**KIKE AMONARRIZ** SOZIOLINGUISTA ETA EUSKAL FILOLOGIAN LIZENTZIADUNA  
Hizkuntza ohiturak aldatzeko euskaldunak aktibatu nahi ditu Euskaraldia ekimenak, eta, horrekin lotuta, Kike Amonarriz izango da gaur, 19:00etan, Zaldibar antzokian

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Euskaraldia, 11 egun euskaraz egitasmoarekin bat egingo dute Eskoriatzako hainbat elkarte eta eragilek. Hala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte iraungo du ekimenak, baina, aurretik, Eskoriatzako Udalak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak elkarlanean antolatuta, Kike Amonarriz soziolinguista izango da gaur Zaldibar antzokian, 16 urtetik gorako euskaltzaleendako *Eskoriatza herri euskalduna da?* hitzaldia eskaintzen.*

**Zer eskainiko duzu gaurko aurkezpen hitzaldian?**

Euskaraldia egitasmoa dela-eta hainbat hitzaldi egitea egokitu zait, egitasmoa aurrera bultzatuko duten taldeak sortzeko. Batez ere, nabarmentzen ditugun bideak dira: batetik, hainbat klabe emanda zergatik den euskararentzat momentu garrantzitsua adieraztea; bestetik, zein baldintza ditugun gaur egun halako egitasmo bat aurrera eramateko; eta gero, Euskaraldiaren ezaugarri nagusiak adieraztea. Oinarrian, gaur egun euskararen aldeko aktibazio soziala bultzatzea da helburua. **Zein formula erabiliko da horretarako?**

Herritar batzordeak sortzea, herritarrek ahalduz eta formatzea, Euskaraldiak eskatzen duenaren inguruan. Bestetik, gizarte erakundeen arteko elkarlana sendotu nahi da. Kontuan izanik Euskaraldia ez dela urte bateko egitasmoa, datozen urteetan ere aurrera jarraituko duen ildo bat. Aurten, norbana-koak aktibatuz hasiko gara, eta gero, maila kolektiboan planteatuko da, erakunde, enpresa, eta abarretan.

**Egitasmoaren helburu nagusia zein da?**

Ohiko portaera linguistikoak aldatzea planteatzen da. Horrek zera esan nahi du: jende gehia-



Kike Amonarriz soziolinguista. ALEA

## "IKERKETEK FROGATZEN DUTE EUSKARAREN ALDE EGOTETIK EGITERA PAUSO BAT DAGOELA"

gok jende gehiagorekin eta gehiagotan euskaraz egitea. Hori hamaika egunetan zentratuko da, eta hamaika pertsonako taldeak osatuz. Alegia, pertsona bakoitzak aukeratuko ditu beste hamaika pertsona bere kultura linguistiko horiek aldatzeko. Hori modu ezberdinetan egin daiteke: era pasiboan edo aktiboan. Horretarako, *ahobizi*-ak euskaraz bizitzeko konpromiso aktiboa hartzen dutenak izango dira eta *belarriprest*-a, berriz, jarrera bat da; euskara ulertzen dutenek baina euskaraz hitz egiteko euren burua prest ez dutenak ikusten.

**Egitasmo honekin euskaldundu daiteke?**

Beste herri batzuetako esperientziak erakutsi digutena da aktibazio sozial honen bidez, egitasmoaren aurretik erdara hutsez garatzen ziren elkarrizketa eta

situazio asko euskarara pasa direla, edo euskara ere, behintzat, erabiltzen dela.

**Kontzientzia bat egon arren, praktikan jarri beharra dago?**

Bai; ikerketa guztiek frogatzen digute gizartearen gehiengo euskararen alde dagoela. Alde egotetik egitera jauzi bat dago, eta jauzi hori errazago ematen da taldean, maila kolektiboan norberak bakarrik baino. Euskaraldiak pauso hori babestu nahi du.

**Jendeak ilusioz hartu du egitasmoa?**

Niretzat, sorpresa izaten ari da zenbat jende ari den hitzaldietara hurbiltzen. Horrek esan nahi du badagoela ilusio bat eta jendeak sumatu duela Euskaraldiak aukera berriak, metodologia berriekin, elkarlan berriekin eta sinergiarako aukera handiak sortzen dituela herrietan. Positiboa gertatzen ari da fase hau ere. Espero dut Eskoriatzan ere baliagarria izatea, horren beharrea gaudela eta.

**Gaur, egitasmoaren berri emango da. Hemendik aurrera, zer?**

Eskoriatzako euskaltzaleak eta interesa dutenak biltzea da lehen urratsa, Euskaraldi indartsu bati ekiteko oinarriak jartzeko.



Urtarrilean mikrometeoritoen gaineko tailerra egin zenekoa. IMANOL SORIANO

## Konstelazioen, izarren eta planeten gaineko ikastaroa

Astronomiako bigarren tailerra domekan izango da, kultura etxean, eta izena eman daiteke oraindik

**I.B** ESKORIATZA

Urtarrilean egindako astronomia tailerrak izandako arrakastaren ostean, otsailean beste tailer bat egitea erabaki du Udalak. Domekan izango da, 18:00etan, kultura etxean, eta, oraingoan, konstelazioak, izarrek eta planetak izango dituzte hizpide bertara doazen haurrek.

Konstelazioak zer diren eta izarrek, planetak, sateliteak nola identifikatu daitezkeen ikasiko dute tailerrera doazen haurrek. Gainera, euritako batean planisferio bat eraikiko dute, euripean izarrek ikus ditzaten.

Tailerra euskaraz izango da eta plazak mugatuak dira; horrenbestez, izena emateko epea plazak amaitu arte egongo da zabalik –oraindik aukera dago izena emateko–. Izen-ematea hamar euro da.

**Haurrak, ikasteko irrikan**

Lehenengo astronomia tailerra mikrometeoritoen gainekoa izan zen, eta arrakasta itzela izan zuen. Hala, Udalak hilero ikastaro bat antolatzea erabaki du, betiere, astronomia oinarri izanda, haurrek arlo ezberdinak aztertu ditzaten.

## '13 y martes' antzerki komedia domekan Zaldibar antzokian

Glu Glu antzerki konpainiaren *13 y martes* antzerki-komedia gozatzeko aukera izango da domeka honetan Eskoriatzan. Gorabehera asko eta ezustekoak gertatuko dira egun berezi horretan: martitzena, 13, hain zuzen ere.

Jean-Pierre Martinezek egindako lana Ylenia Bagliettok zuzentzen du, eta oholztan Ugaitz Alegria, Diego Perez eta Leire Ucha izango dira. Barre egin nahi duen publiko helduarentzako komedia domekan, arratsaldeko zazpitan, izango da, Zaldibarren, eta gaztelaraz. Sarrrerak lau eurotan eros daitezke, aurrez, Manuel Muñoz kiroldegian.

## Urkulutik abiatuta, Oñatiko txokoak ezagutzera

Eskoriatzako eta Aretxabaletako hezkuntza foroek eta Murruxiko Mendi Elkarrekin Eskoriatzako *Makilla eskuen eta ibili basuen* egitasmoaren barruan antolatuta, hiru ordu eta erdi inguruko mendi ibilaldia egingo dute domeka honetan.

Ibilbidea honako hau izango da: Urkulu, Araotz, Aitzulo, Urkulu. 15,99 kilometroko bidea da, eta egin gura duenak ez dauka zertan izenik eman. 10:15ean batuko dira, Urkuluko presan, eta, hain zuzen ere, bertatik ekingo diote bideari. Esan beharra dago ibilaldi horretara ezingo direla haurrak bakarrik bidali, heldu baten laguntzarekin joan beharko dute.


# Gabez Takarraran, Euskal Herrikoan puntuagarri

Aurtengo Gabez Takarraran Eskoriatzako gaueko mendi lasterketa berrikuntzekin dator. Batetik, Euskal Herriko koparako puntuagarria izango da, eta, ibilbide bereko probaz gainera, oinez joan nahi dutenentzako ibilaldia egingo dute

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabez Takarraran gaueko mendi lasterketaren zortzigarren edizioa ekainaren 9an izango da aurten, eta berrikuntzekin beteta dator.

Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izango da, eta, horrekin, parte-hartzea handitu egin nahi dute antolatzaileek. Honela adierazi du Garbiñe Uribe, Kirol Elkarteko kideak: "Iaz, 80 parte-hartzaile izan ziren soilik, normalean 120 inguru izan ohi direnean, eta, ekimena indartze aldera, Euskal Herrikoan puntuagarri izatea eskatu dugu. Hala, parte-hartze kopurua 300era iristea, behintzat, da gure asmoa".



Marije Zubizarreta lasterketan. I.B

## Ibilbide bera izango da

Urteroko ezaugarriak izango ditu: 23:00etan hasiko da, eta 1.200 metroko desnibel positiboa eta 1.200 metroko desnibel negatiboa izango du. 18 urtetik beherako kategoriakoek bederatzi kilometroko bidea egin

beharko dute itzulia amaitzeko eta 18 urtetik gorakoek, berriz, 23,2 kilometrokoa.

## Lasterketaz gain, ibilaldia

Aurten, ibilaldia egiteko aukera ere jarri dute antolatzaileek.

Hala, oinezkoek aukera izango dute Eskoriatzako inguruneaz, gauez, gozatzeko. Oinez egin gura dutenak 21:00etan hasiko dira, eta helduen ibilbide bera egingo dute. 18 urte azpikoetan, berriz, ez da martxarik egingo. Horrekin batera, apustua ere egingo da aurten. Iaz, Lexargaratera azkarren nor igoko zen asmatu behar zen, baina aurten, adosteko dute zein izango den erronka.

Izen-ematea datorren astean irekiko dela adierazi dute antolatzaileek, eta, prestaketa lanak aurreratzeko asmoz, lehenbailehen egiteko eskatu dute. Federatu gabe daudenek 25 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuek, aldiz, 15 euro.

## Puntaik Punta barruan

Ekainaren 15etik 17ra ospatuko da Puntaik Punta Aretxabaletan, eta aurtengo Gabez Takarraran egitarauan sartzea erabaki dute, kirol ekintza moduan.

## Kantu tailerra, Gu Denon Artean elkartearen eskutik

Gu Denon Artean elkarteak antolatuta, *Abestearen plazera* izeneko kantu tailerra izango da bihar, Ibarraundi museoan. Bettina Aragon Hilleman irakasleak emango du saioa, 11:00etatik 14:00etara bitartean, eta gazteleraz izango da. Bertara joan nahi duenak hamar euro ordaindu beharko ditu eta izena emateko 639 52 71 79 telefonora deitu beharko da. Plazak mugatuak dira.

Hain zuzen ere, *Ibiltzen dakienak, dantzan daki, hitz egiten dakienak abesten daki* lelopean, abestera animatu nahi dituzte herritarrek Gu Denon Elkarte-kideek, eta tailerrera joateko gonbidapena egin dute.



Gatzagarrek plazan egindako talde argazkia, Aratuste-zapatuan. GATZ MUSEOA

## Bikain aritu dira gatzagarrik aurtengo Aratusteetan

'Gatzaga 3500' izan da aurtengo gaia, eta, mozorroez gain, paperean ondo sartuta aritu dira Aratusteetan

## Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pasa den zapatuan ospatu zituzten Aratusteak Leintz Gatzagan. Aurtengo gaia *Gatzaga 3500* izan da, eta gehienek errespetatu zuten. Soran Etxean bazkaria egin zuten herritarrek, eta gero, DJ Humertorekin dantzaldia izan zuten.

"Ederto jan dugu. Izan ere, etxe honetan beti jaten da ondo. Bapo bazkaldu, eta gero, dantzan bikain aritu gara. Gatzagarrok ganoraz ospatzen ditugu Aratusteak", adierazi du Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako zinegotziak.

## Etorkizuneko Gatzaga

Aurtengo gaia *Gatzaga 3500* izanda, etorkizuneko Gatzagara joan ziren hainbat herritar paperean sartuta izan ziren Soran Etxean egindako bazkarian. "Iraganeko ohiturak berreskuratzen ari gara gaur. 3.000 urteko bidaia egin dugu, eta berriz bueltatu gara Leintz Gatzagara. Herria pixka bat aldatuta dagoen arren, antzera samar dago. Gatzaga da gure energia iturburua, eta espazioan zehar ere eraman dugu...". adierazi zuen, umorez, astronautaz mozorrotuta zegoen batek.

## Bertso afaria eta angula zozketa egingo dituzte Soran Etxean

Otsailaren 24an egingo den bertso afarian Jon Maia eta Unai Agirre bertsolariak izango dira Leintz Gatzagan

## I.B LEINTZ GATZAGA

Otsailaren 24rako, datorren zapatuak, bertso afaria antolatu dute Leintz Gatzagako Korrika Batzordeko kideek. Soran Etxean -Gatzagako hotela- 21:00etan izango da, eta Jon Maia eta Unai Agirre bertsolariak izango dira bertan afaria alaitzen.

Bertso afarirako txartelak salgai daude dagoeneko Labidea dendan, eta horiek erosteko azken eguna otsailaren 21a izango da. Bertso afariaren prezioa 22 euro da eta menua, berriz,

hauxe: askotariko etxeko frijituak, ganba eta berakatz nahaskia, txipiroiak plantxan eta txutxuak.

## Angula zozketa

Bertsoez lagundutako afari ederrez gainera, kilo bat angula zozketatuko dute, urtero moduan, Korrikaren alde dirua batzeko.

Soran Etxean egingo dute euskararen aldeko jaiari laguntzeko zozketa, eta dagoeneko salgai daude txartelak Gatzagako Labidea dendan.



MYRIAM BELTRAN DE HEREDIA

## Teresa Santiagok, 100 urte

Teresa Santiago eskoriatzarrak 100 urte bete zituen eguaztenean, eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Maite Uribe, Prebentzio teknikari Myriam Beltran de Heredia eta Olazar Erretiratuen Elkarte-kide Jose Miguel Zubia haren etxera joan ziren, hura zoriontzera. Bi dantzari eta txistulari bat ere han izan ziren, eta aureskua eskaini zioten.

# 2018rako proiektu garrantzitsuenak

Lur azpiko aparkalekua egiten hastea eta Arrizuriaga eraberritzea dira proiektu nabarmenenak —azken hau Espainiako Sustapen Ministerioaren diru laguntza baten menpe dago—; EH Bilduk eta Irabazik informaziorik eza eta Gobernuaren "jarrera iluna" kritikatu dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

2018ko udal aurrekontua -24.857.039 eurokoa izatea onartu zen, 2017an baino %11 gehiago— Gobernuaren (EAJ-PSE-EE) aldeko eta oposizioaren kontrako botoekin onartu da. Gobernuak bi proiektu nabarmendu ditu 2018rako: seminario azpiko aparkalekua egitea eta Arrizuriaga eraberritzea. EH Bilduren arabera, hirugarren urtez jarraian, kontsentsu gabeko eta herritarren parte hartzerik gabeko aurrekontua onartu du Gobernuak. Inbertsioen %48 bi proiekturen-

dako bideratuko dela salatu eta informazio eza kritikatzan dute: "Nondik atera dira aparkalekue-tako eta Arrizuriagako zenbakiak? Osoko bilkuran argi utzi zuten daturik gabe ateratako zenbakiak direla eta datu horiek herritarroei ezkutatu nahi dizkigutela. Jarra- ra ilun horrekin, Boluko frontoiaren estalpearekin gertatu dena datorkigu; daturik gabeko proiektu baten aurrekontua hirukoiztea". Irabazik ez daki bi proiektu horiek existitu ere egiten diren eta zenbat kostako diren martxan jartzen direnean.

Testuinguru horretan, Aiert Lizarralde ere Boluko frontoiarekin gertatu den "desastrea" aipatu zuen. Irabazik uste du ez dela herritarren beharretara egokitutako aurrekontua. Bestalde, Udalaren zorra handitzeko Gobernuak hartutako erabakia gaitzetsi du EH Bilduk; alkateak dio, baina, onartu den zorpetzea ez dela kezagarria Udalaren egoera zein den ikusita.

Jarraian, Udal Gobernuak 2018ra begira esku artean dituen proiektuen edo inbertsioen artean aipagarrienak direnak.

## 5) Ur jolasetarako gunea: 150.000 euro

2016ko ideia lehiaketatik datorren ondorio garbietako baten eta iaz udan Agorrosinen izandako leku arazoan ondorioz, 2017ko azken hilabeteetan azterketa bat eskatu zuen Gobernuak, ur jolasak non koka daitezkeen jakiteko. Ikerketa horren emaitzak "laster" jasoko dira, eta, emaitza horien arabera, obra aurten abiatuko dute. Hori bai, udarako erabiltzeko moduan egongo denik ezin dute bermatu.



Agorrosin beteta dagoenerako ur jolasen gune berria aurten egingo da. GOIENA

## 3) Boluko malda egonkortu: 370.000 euro

lazgo urtarrean gertatutako lur-jausiak sortutako emergentzia egoera gainditu ostean, bertako malda egonkortzeko 370.000 bat euro beharko dira. Hala jasotzen du txostenak. Lur horiek ez dira Udalarenak eta jabe pribatuen partetik edota kanpo finantziatit 270.000 euro inguru jasotzea aurreikusten da; hortaz, Udalak 100.000 euro gastatuko ditu egonkortze lan horietan 2018an.



Behera etorritako lurra egonkortzeko lanak, artxiboko argazki baten. GOIENA



Proiektua egiteke egon arren, seminario azpian egingo litzateke parkinga. B.U.

## 1) Lur azpiko parkinga: 1.400.000 euro

Aparkaleku berri baterako "eskaera sendoa" dago eta plan orokorrak seminarioan kokatzen du. Hirigintzako aterkia bermatuta, mugikortasun ikuspegitik beharrak zehazteko azterketa egingo da, hilabetean, eta ondoren proiektua garatuko da. 1.120.000 euroko mailegua eskatuko da.

## 6) Zinema Seminarixoa: 80.000 euro

Seminarixoko azpiegitura zinema eskaintzeko prest badago ere, ekipamendua erosteko inbertsioa aurten egingo da. Uda aurretik ez da astirik egongo ekipoa erosteko eta dagokion lekuan instalatzeko. Eta, Gobernuaren arabera udan zinema jartzea ez duenez merezi, aurreikusten dute udazkenean bihurtuko dela errealitate aspaldiko behar hori. 80.000 euroko partida dago aurreikusita horretarako.



Zinema ekipoa, udazkenarako. J.B.



Mizpirualde egoitza Diputazioak kudeatzen du urte hasieratik. J. BEREZIARTUA

## 7) Eskumen berriak ongizate arloan

Diputazioko Kabia fundazioaren esku dago, urte hasieratik, Mizpirualde egoitzaren kudeaketa. Hala ere, Jaurilaritzatik 70.000 euro inguru helduko dira ongizate arloan eskumen berriak garatzeko; tartean, adin txikikoen atentziarako eta bazterkeria arriskuen daudenei erantzuteko.





Arrizuriagan kultura ekipamendu bat, diru laguntza baten menpe. J. BEREZIARTUA

## 2) Arrizuriaga eraberritu: 1.111.000 euro

Jauregia eta lorategia kultura ekipamendu baterako eraberritzea aurreikusten da Espainiako Sustapen Ministerioak -AHTko lanen %1 kulturara bideratzeko- diru laguntza emango balu. Erabilera zehazteko "parte hartze prozesu bat" abiatuko du Gobernuak otsail bukaeran.



Espoiloiko jolas parkea estali egingo dute aurten. J. BEREZIARTUA

## 4) Jolas parkea estali: 300.000 euro

Herriko jolas parkeen egoera hobetzen joateko asmoa ere badu Udal Gobernuak. 2018an zehar jolas parke baten zentratuko dira, bereziki; izan ere, Espoiloiko jolas parkea hobetu eta estalkia jartzeko ia 300.000 euro inbertitzea aurreikusten da aurten.



Lizarralde, Barrenetxea, Artola, Lete eta Villa, asteleheneko agerraldian. TXOMIN MADINA

## Frankismoko testigantzak jasoko dituzte, martxoaren 12ra arte

Biktimiek udaletxera deitu behar dute (943 77 91 01); Intxorta 1937 elkarteok egingo dituzte elkarrizketak

T.M. / J.B. BERGARA

Frankismoko gizateriaren aurkako krimen guztiak ikertzeko kereila jartzea onartu zuen Bergarako udalbatzak, aho batez, 2017ko azken osoko bilkuran. Hasi dira jasotzen biktimen testigantzak, gero horiek kereila kriminalak aurkezteko Bergarako epaitegian eta Argentinan.

Frankismoaren biktima izan direnek udaletxera deitu behar dute (943 77 91 01), eta han izen-abizenak eman. Intxorta 1937 elkarteok Nerea Villa jarriko da horiekin harremanetan eta elkarrizketak udaletxean egingo dizkie, edo, nahi izanez gero, norberaren etxean: "Erosoen sentitzen diren lekuan, barruak ateratzeko ezinbestekoa da eta eroso egotea". Martxoaren 12ra arte eman ahalko dira testigantzak. "Eskertuko genizueke lehenbailehen gurekin harre-

manetan jartzea, egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko". 1936 eta 1976 urte arteko kasuak dokumentatu nahi dituzte, bereziki; lekukotasuna ematearen eta iragana gogoratzearen garrantzia azpimarratu du Villak: "Nazionalak ia zazpi hilabetez egon ziren hemen eta tarte hartan denetarik pasatu zitekeen. Bigarren eskuko testigantzak, zuzeneko biktimen senideenak, oso garrantzitsuak dira. Herriak ahalik eta ondoen jakin behar du zer gertatu zen hemen".

### Berreskuratu eta balioan jarri

Udaleko alderdi guztietako ordezkariak elkartu ziren astelehenan zerbitzuaren berri emateko. Udalak bizikidetzaren aldeko apustua egingo duela diote, eta, ildo horretatik, "memoria historikoa berreskuratu eta balioan jartzea ezinbestekotzat" dela.

## Asfaltatze lanak: lizitazioan arazoak eta eguraldia etsai

Esleipena atzeratu izanak eragin zuen lanak azaroan hastea, eta euria oztopo handia izan da

J.B. BERGARA

Aurtengo asfaltatze planean "hainbat arazo" izan direla eta, arazo horien jatorria azaldu eta hurrengo esku-hartzeak iragartzeko prentsaurrekoa egin zuten atzo, oraindik bukatzeke dagoen Mizpildi kalean. "Esleipenean arazo administratiboak izan ostean, berandu eta garai okerrean hasi ginen asfaltatze lanekin. Abuztuan aurreikusten genuen hastea eta azaroan hasi dugu. Gainera, denok dakigu nolako negua egin duen. Azken hilean ia egunero egin du euria, eta horrek atzerapen nabarmena eragin du", esan zuen Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik. Zirkulazioan eta herritarrengan eragindako eragozpenengatik barkamena eskatu zuen Arregik: "Ez da arruntena, baina gertatu da".

Herriko hamalau puntutan egingo dira. Oraindik gauzatzeko daude honako asfaltatze lan hauek: Zabalotegi, Toki-Eder eta Artzamendi; Larramendi poligonora doan bidea (San Juan auzoa); Osintxuko sarra (iturri ondoan) eta, dirurik egongo balitz, Ozaetako zubia. Asfaltatze lan horien guztien aurrekontua da 338.000 eurokoa.



**7 urteko garantzia**  
auto berri guztietan

Debagoieneko kontzesionario ofiziala  
Arrasate • San Andres Auzoa 6  
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86  
www.mugarri.eus

# Neguko Aukeren Azokak nobedadeak izango ditu

Bedelkarko kide diren hamabost komertzioren produktuak "aukera ezin hobean" izango dira salgai bihar frontoian. Neguko azokaren beheranzko joerari aurre egiteko, ekintza osagarriak antolatu dituzte; adibidez, 1.560 euroko bonuaren zozketa

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Neguko Aukeren Azoka egingo dute bihar Udal Pilotalekuan, 10:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Herriko hamabost komertziok jarriko dituzte euren produktuak salgai frontoian eta bertan izango ez diren Bedelkarko beste komertzioek euren detan eskainiko dituzte produktuak, "aukera ezin hobean". Aurtan, bi nobedade nagusi aipatu behar dira: batetik, herriko komertzioetan gastatzeko 1.560 euroko bonuaren zozketa; eta, bestetik, musika emanaldiak. Zozketan parte hartzeko -20:00 aldera egingo da- ezinbestekoa izango da frontoia bisitatzea eta bertan izena ematea.



Bedelkarko 15 komertzioren produktuak izango dira bihar frontoian. IMANOL SORIANO

## Pintxo-potea 28 tabernatan

Udalaren eta Bedelkarren arteko lankidetzaren ondorioz sortutako Bergara Bizi ekimenaren barruan kokatutako ekimena da aukeren azoka, eta, antolatuzaileen arabera, neguko azoka indarra galtzen doa saltzaileen zein erosleen partetik. "Udazkenekoak erantzun hobea izaten du, agian, eskaintzak kalera ateratzen direlako. Horregatik, aurtengo neguko azokarako ekitaldi osagarriak prestatu ditugu, erakargarriago izateko", dio Udaleko Enplegu eta Gara-

penerako teknikari Marije Unamunok. Ekitaldi osagarri horien barruan kokatu behar dira zozketa bera -kanpaina berezia egin dute herriko komertzio bakoitzak ekarpen ekonomikoa egiteko- eta Bergarako Musika Eskolako Big Band taldearen (12:00), Bergarako Musika Eskolako Combo taldearen (18:00etan) eta Zumarragako Secundino Esnaola Musika Eskolako taldearen kontzertuak. Horrez gain, eta berrikuntza ez bada ere, herriko 28 tabernak pintxo-potea egingo dute bihar.

## "Herrian erosi, denok irabazi"

Udaleko Enplegu eta Garapen Sailak nabarmendu duenez, herriarrek aintzat hartu beharko lukete denda txikiek aurrera jarraitzeko egiten duten esfortzua. "Merkataritza sektoreak herriaren egoera sozioekonomikoan duen eraginaren garrantzia kontuan hartu behar dugu. Herrian enplegua sortzea, kalitatezko produktuak eskura izatea, hurbiltasuna, erraztasunak, konpromisoa... Horrenbestez, Bergaran bizi, herrian erosi, denok irabazi".



NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO

## Txorimaloaren beste arrazoiak

Urteak dira Jardunen bitartez herriko haur, gazte zein helduek egiten dituzten txorimaloak erakusgai izaten ditugula kalean. Tradizio bilakatu da. Aurtan, 24. edizioa jarriko da martxan. Euskal kulturaren parte da, eta, dakigun bezala, baratzeetan edo soroetan txoriak uxatzeko jartzen da, landatutako haziak edota fruituak txoriek ez jateko.

Kulturari, kuadrillen edo lagun taldeen arteko harremanei ere erreparatu behar zaie. Orduak eta orduak lagun artean edo kuadrillan txorimaloa egiteko. Txoko preziatuenak etxeak eta garajeak izaten dira, eta, txorimaloarekin batera, kartulina zuri baten, talde bakoitzak asmatu duen euskararen inguruko esaldi edo bertso txukun bat eramaten du. Euskal kulturaren parte delako, lagun artean momentu atseginak pasatzeko aukera ematen duelako, esperientzia berriak bizitzen direlako, euskara maite dugulako... horrelako ekintzekin jarraituko dugu. Etorkizunean, kuadrilla ezberdinek egindakoaz oroitzapen politik izaten dituztela entzuna izan da. Oroitzapen horiek denok izan ditzazuen, txorimaloa egitera animatzen zaituztet.

## Badator Tapoi Fest: liburu aurkezpena eta hardcorea zuzenean

Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak, mesedez* saiotik eratorritako Tapoi Fest ekimenak hartuko du gaztetxea datozen bi asteburuetan. Gaur, Angiolillo liburutegiaren laguntzaz antolatuta, *A los pies del caballo* liburua aurkeztuko du Justo Arriola egileak (19:00). Zuzeneko musika emanaldiak, baina, hurrengo asteburuan izango dira: hilaren 23an, Hardflip, Norkzer?!, Take Warning taldeek eta DJ Hard of Beats-ek joko dute (22:00) -sarrera hiru euro da-; eta hilaren 24an, Hertsura eta Uther (19:00), eta Blood Brothers, Ansia, Paniko, Holy Nuns eta DJ Romano (22:30) igoko dira Kartzela Zaharreko agertokira -sarrera bost euro-.

## Euskara ikasteko eta ikasketak osagarriak euskaraz egiteko

Hiru diru-laguntza mota daudela jakinarazi du Udaleko Euskara Zerbitzuak: udal euskaltegitik kanpo euskara ikasten duten bergararrentzako diru-laguntza -Bergarako euskaltegian ikasten dutenendako laguntzak euskaltegitik bertatik ematen dira-; Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen duten bergararrendako laguntza; eta UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen ekimenetan parte hartzen dutenendako laguntza.

Ikasturte honetan eta 2018ko udan egindako ikastaroengatik laguntza eskatu ahaliko da irailaren 15era arte; argibide gehiagorako: 943 77 91 66 edo [euskara@bergara.eus](mailto:euskara@bergara.eus).



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

**TXIPI**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



Yves Roos eta Tania Meabe, Harrizuri klinikan.

# Etengabe ikasten, zerbitzu onena emateko

**YVES ROOS ETA TANIA MEABE HARRIZURI HORTZ KLINIKA**

Bergarako Ibargarai hiribidean dagoen klinikan etengabe dabilta ikasten, "bezeroei punta-puntako irtenbideak eskaintzeko"

Bergarako Harrizuri Hortz Klinikan etengabeko ikasketa prozesuaren aldeko apustua egiten dabilta –Ibargarai hiribidea 21, behea–.

**Yves, Harrizuri klinikan non jartzen duzue indarra?**

Gure helburua bezeroei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea

da, ahalik eta konponbide onenak proposatzea. Bezeroak artatzen ditugu etengabe pentsatuz guk ze zerbitzu gurako genukeen guretako. Ahalegin berezia jartzen dugu gure tratamenduak inbaditzaileak izan ez daitezen, ahalik eta zehatzek izan daitezen, eta bezeroa-

rendako erosoan. Horretarako, Harrizuri azken teknologiarekin egiten dugu lan, eta odontologiako azken aurrerapenak eta nobedadeak gertutik jarraitzen ditugu. Honek eskatzen duena da, batetik, makinerian inbertitzen ibiltzea. Baina ez hori bakarrik, eten-

gabeko ikasketa prozesuan sinisten dugu, eta punta-puntako kurtso eta kongresuetara joaten gara.

**Tania da horren adibide, ezta?**

Halaxe da. Azken bi urteotan Tania Bilbora joan-etorrian ibili da, ortodontziako graduondoko ikasketak egiten. Hala, arlo horretako tratamenduetan dauden azken aurrerapenak bertatik bertara ikusi eta barneratu ditu. Eta ordu asko eman ditu arlo horretan dauden puntako espezialistekin lanean.

**Moskun eta Madrilen egon berri zarete. Azaldu bertan egin duzuen.**

Moskun oso gauza berezia egin ahal izan nuen, Buchanan doktorearekin egun oso bat pasa ahal izan nuen. Endodontziaren arloan aurrerapen galantak egin ditu doktore horrek, eta gainontzekoendako erreferentea da. Doktore onenaren eskutik ikasi gura nuen, eta banekien Moskuraino joatea mereziko zuela. Madrilen, berriz, Biomet 3i kongresua egin zuten, eta, bertan landutako gaien artean, hezurren birsortzeen gaineko kurtso batean izan ginen. Aukera hura baliatu nuen ebakuntzetan gehiago trebatzeko. Badira kasu batzuk non inplanteak egiteko oso hezur txikia izaten den. Zailtasun handiko inplanteak dira horiek, eta arlo horretan trebatu nintzen. Bada, arlo horretan gehiago ikasteko, aurtun, Londresera joateko as-

moa dugu, Queen Mary's Unibertsitatera.

**Horren urrun joan gabe, Donostiako ITI ekimenaren barruan zaudete.**

Halaxe da. ITI barruan (International Team Of Implantologists) esku artean dugun proiektu lokal batekin oso motibatuta nabil. ITIko historian, lehenengoz, Gipuzkoako dentista eta zirujauak aldiro batuko gara. Gure esperientzia elkarbanatuko dugu horrela, elkarrengandik ikasteko aukera izango dugu eta gure arloetako hainbat espezialista ekarri ahal izango ditugu Donostiara, berbaldiak eta kurtsoak emateko. Ederra izan behar du; izan ere, inguruko profesionalak batu ahal izango gara, bertako bezeroek dituzten beharrak zeintzuk diren ikusteko eta horiek lantzeko.

**Amaitzeko, zelako zerbitzua eskaintzen duzue Harrizuri?**

Harrizuri hortzetako zerbitzu osoa eskaintzen dugu, baina garbi izanda gure helburua bezeroa eroso sentiaraztea dela. Puntako teknologia dugu, eta leku paregabean gaude.

**"HORTZETAKO ZERBITZU OSOA ESKAINTZEN DUGU; BEZEROA EROSO EGOTEA GURA DUGU"**

HARRI ZURI  
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Implantologia
- Periodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia
- Hortz-protesiak
- Ortodontzia
- Hortz-estetika
- 3D TAC

Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiralean:  
09:00 - 13:00 / 14:00 - 19:00  
Asteartetan eta ostegunetan:  
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00

Ibargarai 21, behea - BERGARA  
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72  
E-posta: yvesroos@harrizuri.com  
Web gunea: www.harrizuri.com



# Bustiak bezain koloretsuak

Euriak Aratusteetan eragin zuzena izan duen arren –ikastetxe guztien kalejirak bertan behera geratu ziren–, kolorea eta irudimena ez da falta izan bergararren partetik; aurten 30 urte egin dituen kontzertuko hiru zuzendariek omenaldi beroa jaso zuten

## Jokin Bereziartua BERGARA

Urteko egunik irudimentsuenetan eta koloretsuenetan euria protagonista izan da, bereziki, aurten. Ikastetxeek egin ohi dituzten kalejirak, esaterako, bertan behera geratu ziren; egubakoitzean egin zuten ospakizuna Aranzadin eta Mariaren Lagundian, eta euriagatik ikastetxe barruan geratu ziren. San Martin eskolakoek Aratustemartitzena ospatu zuten eta orduan ere eguraldiak ez zuen batere lagundu.

## Zuzendari aldaketaren kontzertua

Bergaran ez dago Inauteriak ulertzerik Aratusteetako kontzertu barik. 1989an egin zuten lehen aldiz, eta, 30. urteurrena izatez gain, aldaketaren urtea ere izan da aurtengoa; orain arte zuzendari lanetan ibili diren Alfredo Gonzalez Chirlaquek, Javi Burgosek eta Manu Diazek ardura nagusiak utzi, eta laguntzaile moduan jarraituko dute datorren urteetan. Omenaldi beroa jaso zuten ikuskizunaren bukaeran. Bergarako Musika Bandaz gain,

Orkestrak, Aritzeta abesbatzak, Kulunka dantza taldeak eta herriko beste hainbat artistak ere hartu zuten parte Bergaran lehen aldiz 2012an estreinatu zen musikalean. Hainbat aldaketa egin zizkioten, eta, amaierako txalo zaparrada aintzat hartuta, publikoaren gustukoa izan zen. Aratuste-zapaturako mozorro bazkarian, eguraldiak ez lagundu arren, 105 lagun elkartu ziren: "Iaz baino zertxobait gehiago. Oso giro ona egon zen", adierazi dute Kultura Zerbitzuko arduradunek.



Ai Amatxo 3.0 ikuskizunaren osteko talde argazkia, frontoiko harmailetan.



Aranzadiko gimnasioan egindako mozorro bazkarian 105 lagun elkartu ziren.



Aranzadi Ikastolan euskal jatorriko Aratusteak ospatu zituzten egubakoitzean.



Mariaren Lagundikoak ikastetxe barruan jira eta bira aritu ziren, gurasoen aurrean.



Chirlaquek garaikurra jaso zuen.



Ipuinak izan ziren San Martin eskolako gaia: irudian, Alizia herrialde miresgarrian.



Urpekariak San Martin plazan, zapatuan.



Pirata kuadrilla, itsasontziarekin. ARGAZKIAK: I. SORIANO, I. OÑATE, A. AGIRIANO ETA SAN MARTIN ESKOLA

# Arriskutik ihes egin nahi duenaren idatzia, saritua

Maitasunari askotariko ikuspuntuetatik idatzi diote Amodiozko Gutunen 26. Lehiaketan; eguaztenean Irizar jauregian egin zuten sari banaketa, biolin doinuek girotuta. Karmele Uribesalgok jaso zuen bergarar onenaren saria

## Arantzazu Ezkibel BERGARA

Eguaztenean, San Valentín eguinean, Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa egin zuten.

Biolin doinuek girotuta, sari-tuek gutunak irakurri zituzten. Lehenengo, esaldi onena saritu zuten; Gonzalo Nunes bergararrarena izan zen -100 euro-: *Ekaitz artean zure begiradarekin amesten dut. Begiak ixten ditudanean, isiltasunaren erdian, zu.*

## Bergarar onena

Karmele Uribesalgok jaso zuen bergarar onenaren saria -150 euro-. "Arriskutik ihes egin nahian dabilen eta babesik aurkitzen ez duen batek idatzitako gutuna", horrela azaldu zuen Uribesalgok bere lana.

Bigarren saria bi lagunentzako banatu zuten: Goiatz Labandibar oiartzuarra -150 euro- eta Nerea Eizagirre zumaiarra -150 euro- izan ziren sarituak. Gazte saria Zuriñe Etxeberriak eroan zuen -150 euro-, baina



Eizagirre, Nunes, Uribesalgo, Ugarte eta Labandibar, sari banaketan. JOSU BILBAO

## AURTENGO LEHIAKETAN 79 GUTUN JASO DITUZTE; HAMABOST, HERRIKOAK

Etxeberriak ez zuen sari banaketa ekitaldian izaterik egon. Ipintza Institutuko eta Aranzadi Ikastolako lau ikasleek osatu dute epaimahai gaztea -26 urte-tik beherakoen gutunak irakurri dituzte, eta baita esaldiak ere-. Azkenik, Itziar Ugarte oñatiarrak jaso zuen sari nagusia -500 euro-. Amamari idatzitako gutuna irakurri zuen Ugartek. Oñatiarrak dio "amamaren belaunaldiari" keinua egin diola gutunean.

**26. lehiaketa izan da aurtengoa** Jardun Euskara elkarteak antolatu du lehiaketa, aurten, 26. aldiz. Helburua euskaraz idaztera bultzatzea da, bai batuan eta baita norberaren euskalkian ere. Aurtengo aldian, 79 gutun jaso dituzte; horietatik 25 gutun Debagoienetik, eta hamabost Bergaratik. Jaso dituzten gutunen %54 emakumezkoek idatzi dituzte eta %46, gizonezkoek.

Esaldien kasuan, aurtengoa lehiaketa egin duten bigarren aldia izan da, eta gorakada nabarmena izan du. 176 esaldi edo mezu jaso dituzte. Jarduneko kideek lehiaketaren inguruko balorazio positiboa egin dute.



JOSU BILBAO

pertsona konkretu bati idatzi dion gutuna, atzean utzi duen guztiari baizik. Utzi duen jendeari eta lekuari.

### Zer izan da zailena?

Lagunekin berba egin, eta gaia polita iruditu zitzaidan. Ez da samurra izan, ez dakidalako zer den hori bizi izatea. Pentsatu behar izan nuen zer sentitzen duten errefuxiatuek, baina, ez dakit ziur hori den sentitzen dutena. Euren azalean jartzen saiatu naiz.

## "Atzean utzitakoari idatzitakoa da"

### KARMELE URIBESALGO BERGARAR ONENA

Kazetaritza ikasketak egiten diharduen Karmele Uribesalgo bergararrak jaso du herritarren saria.

### Zorionak!

Hau da saria irabazten dudana lehenengo aldian, baina aurretik ere parte hartu izan dut. Ez nuen espero eta pozik nago.

### Zeri buruz idatzi duzu, eta nork idatzi dio nori?

Nahi nuen Europara etorri den errefuxiatu batek atzean laga duenari buruz idaztea, ez da

## Euskal kantutegiari errepassoa egingo diote Seminarixoan

Tartean Teatroa taldeak 'Ez dok hiru' emanaldia eskainiko du; Patxo Telleriak idatzi du laneko testua

### A.E. BERGARA

Zenbat euskal kantu ezagutzen dituzu, zahar edo berri? Galdera horretatik abiatuta, euskal musikaren imajinario kolektiboan murgilduko dira Tartean Teatroko kideak. *Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa* emanaldia eskainiko dute Seminarixoan.

Publiko helduari zuzendutako emanaldia izango da, umorezkoa, eta euskaraz. Euskal Herriko imajinario musikaren errepasso ironikoa, absurdoa eta dibertigarria eskainiko dute.

Testua Patxo Telleriak sortu du, eta zuzenean antzeztuko dute Telleriak berak eta Mikel Martinezek; eta, beste hiru musikari-aktoreekin partekatuko dute taula. Gainera, zuzeneko musikarekin indartuko dute eszena.

Ezagutzen ditugun euskal kantak, bai zaharrak eta baita berriak ere, uste duguna baino gehiago direla diote Tartean Teatroko kideek. Ikuskizunerako, adibidez, 200 abesti aukeratu dituzte. Emanaldia Seminarixoan izango da, bihar, zapatua, 19:00etan, 8 euroren truke.

## Kantariko entseguak egingo dituzte aste bukaeran Zabalotegin

Kantariko seigarren edizioako entseguak egingo dituzte zapatuan -goiz eta arratsalde- eta domekan -goiza-. Grabazioak hurrengo aste bukaeran izango dira; aurten, lehenengoz, Seminarixoan. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako 62 taldek eman dute izena Kantarin. Emisioak apirilaren 21etik aurrera izango dira -zapaturo bi talde berri-.

## Lokatzak elkarte gastronomikoa zabaldu nahi du Bolu auzoan

Lokatzak ziklismo eskolako egitasmo berria du esku artean. Bolu auzoan, frontoiaren ondoan, elkarte gastronomikoa zabaltzekoak dira. Horretarako, bazkide bila dabilta; egitasmoak oso harrera ona izan du herritarren artean. Bazkide izateko leku gutxi batzuk besterik ez da geratzen. Interesa duenak elkar-tearekin harremanetan jarri beharko du ondoko helbidean: [lokatzak\\_ze@hotmail.com](mailto:lokatzak_ze@hotmail.com). Elkartean sartu nahi duenak ez du sarrera kuotarik ordaindu beharrik izango; hileko kuota, aldiz, 30 euro izango da. Igogailua dago elkar-tearen ateraino bertaraino; eta umeendako "leku aproposa" da jolaserako.

## Petti eta Bidelapurak taldeen emanaldia bihar gaztetxean

Bidelapurak talde gasteiztar-bergararrak emanaldia eskainiko du gaztetxean bihar. *Gorriak eta bi* diskoa aurkeztuko dute, hamar abestiz osatutako lana. Jatorriz bikotea zen taldea zazpikote bilakatu da. Bihar, denak igoko dira taula gainera. Bidelapurak taldearen aurretik, Petti beratarrak eskainiko du emanaldia -22:30ean-.

## Laugarren jaialdian bailarako Ander Biainek debutatuko du

Martitzenean, hilaren 20an, Sorluze lau t'erdiko pilota txapelketako laugarren jaialdia jokatuko dute, 19:30ean hasita. Promes mailan, Eigurenek eta Biainek jokatuko dute -azken horrek lesionatuta dagoen Murraren lekua beteko du-; nagusien mailan, Zubiriak eta Elolak neurtuko dituzten indarrak.

Aste honetako emaitzak izan dira: promesetan, Expositok 22-11 irabazi zion Seini. Expositok indar handiagoa duela erakutsi zuen, eta samur irabazi zuen. Nagusien mailan, berriz, partidu polita jokatu zuten: Salaberriak 22-21 irabazi zion Lerenari. Teknika abiadurari nagusitu zitzaion.

# "Herritarrek lehenetsiko dituzte planaren ildoak"

**XABIER LUQUE** AZTIKER ENPRESAKO TEKNIKARIA

Antzuolako Plan Estrategikoa (2018-2030) herritarren aurrean aurkeztu zuten atzo; orain, planaren ildo nagusiak erabakitzeke, saio irekiak egingo dituzte antzuolarrekin

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Etorkizuneko Antzuola irudikatuko duen plan estrategikoaren nondik norakoak aurkeztu eta azaldu berri diete herritarrei. Aztiker enpresak gidatuko du Antzuolako Plan Estrategikoa (2018-2030). Xabier Luque teknikariak herritarren parte-hartzearen garrantziaz jardun du GOIENArekin asteon.

**Prozesu parte-hartzaile horren helburua zein da?**

Herritarrek nolako Antzuola gura duten erabakitzea eta adostea da helburua. Prozesu hau Udalak eta ordezkari politikoek bultzatuta sortu da. Izan ere, hainbat eztabaidatan ikusten dute denen onerako eta gatazka politikoak ekiditeko, beharrezkoa dela etorkizunari begira norabide bat markatzea. Horretarako, ikusten dute modu bakar-dela, hain zuzen ere, Plan Estrategikoa herritarrekin sortzea. Herritarrei entzun eta erabakitzen duten norabidea jarraitzea, alegia.

**Jarraipen Batzordea osatu dute politikariek. Zein eginkizun dute?**

Erraz esaten da herritarrek erabaki behar dutela, baina prozesu hori antolatzeak zailtasunak sortzen ditu. Horregatik, prozesu honetan Jarraipen Batzordeak prozesu osoa gainbegiratu behar du eta prozesuaren errepaso egingo du. Ez du markatuko nondik nora joan behar den.

**Talde eragileak ere eginkizun garrantzitsua dauka.**

Talde anitza osatzen duten herritarrek dira. Prozesuari dagokion erabakiak hartu eta eztabaidatuko dituzte, inongo interes politikorik gabe.

**Saio irekiak egingo dituzte orain.**

Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute martxoan, apirillean eta maiatzean egingo diren saioetan. Martxoan, guk aurrez egin dugun Antzuolaren gaineko diagnosis osatuko dugu. Hutsuneak identifikatuko ditu-



Xabier Luque, Aztiker enpresako teknikaria. AZTIKER

## "HERRITARREK ETXETZ BANATUKO ZAIEN EKINTZEN ZERREDA BOZKATU BEHARKO DUTE"

gu herritarren ezaguerei esker eta lan ildo nagusiak identifikatuko ditugu. Apirillean eta maiatzean, ildo nagusiak garatu eta sakonduko ditugu. Ekintzak proposatu eta baloratuko dira.

**Eta ekainean herritarrek bozkatu egingo dituzte ekintza horiek?**

Lehentasuna duten ekintzak zerrendatzeko, bozketa egingo da. Etxez etxe banatuko da zerrenda eta herritarrek euren garrantzitsuenak direnak markatu beharko dituzte.

**Irailean bukatuko da parte-hartze prozesua, ezta?**

Bai. Udalak aurrekontuen aurreikuspena egingo du eta herritarrek bozketan lehenetsi dituzten ekintzak aintzat hartuz idatziko dute Antzuolako Plan Estrategikoa (2018-2030).

## Webgunea eta logoa erakutsi dituzte

Herritarrei egindako aurkezpenaren, [www.antzuolaeitten.com](http://www.antzuolaeitten.com) webgunea eta eragile taldeek aukeratutako logoa ere aurkeztu zuten Aztikerrek. "Bileretan, Antzuolako ezaugarriak irten dira: historia, euskara, kolore berdea, natura... Irudia, logoa eta webgunea ideia horietan oinarritu dira. Herria den artean *eitten*, egiten ari garela esan nahi du logoak", azaldu du Xabier Luquek.



Egitasmoaren logoa. AZTIKER

## Eskolako obrak eta Sahararen gaineko mozioa aztergai

Eskolako obrak udan hasiko dira eta Udal Gobernuak jarraipena egingo die, nola eragingo duten jakiteko

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Asteon egindako osoko bilkuran, eskola handitzeko obren arau subsidiarioaren aldaketak behin-behineko onarpena izan du. Obrak udan hasiko dira. "Oraindik ez dakigu data zehatza, baina udan hasiko dira eskola handitzeko lanak. Obra nola joango den azaltzen duen proiektua iritsi da eta orain harremanetan jarri gara horren gainean berba egiteko Hezkuntza Saileko arkitektoekin. Detaileak jakiteko batuko gara: nondik hasiko diren lanak, nola eragingo dioten ikasleei, aparkalekuei... Pausokarekin eta Haur Eskolako arduradunekin ere elkartuko gara", dio Antzuolako alkateak.

**Sahararen aldeko mozioa**

Otsailaren 27an beteko dira 42 urte Saharako estatuaren errepublika izendatu zela. "Mozioa

Saharak bizi duen egoera gogoratzeke eta salatzeke aurkeztu dugu. Bi ekintza egingo dira: hilaren 24tik 27ra udaletxean Sahararen aldeko bandera jarriko dugu eta 27an udaletxe aurrean kontzentrazioa egingo dugu". Aho batez izan da mozioa onartua. Gainera, otsailaren 24an, Sagiri elkarteak festa egingo du. "Haima, umeendako jolasak, pintxoak... izango dira".

**Gueñes-Itxaso auzia berbagai**

Osoko bilkuraren ostean, alkateak Gueñes-Itxaso auziaren gaineko argibideak eman zituen. Izan ere, Gueñes-Itsaso linearen kontrako mozioa onartu zuen Antzuolak. "Proiektu horri orain etorri zaio baimen administratiboa, horregatik orain da unea epaitegietara joateko". Gaia martxoko osoko bilkurara eroango du Udal Gobernuak.

## Hezkuntza ardatz, solasaldi irekia egingo dute bihar

Antzuolako EH Bilduk, ongizatea helburu, hezkuntzaren gaia landuko du modu sakonagoan eta herritarrekin elkartuta. Solasaldia herritar orori dago zabalik eta otsailaren 17an izango da, zapatua, 10:00etan hasita, Torresoroa aretoan.

Antzuolako Udalak, konstruktibismoaren heziketa metodoa aintzat hartuta, herritarreko inte-

resgarriak izan daitezkeen ikuspegi eta lerro ezberdinak jorritu nahi ditu modu horretan.

Hauek izango dira zapatu goizean jardunaldian parte hartuko duten solaskideak: Mikel Bargiela -Antzuolako Hezkuntza zinegotzia-; Xabier Arregi -Antzuolako eskolako eredu pedagogikoko doktore-tesiarene egilea eta MUko irakaslea-, Rebeca Ubera -EH Bilduko legebiltzarkidea eta hezkuntza arduraduna- eta Xabier Sarasua -Hik Hasiko kidea-.

## OHARRAK

### A8M lasterketa

Domekan, otsailak 18, egingo da seigarren Antzuolako 8 Milak lasterketa, 10:30ean hasita.

### Hirugarren derbia

Hirugarren derbia jarraian jokatuko du AKEko Erregional Preferente mailako taldeak Eztala zelaian, etxean. Partidua zapatuan 16:00etan hasiko da.

### 'Leteaz kantuberbetan' emanaldia

Jon Sarasuak Xabier Leteren kantu ibilbideari buruzko interpretazio pertsonala egingo du otsailaren 24an, zapatua, 19:30ean hasita. Sarrera 3 euro da.

# Giro txarrari, aurpegi ona

Mozorro eta dantzekin batera, aurten, Aratusteetako protagonistetako bat izan da euria. Hala ere, giro txarrari aurre hartu, eta antzularrek aurpegiarik alaiena erakutsi diote jaialdiari. 170 lagun batu ziren domekan egin zuten bazkari herrikoian

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Euria zarra-zarra egin duen arren, umore ona eta festarako gogoaz ez dira falta izan aurten go Aratusteetan. Mozorro festak eztanda egin zuten Antzuolan egubakoitzean, eta martitzenera arte gozatu dute. Herritar oro-rendako festa egunak izan dira.

Egubakoitzean eskolako 287 haurrek kolorez jantzi zuten eskolako patioa: rockzaleak, pailazoak, superheroiak... askotariko mozerroek girotu zuten Aratusteen hasiera. Pausoka guraso taldeak, urtero legez, txokolate beroa eta torradak banatu zituen.

**Domekan, dantzak nagusi**

Dantza eginez ospatu zuten herritarrek Aratuste-domeka. Euriak, baina, egitarauan aldaketak ekarri zituen eta kalejira

bertan behera geratu zen. Hala, dantza saio nagusia eskolako patio estalian egin zuten. Euskal Herriko-eta Antzuolako-dantzak izan ziren protagonista. Besteak beste, Baztango esku dantza, arku dantza eta Antzuolako sorgin dantza izan zituzten gozagai bertaratutakoek.

**Parte-hartze ona**

Udalak eginiko balorazioan, eguraldiak ere eragina izan du. Hala ere, Kultura teknikari Jone Larrañagak balorazio ona egin du, jendearen parte-hartzea iku-

sita: "Pena da bota duen euria-gatik; aterrunerik ez da egon. Baina, eguraldia kontuan hartuta, ondo joan da. Dantzari ezin izan dute kalejira egin eta saio nagusiko dantzak patioan egin dira. Bazkaria eta desfilea pilotalekuan egin dira eta ondo atera dira; 170 lagun inguru elkartu gara festaz gozatzeko".

Aurtengo mozerro lehiaketa NBako saskibaloitaldearen mozerroak irabazi du; herriko jatetxe batean 200 euroko gastua egiteko saria jaso dute.

**NBA-KO MOZORROA IRUDIKATU DUTEN HERRITARRAK IZAN DIRA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK**



Karmen Egaña, japoniar mozerroarekin. LANDATXOPE

## Martitzenean, beteranoak

74 lagun batu ziren afari-meriendaz gozatzeko. Mozorro onena Karmen Egañarena izan zen; bigarren postua Anparito Arregiren eta Maria Luisa Jauregiren botikari mozerroarendako izan zen. Hirugarren saria Felix Alonsoren mairu mozerroak eskuratu zuen.



Eskolako umeak rockzale mozerrotuta. IMANOL SORIANO



Sorgin dantza eskolako patioan. IKER OÑATE



Pausokako gurasoak txokolatea banatzen. IMANOL SORIANO



Hezitzailea eta hartza. IKER OÑATE



Arku dantza. IKER OÑATE



Makil dantza tximinoarekin. IKER OÑATE

# Ur saneamendu lanak egiteko zain, oraindik ere

Sesto errekatik abenduan jasotako ur laginen azterketak gorotzarekin lotutako bakterioen presentzia handia baieztatu du. Saneamendu lanak egiteko duen Ura Agentziak adierazi du eguneratzeare dela ur azpiegiturak egiteko esparru akordioa

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Abenduaren 3an Sesto errekatik jasotako laginen azterketak baieztatu egin du aurretik ere jakinekoa zena. Elgetako ur zikinak bertara isurtzen dira. Elgetako estolda da. "24.000 koliforme eta 24.000 *eColi* baino gehiago ditu. Eta zapitxoak, garbiketa produktuak... Noizko Ura Agentziaren saneamendu lanak?", galdetu du Iraitz Lazkano alkateak. Hain zuzen ere, koliformeak gorotz jatorriko bakterioak dira nagusiki eta *eColi*-ak, hesteetako bakterioak. Elgetako ur zikinak Sesto errekarara isurtzen dira, oraindik ere -etxeetakoak zein industrialdekoak-.

Eusko Jaurlaritzaren ardura-pekora Ura Agentziari dagokio Elgetako ur saneamendu lanak egitea, eta jasota dago lan horiek hiru bat milioi euroko aurrekontua izango dutela. "Kezkak gaudela; izan ere, gaur egun, 1.100 biztanleko herri batek eta



Iraitz Lazkano alkatea ur zikinak Sesto errekarara isurtzen diren lekuan. LARRAITZ ZEBERIO

bere industrialdeak ez edukitzea gutxienean ur saneamendu bat lotsagarria baino gehiago da", esan du Lazkano. "Hainbat herri daude egoera txarrean, baina esango nuke Elgeta dela bakarrenetarikoa non herri guz-

tiko ur zikinak botatzen diren errekarara".

## Etengabeko eskaera Elgetatik

Lanak egiteko aurreikuspenik ere ez dagoela dio alkateak, eta behin eta berriz egin dutela ur

saneamendu lanak egiteko eskaera. "Oraingoz, jaso dugun erantzuna da exekuzioa ez litzatekeela 2021a baino lehenago hasiko, eta, betiere, aurrekontu erroa egonez gero".

Gauzak horrela, luze joko duela uste du Elgetako Udalak. "Gipuzkoako Urak-ekin elkartzen garen aldiro ateratzen dugu gaia, eta behin baino gehiagotan luzatu dugu ur saneamendu lan horiek lehenbailehen egiteko eskaera". Bien bitartean, Elgetako ur zikin guztiak Sesto errekarara isurtzen dira, eta hortik Bergarara joaten dira. "Bi ponpaketa sistema daude Elgetan: bata kiroldegiko kantxa inguruan eta bestea Elorriorako bidean. Elgetako ur zikinak Bergara aldera bidaltzen dira, Aixola urtegira ez joateko", azaldu du. "Herriguneko zati handi bateko ur zikinak eta industrialdekoak Sesto Azpi baserriaren atzeko aldean isurtzen dira errekarara. Domingo Iturbeko ur zikinak, berriz, beheaxeagotik sartzen dira Sesto errekarara.

## Hitzarmen berria, eguneratzearekin

Ura Agentziak jakinarazi berri duenez, eguneratzearekin Gipuzkoako Foru Aldundiarekin konprometitutako ur azpiegiturak egiteko esparru akordioa. "Epe laburrean", esan dute. Eta gaineratu dute Elgetako saneamendu lanak horren barruan egongo direla. Saneamenduaren kudeaketa udal eskumenekoa

dela eta aipatutako hitzarmen horren bitartez ur azpiegiturak egiten lagunduko dutela adierazi dute. "Oraindik ezin dugu zehaztu, baina, zein epetan egingo diren. Hori da, oraingoz, gaiari buruz esan dezakeguna".

2007ko azaroaren 23koa da indarrean dagoen hitzarmena. "Bete gabe dagoela begi bistakoa da", esan du alkateak.

## Zikinkeria eta kiratsa

Isurketa puntu nagusitik oso gertu dago Sesto Azpi baserria. Urrunxeago dago Sesto Gain. Sesto Azpin ez da gaur egun inor bizi, baina ganadua dute bertan eta egunero-egunero joaten dira etxeetara. "Urte askoan dago hori horrela. Batean baino gehiagotan izan dira ikusten eta esan dutena da 2020ra arte ez ingo dutela konpondu", azaldu du Sesto Azpiko Mertxe Elorriagak.

Zikinkeria eta usaina nabarmendu ditu Elorriagak; batez ere, usaina. "Siku badago, beti dago usaina hemen, baina, batez ere, 18:00 aldera. Zerbait zabalitzen da nonbait, eta, orduan, kirats handiagoa etortzen da", azaldu du.

## URA AGENTZIAK DIO EGUNERATZEAREKIN DELA HITZARMENA ETA UDALAK, BERRIZ, LUZE JOKO DUELA KONTUAK

## Azaletik kontatutako ipuin erotikoak gaur liburutegian

'Biblibero' ekimenaren baitan, ordubeteko saioa egingo du Ines Bengoa lizaratarrak, 22:30ean

**L.Z.** ELGETA

Umoretik eta azaletik kontatzea gustatzen zaio Ines Bengoari, eta, batez ere, ipuin erotikoak badira. Diskurso landua du gaiaren inguruan eta argi dio emakume ikuspuntutik kontatzea gustatzen zaiola. "Ez dira guztiak emakumezkoen istorioak. Gizonzkoak ere badaude, baina emakumea naiz eta nire ikuspuntua emakumearena da. Beraz, feminismoa hor dago. Harro esaten dut, gainera", azaltzen du. Gaur izango da lehenengo aldiz Elgetan, eta sei istorio

kontatzera dator. "Sexuarekin badago imajinario handi bat. Ahozkotasunak ere indar handia du. Harrigarria da hitzak abiapuntu hartuta nork bere buruan egin ditzakeen irudikapenak. Kontatuko ditudan ipuinak opari bat dira. Hitzek eskainitako opariak. Entzuleei esango nieke opari bat jasotzera etortzeko".

## Erotismoa eta emakumea

Gai horretan topiko asko dardela uste du Bengoak. "Publizitatetik edo zinematik datozen



Ines Bengoak kontatuko ditu ipuin erotikoak, gaur, 22:30ean. SONIA SENOSIAIN

aurreiritziak dira. Istorioak zureganatzen dituzunean, ordea, konturatzen zara estereotipo horiek beste batzuk eraikiak direla. Asmatuak. Ikusiko dugu historian zehar gizarteak zein lekutan jarri dituen emakumeak

erotismoaren eta sexualitatearen gai honetan, eta zein garapen gertatu den. Leku batzuetan aurrera egin da, nahiz eta bide luzea gelditzen den egiteko. Beste leku batzuetan, ordea, atzera egin dute".

## Elgetako emakumeak protagonista izango dituen erakusketa

Badator Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta ekintza sorta prestatzen hasiak dira herrian. Zortzi lagun elkartu ziren aurreko astean egindako batzar irekian, eta hurrengo asteetan egunetan elkartuko dira, 19:00etan, udaletxean. Amantalak ikur hartuta, hainbat ekintza ari dira forma hartzen. "Prestatzen ari garen ekintzen artean, erakusketa bat egin gura dugu, non Elgetako emakumeak eta haien zaletasunak edo afizioak izango diren protagonista", jakinarazi dute. Erakusketa horretan parte hartzeko edo proposamenak egiteko, Udal Gizarte Zerbitzura deitu behar da (943 76 80 22).



# Elurra kalean eta mozorroa soinean

Aukeraketa egin, jantzi eta ordu batzuk beste norbaiten paperean sartzeko aukera eman dute, berriz ere, Inauteriek. Piratak, kolore eta mota askotariko superheroiak, pailazoak... denetarik izan zen barikuan Elgetan eta nork bere onena eman zuen

L.Z. ELGETA

Urtean birritan mozorrotzen dira elgetarrak, eta horietako bat Inauteri-barikuarekin izaten da. Inauteri zuriak eta hotzak izan dituzte oraingoan herrian; izan ere, behin baino gehiagotan egin du elurra negu honetan.

Inauteri-barikuan ez zuen kalean gustura ibiltzeko girorik egin. Herri Eskolako neska-mutikoez, azkenean, ikastetxeko ganbaran egin zuten dantza saioa eta jende pilaketak saihesteko bi zatitan antolatu zuten emanaldia irakasleek. Adinaren arabera antolatuta, hainbat dantza egin zituzten umeez, kameraz eta grabaketa gailuz



Hiru punk Elgetako Inauterietan. L.Z.

hornitutako gurasoen eta senitartekoen aurrean. Eskolatik frontoira bideratu zen jaia. Tenperatu hotza tarteko, estimazio handia izan zuen Maala guraso elkarteak banatutako txokolate beroak. Ondoren egindako disko-festa saioan ere gustura ibili ziren umeez. Gauarekin batera hasi ziren bestelako mozorroak irteten. Handiagoak eta parrandazaleagoak horiek.

## Erretiratuek, txokolate-jana

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, 35 bat erretiratu elkartu ziren martitzenean Ozkarbi elkartearen. Txokolate-jana eta bingoa egin zituzten —ikus 44. orria—.



Herri Eskolako neska-mutikoen dantza saioa eskolako ganbaran. L.Z.



Gurasoak txokolate beroa banatzen. L.Z.



Ehiztari bi. L.Z.



Neska-mutikoak frontoian egindako disko festa saioan. L.Z.



Elgetako pilotuak eta kopilotuak iazko autoekin. MENDI MENDIA RACING

## Elgetako pilotuen aldeko jaia egingo dute bihar herrian

Autoak plazan izango dira ikusgai 11:00etatik aurrera eta antzokian izango dira bazkaria eta kontzertua

L.Z. ELGETA

Hainbat elgetarrek dihardute auto lasterketen munduan, eta, iaz bezala, Mendi Mendia Racing jaia antolatu dute. Biharko, zapatua, iragarri dute.

Asier Unzetabarrenetxea, Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua dira auto lasterketetan ibiltzen dira elgetarrak. Inguuruan, hori bai, kopilotu lanetan eta bestelako zereginetan ibiltzen den lagun talde zabalagoa dute.

Laster emango diote hasiera denboraldi berriari, eta aurten ere Mendi Mendia Racing jaia antolatu dute bi helburu nagusirekin: gastuei aurre egiteko laguntza lortzea eta kirol hori herrian ezagutzera ematea.

## Egun osoko egitaraua

Egun osoko egitaraua prestatu dute II. Mendi Mendia Racing jairako. Tartean dira hiru autoen erakusketa plazan, 11:00etan,

triki-poteoa, 12:00etan, bazkaria antzokian, 14:00etan, eta Newroz punk oi! talde bergararraren kontzertua jarraian.

## Gogotsu denboraldi berriko

Mikel Beretxinagak Gabiriako ralliesprintean emango dio hasiera denboraldiari, martxoan. Unzetabarrenetxeak eta Sarasuak, aldiz, Lea Artibaiko rallya aukeratu dute hasteko. Kategoria ezberdinetan arituko dira aurten hirurak. Beretxinagak R4 kategorian jarraituko du BMW e36 325 autoarekin. Unzetabarrenetxeak eta Sarasuak, berriz, autoak aldatu dituzte. Lehenengoa BMW M3 auto batekin lehiatuko da R5 kategorian eta bigarrena N1 kategorian izango da Citroen Saxo VTS batekin. Kopilotu izango dituzte, hurrenez hurren, Omer Garcia, Ibon Unzetabarrenetxea eta Koldo Olaortua.

## Diru laguntzak daude IBl eta kontribuzioa ordaintzeko

Hilaren 28an amaitzen da diru laguntzak eskatzeko epea. "Iaz, lagun bakar batek egin zuen eskaera eta laguntza horiek jasotzeko eskatzen diren sarrera ekonomikoak ez dira hain txikiak", esan du Udalak. Horren harira, laguntzak urtero berritu behar direla ohartarazi du. Informazio gehiagorako udaletxera jo behar da.

## OHARRAK

### Gaztetxea: batzarra

Itxierarekin lotutako batzarra, gaur, 18:30ean, gaztetxean.

### Sat sindikatua

Olio salmenta martxan da. Eskaerak egiteko: [firizar@hotmail.com](mailto:firizar@hotmail.com).

### Ipuinak liburutegian

Gaur, 16:55ean, 5 urtetik gorakoendako; eta 17:40an, 2 urtetik gorakoendako.

# Burgosera eramango dute Arrikruzteko lehoia

Burgosko giza eboluzioaren museora eramango dute, martxoan, duela 52 urte Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuelek Arrikruzten aurkitu zuten lehoiaren hezurdura. Handik San Telmo museora eramango dute eta han egongo da gero ikusgai

## Oihana Elortza OÑATI

Aldundiak Irunen duen ondare arkeologikoaren gordailuan dago egun Arrikruzteko lehoiaren hezurdura, eta martxoan Burgosko giza eboluzioaren museora eramango dute. "Atapuerca-ko Eudall Carbonellek eta Juan Mari Arsuagak agertu dute interesa. Iberiar penintsulako bakarria eta Europako bakarrena da lehoi hau; hezurdura osoaren %97 gordetzen da. Gainera, baditu berezitasun batzuk. Adibidez, saihesten bat apurtuta eta berriz osatuta nola duen ikusten da. Museoa bera handia da. Kenian eta beste lurralde batzuetan topatutako lehen hominoideen hezurdurak daude, adibidez. Azalpen askorekin eta ondo babestuta daude", azaldu du Iñaki Zubeldiak, duela 52 urte hezurdura aurkitu zuenak. Arrikruzteko lehoiaren inguruko bideoa eta azalpenak ere prestatu dituzte ikusgai egongo den bitartean.

Kaxa berezietan eramango dute hezurdura Burgosera. "Azpian tela berezia jarrita duten kaxetan eramango dute. Baita Larrariotz galerian aurkitu zuten beste lehoi baten femurra ere", gaineratu du Zubeldiak.

## 400 kilo

Atapuerca-ko aurkikuntzengatik, batik bat, Burgosko museo hori oso ospetsua da mundu osoan eta nazioarteko aditu asko joaten dira hara. Arrikruzteko lehoia han ikusgai egoteak bere berri munduan zehar zabaltzeko balio izatea espero du Zubeldiak.

Denbora batez egongo da Burgos hiruko metro eta erdi luze eta 400 kilo inguru zituen Arrikruzteko *Panthera spelaea*, gaur egun Afrikan dauden lehoiak baino handiagoa. Handik Donostiako San Telmo museora eramango dute eta denbora batez ikusgai egon ostean gordailura eramango dute berriz.



Arrikruzteko lehoiaren hezurdura Aldundiko gordailuan 2017an. M.A.

## "Hiru egun behar izan genituen hezurdura osoa handik ateratzeko"

IÑAKI ZUBELDIA IDAZLEA

1966an (duela 52 urte) Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok aurkitu zuten animalien hezurdura osoa Arrikruzten.

**Aurkitu zenutenean, pentsatu zenuten hain garrantzitsua izango zela?**

Ez, ez. Hasieran, gainera, hartz baten hezurdura zela pentsatu genuen. Handik egun batzuetara berriz sartu ginen, solte zuen hagin bat hartu eta Jesus Altunari bidali genion. Hark esan zigun lehoi batena zela.

**Nola atera zenuten?**

Isilik mantendu genuen hasieran, eta, bitartean, gune horretatik erraz irteteko bidea bilatzen aritu ginen. Hiru egun egin genituen hezurdura osoa ateratzen. Hezur bakoitza plastikozko poltsa txikietan sartzen zuen Altunak, identifikatuta.



O.E.

**Arrikruzten lehoiaren erreplika dago. Baina salbatu zintuzten adarra originala da, ezta?**

Bai. Hamabi ordu egin genituen galduta Manuel Marotok eta biok. Gaizki pasa genuen: hotza, beldurra, gosea, haluzinazioak... Gure bila etorri zirenean, Gomiztegiko idi baten adarrarekin egindako adarra jo zuten Nazabal lagunak eta hari esker bilatu gintuzten. Adar horri marrazkiak egin zizkieten Paraguain eta Arrikruzten dago.

## Hegazti sarraskijaleei buruzkoak dira Ingurumen Jardunaldiak

Erakusketa zabalik dago kultura etxean eta datozen egunetan hitzaldiak, azoka eta irteerak egingo dituzte

## O.E. OÑATI

Hegazti sarraskijaleak izango dira aurtengo Ingurumen Jardunaldietako ardatza. Atzo, eguena, animalia horiei buruzko erakusketa zabaldu zuten kultura etxean, ikusgai egongo diren argazkiak atera dituzten bi argazkilarien laguntzarekin.

Erakusketaren irekierak eman dio hasiera aurtengo egitarauri. Martxoaren 11ra arte egongo da zabalik, eta, bitartean, hitzaldiak, filma emanaldia, azoka eta zuhaitz landaketak egingo dituzte, adibidez.

Hitzaldietako baten, esaterako, sarraskijaleen egoera Gipuzkoan zein den azalduko du Mikel Olano basozainak eta beste baten erakutsiko dute hegazti horien jarraipena nola egingen dieten Oñatin. "Hemen dago sai arren Euskal Herriko koloniarik handiena. Sai zuriak ere ikusten dira", dio Natur Eskolako Idoia Bollarrek.

Hegazti horiei buruzko azalpenak erakusketa gelan egingo dituzten bisita gidatuetan ere emango dituzte, martxoaren 1ean eta 6an, 19:00etan.



Martizen iluntzean egin zuten elkarretaratzea Foruen plazan. J.B.

## Salatu dute Euskal Herrian tortura "sistematikoa" dela

1960tik 2014ra bitartean Debagoiengan 162 tortura salaketa izan dira, horietatik 60 Oñatin

## J.B. OÑATI

Euskal Memoria fundazioaren arabera, 1960a ezker 5.657 tortura kasu izan dira EAEn, eta Paco Etxebarria auzitegi medikuak eta haren lantaldeak egingako ikerketak 3.400 pertsonak jasandako lau milatik gora ebidentzia jarri zituen mahai gainean *Tortura: 1960-2014* izeneko ikerketaren behin betiko txostenaren. Debagoiengan 162 tortura salaketa izan dira, horietatik 60 Oñatin, eta elkarretaratzea egin zuten martitzenean Foruen plazan. "Tortura salatzeaz gain, torturatuendako justizia

eta erreparazioa eta bizi izan duguna ez errepikatzea eskatzen dugu", adierazi zuen 1995ean atxilotua eta torturatu izan zen Jose Mari Zugastik.

Astean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak ETako kide eta 2008an Arrasaten atxilotutako Igor Porturi eta Mattin Sarasolari tratu txarrak emategatik Espainia zigortu izana positiboki baloratu du Zugastik. Salbuespen egoera mantentzen den bitartean tortura arriskua egongo dela ere badi, eta halako bizipen bat ez dela gaintzen gaineratu du.

# Mozorroak erretiratu eta karapaixoak enkargatu

Bukatu dira aurtengo Aratusteak eta garizuma edo karapaixo sasoia hasi da. Euria egin du mozorro jaietan, baina, besteak beste, lehoi, mahats, Juan Tranposo, Lantzeko Inauteri eta sorgin jantzi dira herritarrak, eta kalean ibili dira egunotan

## Oihana Elortza OÑATI

Euria zen aurtengo Aratusteak ospatzen hasi zirenean, egubakoitz arratsaldean, eta euria ari zuen azken egunean ere, martitzenean. Baina mozorroak jantzi, eta kolorez eta musikaz apaindu dituzte kaleak eta eraikinak egun hauetan herritarrek. Orain, hemendik eta Aste Santua iritsi bitartean, aita pontekoen eta ama pontekoen lana da besoe-takoei karapaixoak oparitzea, eta egubakoitzetan bijilia egingo duten herritarrak egongo dira.

## Koloreak

Frutaz eta rockzaleez mozorro-tu ziren, adibidez, Txantxiku Ikastolan egubakoitzean. Eurak izan ziren lehenak mozorroak jantzi eta Aratusteak ospatzen. Gauean, berriz, gaztetxean elkartu ziren Inauterizaleak eta musikazaleak The Joxerramones taldea zuzenean entzuteko. Zapatuan, Oñatz dantza taldearen eskutik sortutako Inauterietako

Taldearen eguna izan zen. Goizean eta arratsaldean ibili ziren kalean gora eta behera, eta ohiko dantzaldiarekin amaitu zuten eguna, Foruen plazan. Domeka iluntzean Luzaideko bolantak dantzatu zituzten Oñatz dantza taldekoek kalean.

Aratusteetako martitzena ospatzeko, pailazoak izan ziren Zubikoa kiroldegian, aurreko urteetan moduan, eta DJ festa gaztelekuan. Hermansoloñako kideek txokolate beroa banatu zuten kontzejupean. "66 litro egin genituen, 300 errazio. Eskerrak eman gura dizkiegu laguntzaileei, Udalari, etorri ziren herritar guztiei eta urtero kakaoa ematen digun Azurmendi andreari, Zahorko jabe zen Egañaren alargunari. Baita Makalena elkarteari ere. Pago Uson obrak egiten ari dira, eta han egin dugu aurten txokolatea", adierazi du Jose Antonio Urteagak. Goizean, Urgaingo eta Elkar Heziko ikasleak mozorro-tu ziren.



Inauterietako taldea kalez kale ibili zen dantzan zapatuan. IMANOL SORIANO



Fruta eta rockzale jantzi ziren Txantxiku Ikastolan. I.O.



Altsasuko Inauteriak antzeztu zituzten Urgaingoek. O.E.



Elkar Heziko gimnasioan zirkua muntatu zuten. O.E.



Txokolate beroa estimatua izan zen martitzenean. O.E.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

## Euskara eskakizunak hizketagai

Euskarari buruz asko hitz egiten dugu; euskaraz, berriz, ez horrenbeste. Euskara gaitzat hartuta jarduteak ez du zertan txarra izan; bere horretan, izan daiteke onuragarria ere. Baina, sarri askotan, gehiegitan, euskara erasoak, atzerapausoak, liskarrak... tarteko izaten dugu hizketagai. Horren lekuko da aste honetan Ciudadanos alderdiak proposatutako legea: ez dute nahi euskara, katalana eta galegoa -hirurak ere hizkuntza koofizialak euren herrietan- jakitea betekizuna izatea lanpostu publikoetan; gehienera ere, lanpostu batzuetan merituz

gisa onartzearen alde agertu dira. Euskaraz jakitea eskatzea berdintasunaren aurkako gaitza omen da eta elebakarren eskubideak urratzen ei ditu. Nonbait, euskaldunok ez dugu eskubiderik eta ez dugu berdintasunik merezi. Lekutan dago aniztasunaren edota elkarbizitzaren aldeko diskurtsoa! Gehiago jakitea, kompetenteagoa izatea, azken finean, profesional hobe izatea zigortzea proposatzen dute. Astakeria galanta! Baina ez gaitzezen inozoak izan, proposamen hau ez da asmakizun merke bat; ideia

honek, oraindik gaur egun ere, jarraitzaile ugari ditu Espainian eta Ciudadanos alderdiak boto ugari irabazteko aukera ikusi du. Honelako eta antzeko erasoan aurrean jarraitu egin behar dugu euskara erabiltzen, berdintasunaren, aniztasunaren, alde egiten. Ni neu, Eneko Sagardoik, *Handia* filmean egindako lanagatik, aktore gazterik onenaren Goya saria jaso ostean botatuko ideiak iradokitzen duenarekin geratzen naiz: «Jarrai dezagun zinema egiten euskaraz, katalanez eta galizieraz, hizkuntza txikiak erraldoi egiten gaituztelako».

## Astelehenean esango dute zein den Arazarixaneko lehen proba

Bideoak grabatu, argazkiak atera eta lehengo eta egungo ohiturak uztartu beharko dituzte DBHko gazteek

### O.E. OÑATI

Bigarrenaz antolatuko dute Arazarixan! ginkana DBHko mailatan dauden gaztetxoendako. "Aurten ere lau proba egin beharko dituzte. Astelehenean zintzilikatuko dugu webgunean lehenengoa. Martxoaren 23an festa bat egingo dugu parte hartu duten guztiekin eta proba guztiak egiten dituztenendako sari potoloa egongo da. Puntu gehien lortzen dituen taldearen dako, berriz, sari berezia", azaldu du Topaguneko Leire Lardizabalek.

### Martitzenetan

Gazteek astebete izango dute eskatutako proba egiteko eta martitzenetan aukera izango dute euren kezak edo ideiak Josu Zubia dinamizatzailearekin elkarbanatzeko. "Bideoak grabatu, jendearekin egon edo argazkiak atera beharko dituzte, adibidez", dio Lardizabalek. Zazpi talde aurkeztu dira dagoeneko, baina astelehenera arte dago zabalik izen-ematea, [www.arazarixan.eus](http://www.arazarixan.eus) helbidean. Proben argibideak eta emaitzak ere hor argitaratuko dituzte.



Ion Agirre oñatiarra aingura zaharrak kentzen eta berriak jartzen ibili da. GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOA

## Eskalada-guneak berriro hornitzeko hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Mendi Federazioak hamazazpi eskalada-gune berriro hornitzeko hitzarmena sinatu dute; Araotzekoa horietako bat da, eta hango eskalada-bideetako zenbait aingura berri jarri dituzte, baina guztiak ez

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Ez da kontu berria hau. Izan ere, 2014an jaso zuen lehenengo diru laguntza Gipuzkoako Mendi Federazioak, eta 2015ean ere jaso zuen. 2016an, Foru Aldundiko gobernu aldaketa dela eta, ez zen diru laguntzarik izan -2015eko ekainean izan zen gobernu aldaketa-.

Orain, bi aldeek sinatu duten hitzarmenak ahalbidetuko du 2017-2020 epean Gipuzkoako Mendi Federazioak urtero diru laguntza bat jasotzea, aipatutako hamazazpi eskalada-gunetako eskalada-bideak berriro hornitzeko. Ion Ugarte oñatiarra lan horiek egiten ibili da, Gipuzkoako Mendi Federazioarentzat lanean. "Orain arte egin duguna da, zehazki, eskalada-bideetako aingura zaharrak kendu eta berriak jartzea. Izan ere, altzairuzko aingurak dira, eta, denborak aurrera egin ahal, erabilerarekin eta baldintza klimatologikoen ondorioz, hon-

datu egiten dira, herdoildu", adierazi du.

Guztira, 25.000 euroko diru laguntza emango du Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero, hamazazpi guneentzat. "Gipuzkoako Mendi Federazioak kudeatzen du diru laguntza, eta kontaktuan jartzen da bertako eskalatzaileekin. Haiekin adosten du zeintzuk diren behar gehien dituzten bideak, berritu beharrekoak. Horrez gain, aingurak gorago edo beherago jartzea komeni dela esan digute leku batzuetan, edota aingura berri batzuk jartzea. Holako aldaketatxoak ere egin ditugu", azaldu du Agirrek.

Oñatiarrak adierazi duen moduan, Araotzeko gunean orain arte hainbat aingura berri jarri

**25.000 EURO JASOKO DITU MENDI FEDERAZIOAK, URTERO, HAMAZAZPI GUNERENDAKO**

dira, baina oraindik beste hainbat falta dira. Beraz, oraindik lana badagoela azpimarratu du. Araotzekoaz gain, Zazpitarri -Amezketak-, Txindoki eta Ausa Gaztelu -Abaltzisketa-, Saturraran eta Olatz -Mutriku-, Aizkorri -Andoain- eta Ezkue-Tximistarri -Pasaia- guneetan egingo dituzte mantentze-lan horiek aurtan.

Geroz eta gehiago dira eskalada praktikatzan dutenak, eta Araotzeko gunea erreferentzia handia da. Agirreren esanetan, 60 erabiltzaile inguru ditu gaur egun gune horrek.

**Federazioaren mezua**

Gipuzkoako Mendi Federazioak mezu bat bidali die gune horietan eskalatzan ibiltzen diren guztiei. "Hutsen bat ezagutzen baduzu -egoera txarrean dagoen ainguraren bat, bloke ezegonkorren bat, eta bar-, berriro hornitzeko epean zehar konpontzeko, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea".

## Konfiantza berreskuratu ostean, partidu zaila du Aloña Mendik

Nerea Morenoren neskek Aiala ZKE talde zarautzitarra izango dute aurkari bihar, zapatua, 16:30ean, Zubikoan

**E.A. OÑATI**

Lehenengo itzuli osoan bi garaipen baino ez zituzten lortu Aloña Mendiko eskubaloiko neskek. Hala ere, azken hiru partiduak errenkadan irabazi dituzte, eta, horren ondorioz, sailkapenean gora egin dute. Maider Gomez kapitainaren esanetan, taldeak, "konfiantza" berreskuratzeaz gain, "indarrak" hartu ditu, mailari eusteko helburu hori lortzeko bidean. "Lasaia gaude orain, eta hori nabaritzen da entrenamenduetan", azpimarratu du.

Hala ere, Gomez jakitun da biharkoa ez dela batere partidu erraza izango. "Urtero gora begira dagoen talde bat da. Defentsan ondo aritzearekin ez dugu nahikoa izango. Erasoan ere asmatu beharko dugu, oso talde azkarra delako eta kontraerasoan min handia egiten duelako".

Bestalde, Fagor Industrial Aloña Mendik Ilcapo Hondarribia hartuko du bihar Zubikoan, nesken partidua amaitzean -18:15ean-. Erreterian galdu ostean, garaipena ezinbestekoa dute Aitor Aranbururen mutilek.



EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOA

## Ormaetxea eta Bikuña, sarituak

Euskadiko Triatloi Federazioak 2017ko Euskadiko Duetloi eta Triatloi zirkuituetako atleta onenak saritu ditu. Miren Josune Bikuñak bi sari eskuratu ditu duatloian eta Beñat Ormaetxeak, duatloian bat eta triatloian beste bat. Bestalde, Antxintxika Triatloi Taldeak bi sari lortu ditu: duatloian junior mailan -lehenengo- eta triatloian, gizonetako -bigarren-.

## Garaipenaren bidera itzuli gura dute Gotzon Urtzelairenek

Hiru hilabeteren ostean, lidergoa galdu zuen duela bi aste Aloña Mendik, etxean Zestoaren aurka galdu ostean (0-1). Orain, hirugarren daude oñatiarrak, lidergotik bi puntura. Dinamika onera itzultzen saiatuko dira Urtzelairenak etzi, domeka, Beasainen aurka, Loinatz futbol zelaian jokatu duten partiduan -16:30ean-.

## Elur-jausien gaineko ikastaroa eskainiko du Jon Apodakak

Saio teorikoa astelehenean izango da eta praktikoak 24an eta 25ean, Candanchu-Astun inguruan -zehazteke oraindik-. Aurrez izena eman beharko da, [alonomendi.mendi@gmail.com](mailto:alonomendi.mendi@gmail.com) helbidera idatzita. Preziosa 70 euro da. Jon Apodaka geologoa eta nibologian aditua da eta beste zenbait elkartetako kide ere bada.

# Urko Arregi izango da finaleko oñatiar bakarra

Txinparta Gazte Sariketako finala jokatuko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Antixena gaztetxean: hiru bikote ariko dira lehian, eta, buruz burukora iritsitakoan, bikote izan direnak aurkari izango dira, txapelkun bakarra izango da-eta bukaeran

**Eneko Azurmendi** OÑATI

Oihana Arana eta Garazi Nava-  
rro; Ane Beloki eta Iratitz Sara-  
sola; eta Gartxot Ramirez eta  
Urko Arregi. Horiek izango dira  
lehian ariko diren hiru bikoteak.

Hainbat ariketa egin beharko  
dituzte finalean: lehenik, nor-  
banako bakoitzak zortziko han-  
dian hiruna bertso; zortziko  
txikian hiruna bertso; hamarre-  
ko txikian hiruna bertso eta  
koplaka, launa koplaka osatu arte.  
Ondoren, bikoteka banatuko  
dira ariketak. Hala, bikoteko  
batek bi punturi erantzun behar-  
ko die eta besteak bakarka bi  
bertso osatu beharko ditu, gura  
duen doinu eta neurrian.

Ariketa guztietako puntuak  
batuta, puntuazio altuena duen  
bikotea pasako da buruz buru-  
kora, eta elkarren aurka aritu-  
ko dira, txapelaren lehian. Buruz  
burukoan, hiru ariketa egin  
beharko dituzte: puntuka sei  
bertso osatu arte, zortziko txikian  
hiruna bertso eta hitza emanda,



Ramirez eta Arregi. OÑATIKO UDALA

finalista bakoitzak bi bertso  
osatu beharko ditu.

## Txapelaren bila

Sei finalisten artean, Urko Arre-  
gi izango da oñatiar bakarra.  
Finalari begira lasai dagoela

aitortu du. "Astea lasai pasatzen  
ari naiz. Baina finala iristen  
denean beste gauza bat izango  
da, seguru", adierazi du. Herri-  
ko ordezkari bakarra izate horrek  
motibatu egiten duela dio. "Mo-  
tibazioa eta ilusio pizten dit  
oñatiar bakarra izateak. Ea  
txapela etxean geratzeko auke-  
ra dagoen", azpimarratu du.

Aurkariei dagokienez, ez du  
busti nahi izan. "Batzuk beste  
batzuk baino hobeto ikusten  
ditut, baina, orokorrean, oso  
orekatuta ikusten dut finala".

Buruz burukora iritsiz gero,  
ordura arte bikotekide izandakoa  
aurkari izango luke Arregik.  
"Kasua emanez gero, arraroa  
izango da, saio osoan zehar bere  
alde egin ostean aurkari izango  
dudalako".

Sariei dagokienez, irabazleak  
txapela eramango du etxera, eta,  
horrez gain, publikoaren saria  
ere egongo da. Beraz, ikus-ent-  
zuleek euren botoa ere eman  
ahal izango dute.



Mozorrotuta zoriondu zuten lagunek Arregi, pasa den domekan. ZIGOR PLAZAOLA

## Beste bost aldiz emango dute 'Handia' filma kultura etxean

Gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean eta etzi  
ere 19:30ean eta 22:30ean izango dira emanaldiak

**E.A.** OÑATI

Mozorrotuta zoriondu zuten  
pasa den domekan Aitor Arregi  
lagunek, Otamendi tabernan  
egin zuten ekitaldi xumean,  
*Handia* filmak eskuratu dituen  
hamar Goya sariak direla eta.

Arrakasta handia izaten ari  
da oñatiarrak eta Jon Garañok  
zuzendutako filma. Hori dela  
eta, beste bost aldiz emango dute  
kultura etxeko zinema-aretoan  
asteburu honetan: gaur, eguba-  
koitza, 22:30ean; bihar, zapatua,  
19:30ean eta 22:30ean; eta etzi,  
domeka, 19:30ean eta 22:30ean.  
Beraz, filma ikusteko gogoz ge-

ratu denak edo berriz ikusi nahi  
duenak hor dauka aukera.

Estreinaldiarekin batera, ha-  
mar aldiz eman zen *Handia*  
zinema-aretoan, urriaren 20tik  
azaroaren 1era bitartean, eta  
1.090 pertsonak ikusi zuten.

## Tertulia astelehenean

Arregi ibilbide oparoa egiten  
ari da zinemagintzan, eta, au-  
rrera begira ere, zenbait proiektu  
ditu esku artean. Hori guztia  
izango du hizpide oñatiarrak  
astelehenean Santa Ana antzo-  
kian, Miren Arregi kazetariak  
gidatutako solasaldian -19:30-.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**GARRAILAN**  
BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@uribesalgo.es



lazko lasterketaren lehenengo metroak; Juanjo Igartzabal eta Mainer Gaztañaga izan ziren onenak. IMANOL SORIANO

## Indartuta datoz 8 Miliak, nahiz eta lokatzetan izan

**MENDI LASTERKETA** Desagertzeaz egon bazen ere, domekan egingo dute Antzuolako lasterketaren seigarren edizioa, eta indarberrituta dator: "Domekan eguraldia ez dugu lagun izango, baina Antzuolako herriak erantzun egingo du", dio Gurutz Larreak

**Xabier Urzelai** ANTZUOLA

"Egia esateko, eguraldi honekin apur bat beldurtuta ere bagaude, Irimon oraindik elur asko dagoelako", adierazi du, umorez, lasterketa antolatzeke ardua duen lagunetako batek, Gurutz Larreak, aste barruan. "Imajina dezakezue bota duen guztiarekin ibilbidea zelan dagoen. Nik uste dut horrenbeste euri egin eta gero lokatzarik ere ez dagoela, dena dela ura [Barre]", gaineratu du. Jakinda, baina, domekan ibilbidearen egoerak inor ez duela ezustean harrapatuko. Irteera puntuan batuko diren 260 lasterkariak ondo dakite zer izango duten aurrean.

**Boluntario gehiago**

"Dena dela, gure partetik, behintzat, ez dadila izan: baliabide gehiago jarriko ditugu, inork arazorik izan ez dezan". Hala, mendian egongo den boluntario kopurua handitu egin dute: "Batez ere, Irimon, haizak dauden tokian... Hor jendea izango da

manta termikoekin, walkiekin eta bestelakoekin; izan ere, korrikalariren bat, motiboa edozein dela ere, geratu egiten bada, hoztu egin daiteke, eta hori saihestu gura dugu".

**Esker oneko lana**

Aurreko bost edizioen ostean, eta iazkoa azkena izango zela aurreratu eta gero, aurten egin beharreko lanak ez du inor ezustean harrapatu, antolaketa taldean daudenak lehen ere saltsan zebiltzan eta: "Lau lagun berri etorri dira eta horrek asko erraztu ditu lanak, hobeto banatu ditugulako. Guztira, zortzi lagun inguru ibili gara lasterketa antolatzen, eta domekan, lasterketa egunean, herri erdia baino

**IAZKO IRABAZLE  
JUANJO IGARTZABAL  
ETA MAIDER  
GAZTAÑAGA DIRA  
FABORITOAK**

gehiago mobilizatuko da lasterketarako [Barre]. Alde horretatik, lasai gaude, badakigulako antzularrek ondo erantzungo dutela. Izan ere, pena ematen zigun herri mailan lagun gehien batzen dituen ekimena galtzeak. Halako bat antolatzea lana da, baina esker oneko lana, jendea ondoren gustura geratzen delako. Gainera, izen-ematea bi egunetan agortu zen, horrek ere lagundu egiten du".

**"Errekorra ez dago arriskuan"**

Domekako lasterketari begira, iazko irabazle Juanjo Igartzabalek eta Mainer Gaztañagak baieztatu dute irteera puntuan izango direla. "Hasiara batean, eurak dira faboritoak. Kontuan izanda iaz Igartzabalek lasterketaren errekorra ezarri zuela (1.04) eta emakumezkoetan Gaztañagak hiru segundogatik ez zuela errekorra ondu (1.18). Ikusita domekan mendia zelan egongo den, marka horiek, oraingoan, ez daude arriskuan".

## Espainiako Txapelketan ordezkaritza zabala izango da

Arrasateko lau atleta izango dira Valentzian aste bukaeran, kategoria absolutuan lehiatzen

**X.U. ARRASATE**

Arrasateko lau atletak dute Espainiako Txapelketa absolutuan lehiatzeko gutxieneko marka. Hasteko, Istar Dapena hirugarren postuan sailkatu zen pertika saltoan joan den astean Salamancan, 23 urtez azpikoen txapelketan (5,05), eta marka hori ontzeko aukera izango du Valentzian, baina, oraingoan, nagusiekin lehiatuko da.

Eta Estatuko onenekin lehiatuko dira, baita ere, Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua. Azken urteotan bi atleta horiek erreferente bilakatu dira pertikan, eta Valentzian ere faboritoen zerrendan daude –iaz biak igo ziren podiumera–.

**Ibai Fernandez, "gozatzer"**

Arrasateko laugarren ordezkaria, Ibai Fernandez, berriz, gozatzer izango da. Berez, 20



Istar Dapena hirugarrena izan da. GOIENA

urtez azpiko atleta da, eta Estatuko gizonik azkarrenekin lehiatuko da. Duela hamabost egun, 6,92 egin zuen 60 metroko proban.

Bestalde, gazte eta junior mailako Gipuzkoako Txapelketak egingo dituzte Anoetan, eta etxeko hamabi atleta lehiatuko dira.



A.O.

## Oyanguren, jardunaldiko onena

Izotz hockeyan, Sumendi taldeko lone Oyanguren aramaiarra izendatu dute Iberdrola Ligako hamaikagarren jardunaldiko jokalaria onena. Aramaioko atezainak Espainiako Selekzioan ere jokatzen du, eta urteko helburu nagusia aurten Mexikon jokatuko duten Munduko Txapelketan egotea da. Bada, bide onetik doa.



Maika Ariztegi eta Irune Izkuze, 2016an, Abaltzisketan gizonezkoen kontra jokaturako norgehiagokan. Irabazi egin zuten. ATARIA.EUS

# Emakumezkoak, lehen aldiz Urrezko Aizkoran

**HERRI KIROLAK** Oñatin jokatu dituzte, domekan, 12:00etan, txapelketa horretako finalerdiak. Eta lehenengo aldia da emakumezkoak torneo horretan lehiatzen direla. Irati Astondoa, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo izango dira aurrez aurre

**Xabier Urzelai OÑATI**

Urtero moduan, herri kirolen puntako ikuskizuna eroan gura izan du herrira Oñatiko Herri Kirol Taldeak. Eta Urrezko Aizkora aitzakia ezin hobea da horretarako, modalitate horretan onenak daude eta bertan. Bada, aurren, lehen aldiz, emakumezkoek ere txapelketa parte hartuko dute: "Beste kirol jardue-

retan gertatzen den moduan, hemen ere emakumezkoak euren lekua egiten dabilta", dio Angel Villarrek. Hala, emakumezkoen artean, Villarrek Maika Ariztegi jotzen du faboritotzat: "Eta hori aurreko txapelketan Nerea Sorondok irabazi zuela, baina, domekara begira norbaiten alde apustu egin beharko banu, Ariztegiaren alde egingo nuke", dio.

**Gizonezkoetan, oso parekatuta** Gizonezkoen kategorian, berriz, Mugertza II.a eta Otaegi eta Atutxa eta Txikia dagoeneko finalista erabakiko da: "Kanporaketa hori oso parekatuta dago". Azurmendik eta Rekondok Vicente eta Saralegi izango dituzte aurrean, eguerdiko hamabietan, plazan.

## 'Guzta' ibiliko da harria jasotzen

Aizkolariekin batera, Urrezko Harri Jasotze Txapelketa ere jokatu dute Oñatin. Hor, baina, parte-hartzaile bakarra izango da, Xabier Aranburu *Guzta*. *Guzta*-k 175 kiloko harri errektangularra eta 150 kiloko harri kubikoa erabiliko ditu.

**Txarra egiten badu, Zubikoan** Plazan izango da, baina, euria eginez gero, Zubikoan.



Guzta, 213 kiloko harriarekin, Igarondoko frontoan. GOIERRIKO HITZA

## ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

**Leintz Arizme.-Hernani**  
Zapatua. 16:00. Mojategi.

OHOREZKO ERREGIONA.

**Beti Gazte-Aretxabale.**  
Domeka. 17:00. Lesaka.

**Pasaia-Mondra**  
Zapatua. 16:30. Errenteria

**Mutriku-Bergara**  
Zapatua. 16:30. Mutriku.

ERREGIONAL PREFERE.

**Antzuola-Aretxabaleta**  
Zapatua. 16:00. Estala.

**Soraluze-Mondra**  
Zapatua. 16:30. Ezozia.

**Zestoa-Bergara**  
Zapatua. 16:00. Iraeta.

**Beasain-Aloña Mendi**  
Domeka. 16:30. Loinatz.

LEHEN ERREG. IGOERA

**Aloña Mendi-Pasaia**  
Domeka. 16:30. Azkoaga.

EMAKU. IGOERA FASEA

**Bergara-Touring**  
Zapatua. 17:30. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

**Mondra-Lazkao**  
Domeka. 18:00. Mojategi.

**Bergara-Aloña Mendi**  
Domeka. 16:30. Ipintza.

**Aretxabaleta-Elgoibar**  
Domeka. 16:30. Ibarra

EMAKU. IGOERA FASEA

**Intxaurdi-Bergara.**  
Zapatua. 11:45. Donostia.

EMAK. ERREG. KOPA

**Aloña Mendi-Intxurre**  
Zapatua. 16:30. Azkoaga.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

**Kukuyaga-Aretx. UDA**  
Zapatua. 17:30. Etxebarri.

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Mondrate-Gernika**  
Zapatua. 17:30. Musako.

**Scalibur-Eskoriatza**  
Zapatua. 18:15. Basauri.

GIPUZKOAKO LIGA

**Laskorain-Mondrate**  
Zapatua. 12:00. Tolosa.

SENIOR EMAKUMEZKOA

**Idiazabal-Eskoriatza**  
Zapatua. 17:00. Idiazabal.

SASKIBALOA

EBA

**CBT Gimnastica-MU**  
Domeka. 12:00. Torreia.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

**Atletico-Aloña Mendi**  
Zapatua. 20:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

**Hernani-Bergara Soral.**  
Zapatua. 16:45. Hernani.

SENIOR EMAKUMEZKO

**Antigua-Eskoriatza**  
Domeka. 12:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Fagor Indus.-Hondarri.**  
Zapatua. 18:15. Zubikoa.

**Ford Mugarri-Txikipoliti**  
Zapatua. 19:00. Iturripe.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

**Aloña Mendi-Aiala**  
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Sesiñena Aloña-Legazpi**  
Domeka. 12:30. Zubikoa.

**Soraluze BKE-Urola**  
Zapatua. 18:30. Bergara.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

**ART-Escor Gaztedi**  
Zapatua. 16:30. Mojategi.

PILOTA

PILOTA FEDERATUA

**Oñati:**  
Gaur. 18:30. Sei partidu.

**Aretxabaleta:**  
Gaur. 19:00. Lau partidu.

**Arrasate:**  
Gaur. 20:30. Partidu bat.

**Bergara:**  
Domeka. 17:00. Bi partidu.

## SASKIBALOA Amerikar bat joan, eta beste bat etorri, MUn

Taldea indartzeko denboraldi hasieran Ointxe!-k AEBetatik ekarritako jokalaria Justin Satchell-ek ez du zorterik izan Arrasaten. Udazkenean min hartu zuen hankan, urriko azken astean, eta Gabonak arte geldi egon behar izan zuen, erreperatzen. Bada, joan den astean Ordiziaren kontrako garaipenean, Miamiakoak lesio berbera izan zuen, eta, ondorioz, denboraldia amaitu da Satchell-entako -AEBetara itzuli da aste barruan-.

Horren aurrean, Ointxe!-ko zuzendaritzakoek beste jokalaria bat fitxatu dute AEBetatik, Jordan Rutherford (Dallas, 1995, 2,01 metro).

## FUTBOLA Leintz Arizmendik Hernani hartuko du bihar

Emakumezkoen Euskal Ligan, Leintz Arizmendik sailkapenean ondo-ondoan duen Hernaniren bisita izango du zapatuan. Aratusteengatik atsedendia izan zuten joan den astean, eta bihar, ligako zortzigarren garaipenaren bila zelairatuko dira bi taldeak.

Ohorezko Erregionalean, hiru taldeek kanpoan jokatu dute, baina Erregional Preferentean partidu interesgarriak izango dira (ikus goiko taula); besteak beste, Antzuolak eta Aretxabaleta Estalan jokatu dute derbia (zapatua, 16:00). Igoera fasean dabilzan Bergarako neskek Intxaurderen zelaian jokatu dute eta Aloña Mendiko neskek, Intxurreren kontra.

# Musikaren alde hurbila, Oñatiko Beratu jaialdian

Martxoaren 18tik 25era bitartean egingo da Oñatiko Udala herriko eragileekin eta Ahotsenearekin elkarlanean prestatzen ari den musika jaialdia; kontzertuak, tailerra, mahai-ingurua, disko azoka eta arloko profesionalendako jardunaldiak izango dira

## Aitziber Aanburuzabala OÑATI

Musikagintza ardatz hartuta eta askotariko arloak jorrazteko helburuarekin ari da Oñatiko Udala –herriko askotariko eragileekin eta Ahotsenearekin elkarlanean– martxorako Beratu jaialdia antolatzen. "Musika entzuteko askotariko aukerez gain, musikaren ertz ezberdinak bizitzeko modu berri bat proposatzen dugu, gertuko eta hurbila izan gura duena. Agertokiaz harago, musika industriaren atzean ikusten ez den hori guztia bistaratu nahi dugu", kontatu dio GOIENARI Oñatiko Kultura batzordeburu Nerea Zubiak.



Delorean Donostiako musika taldea izango da Beratu jaialdian. ALBA YRUELA

## Astebete

Musikan urteetako eskarmentua duen Arkaitz Villar herritarra joan zitzaiera dio Zubiak, Euskal Herrian dauden musika estilo ezberdinak erakusteko kontzertu bat egiteko proposamenarekin, eta hortik abiatuta hasi zirela hainbat egunetako egitaraua prestatzeko aukera aztertzen. "Azaroan musika klasikoaren zikloa izaten dugu eta urtean zehar bestelako kultura ekimen asko ere bai; baina zer edo zer berritzaileagoa edo gaur egunekoagoa falta zela ikusi genuen; eta, Arkaitzen hariari tiraka, astebeteko egitaraua osatu dugu.

Aholkulari moduan Arkaitz ondoan izango dugu, eta herriko eragile eta kolaboratzaile askorekin ari gara elkarlanean: Zai Zoi Bele herriko musika taldeen kolektiboa; Ilunpetan argazki taldea; Gaztetxea eta Eltzekideak. Horrez gainera, Ahotsenearen laguntza ere izango dugu".

Txoko ezberdinetan izango dira ekintzak, saioaren formatuaren edo tokiaren ezaugarrien arabera kokatuta. "Ekimenaren beste helburuetako bat da kanpotik datozenei eta herritarrei

dugun azpiegitura erakustea eta balioan jartzea. Horrenbestez, oraindik dena lotuta ez dagoen arren, asmoa da gaztetxean, gaztelekuan, kultura etxean, Santa Ana aretoan, Eltzian eta kalean eskaintzea ekitaldiak".

## MUSIKAREKIN GOZATU ETA SEKTOREARI BURUZ BERBA EGITEKO, MARTXOAN BERATU JAIALDIA

### Jarraikortasuna izateko jaioa

Lehenengoaren emaitza ikusita erabakiko dute jaialdiaren etorkizuna. Zubiak adierazi du, baina, hasiera baten jarraikortasuna izan gura duela Beratuk. "Izenak adierazten duen moduan, patxadaz eta denboraz hartu gura dugu, baina gure nahien artean badago aurrera begira ildo horretan lanean jarraitzea".

### Gozatze eta hausnartzeko

Bi adar ditu jaialdiak: publiko zabalarendako da bat, eta arloko profesionalendako, hedabideendako eta bestelako eragileendako bestea.

Guztionez zabalik daudenak dira: kontzertuak; disko azoka, familia giroan tailerra eta mahai-ingurua. "Euskal musika izango da osagai nagusia, baina Maria Arnal eta Marcel Bages katalanak ere gonbidatu ditugu; aurkezpen ekitaldian, ahozko tradizioetik sortzen dituzten kantuak eskainiko dituzte. Kontzertu horrek eta gaztelekuan Delorean eta Lumi taldeek eskainiko dutenak ordaindutako sarrera dute, gainontzekoak doan dira".

Ahotsenearekin elkarlanean profesionalak sektorearen egorri buruz hausnartzeko aukera izango dutela dio Arkaitz Villarrrek: "Eurek ere euskal musikagintzaren gogoeta plaza baten beharra ikusten zutela esan ziguten, eta hutsune hori betetzera dator topalekua. Ekitaldi itxia izango da, eta parte hartzeke izena eman behar da otsailaren 19tik martxoaren 18ra bitartean [ahotsenea@durango-koazoka.eus](mailto:ahotsenea@durango-koazoka.eus) helbidera idatzita".

### 'Beratu.eus' ataria

Astlehenean abiatuko dute jaialdiaren inguruko informazio eguneratua jasoko duen ataria.

## Egitaraua

### Martxoak 18, domeka

- **Beratu jaialdiaren aurkezpena** Maria Arnal | Marcel Bagesen kontzertua, Santa Ana aretoan.

### Martxoak 23, ostirala

- **'Musik Fem' hitzaldia** Emakumeak musikaren industriaren duen tokia aztertzeke solasaldia. Parte hartuko dute: Lorea Argarate (Las Tea Party); La Basu, rap abeslaria; Ines Osinaga (Gose) eta Amaia Ispizua (Get In, MIM elkarte, EHME elkarte).
- **Lukiek taldearen kontzertua** Gaztetxean eta doan izango da.

### Martxoak 24, zapatua

- **'Ahotsenean elkartuko gara' jardunaldiak** Musika industriako profesionalen topaketa egingo dute Eltzia eraikinean. Goizeko ekitaldia itxia izango da, eta publiko guztientzako, arratsaldekoa; disko azoka eta kontzertu akustikoak izango dira.
- **Musika jaialdia** Donostiako Delorean eta Lapurdiko Lumi taldea izango dira gaztelekuan gauean.

### Martxoak 25, domeka

- **Haurrentzako musika sortzeko aplikazioen tailerra** DJ Makalak egingo du gaztelekuan.
- **Kontzertua** Audience taldearen emanaldia.

## HARIRA

### GOIENA TELEBISTA

OTSAILAREN 20AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN  
GONBIDATUA: MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA,  
EAJ-REN EUZKADI BURU BATZARREKO KIDEA  
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

### LAGUNTZAILEA:

Markiegi

goiena  
Zu hemen zaude.





# Emoziotik abiatuta, Rafa Rueda kantu kontari

Mungiako eskarmentu handiko musikaria Oñatiko bibliotekak antolatu duen 'Saio linbikoak' ekimenean izango da gaur, egubakoitza, 19:00etan. Abesteaz gainera, kantuen eta hainbat libururen gaineko azalpenak partekatuko ditu publikoarekin

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Bakarkako saioa egingo du Rafa Ruedak gaur liburutegian; bere kantuetan oinarritutako emaldia izango dela aurreratu du. "Oinarritzko emozioak abiapuntu, kantuetan ze isla duten... azalduz, ohiko kontzertu batean baino tarte handiagoa izango du hitzak. Horrekin lotuta, egun hauetan irakurri ditudan eta gomendagarriak iruditu zaizkidan pare bat liburu eramango ditut, horien inguruan pixka bat solas egiteko".

## Pertsonen buruzko diskoa

Azaroan kaleratu zuen *Hiri kristalezkoa* lanarekin gustura ari da hara eta hona. "Ez dago gauza hoberik zure lana jendeari eskaini ahal izatea baino. Pozik nago emanaldi nahiko ari direlako ateratzen eta, oro har, jendearen erantzuna ona izaten ari delako. Hiria gaurko gizartearen bizimoduaren kokalekua besterik ez da. Diskoan agertzen diren kantuak edozein hiritan bizi zitezkeen pertsonak dira. Istorio eta egoera ezberdinen arteko hari komuna denak hiritarrak izatea da. Egunerok gurutzatzen ditugun pertsonen kontuak dira. Pertsonen buruz hitz egiteko aitzakia da, gaur egungo gizarteari buruz.



Rafa Rueda musikaria Oñatin izango da gaur. GALDER IZAGIRRE.

Lana argitaratu zuenean mugarrak bat izango zela zioen Ruedak, eta halaxe sentitzen duela berresten du. "Denbora nahikoa neraman lanik kaleratu gabe eta honek balio izan dit hainbat inertziazatik askatzeko. Egund, askeago sentitzen naiz musikarako zein kanturako, eta hori, lan honi zor diot, prestatzen eman dudana denbora, egin dudana hausnarketa eta hau guztia burutzeko izan dudana laguntzari. Jon Agirrezabalaga ekoizlea zein musikari eta idazle lagunak ezinbestekoak izan dira".

## Hitzaldiak eskaintzen ere bai

*Hitzen ahairia* izeneko ikastaroa eskaintzen han-hemenka dabil Gotzon Barandiaranekin. "Idazle eta musikariaren arteko elkarlanetik sortutako kantuen errepaso bat egiten dugu, historia eta testuingurua kontua harturik, euskaldunok zeri kantatu diogun eta zeri kantatzen diogun horri erreparatuz. Oso harrera ona izaten ari da eta badirudi halaxe jarraituko dugula. Hala-ekimenak kultur transmisiorako oso lagungarriak direla uste dugu".

## 25. Bailarako Dantzari Eguna prestatzen ari dira apirilerako

Arrasaten egingo dute, eta, urteurrena ospatzeko, aurreko aldietan parte hartu dutenak gonbidatu dituzte

## A. A. ARRASATE

Debagoieneko dantza taldeetako dantzari helduak batu eta elkarrekin egun-pasa ederri egiteko topaketa da Bailarako Dantzari Egunaren helburua. Urtero antolatzen duten topaketa ibiltaria

da; iaz Aretxabaletan egin zuten eta aurten Arrasaten izango da.

Arrasateko, Aretxabaletako, Oñatiko eta Antzuolako dantza taldeetako kideak ari dira dagoeneko "egun handia" prestatzen. Orain dela bi hilabete ekin

zieten bilerei, eta, egitaraua guztiz lotuta ez duten arren, goizean alardea, bazkaria gero eta arrasaldean erromeria izango dituztela aurreratu dute.

Urteurren borobila izanik, ahalik eta dantzari heldu gehien batzea da antolatzaileen nahia, gaur egungoak eta garai batekoak. "Dantza errazak izango dira, aspaldian dantzatu ez dutenendako ere aproposak. Parte hartu gura dutenei, herriko dantza taldearekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diegu".

## Goiena Klubaren txokoa

### Izarren Liga Goiena Klubean!



**EIBAR - VILA-REAL**  
Partidurako 2 sarrera bikoitz ditugu.  
Otsailaren 28an 21:30ean.  
Parte hartzeko sariaren izena: Eibar

### PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN 26RA ARTE

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "Sororen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen CPD 15/1997 egunaren arabera, jiraren artean dagoen datu pertsonalaren (Goiena Kluba) erabilera baino ez duzun onartzen ez duzun onartzen dela. Datu horien helburu bakarra denbora denbora dagoen sartapen gaitasuna. Eskubide oraineko datu pertsonalaren erabilera. Hainbat erabilera dituen arazoak, hainbat erabilera dituen arazoak, hainbat erabilera dituen arazoak. [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

### Goiena Klubeko otsaileko sariak!



**Gatiburen CDA sinatuta + kamiseta**

Parte hartzeko sariaren izena: Gatibu



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



**Otarrea**  
